



edonor denak ezein ez

Autorearen Heriotzaz harantzago (2. Alea)

EXPERIENTZIA MODERNOARI BURUZKO MINTEGIA
JUAN LUIS MORAZAK KOORDINATUA

TEXTUAK:
JUAN L. MORAZA
CARLOS BOUSOÑO
ANA MARTINEZ COLLADO
JOSE LUIS DE LA MATA
ANGEL GONZALEZ



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

Autoretza, istorioa kontatzeko jabegoa legeztatzen duen erantzukizun esleipena da; Baina era berean, egintza eta autorearen arteko erlazio paradoxiko bat esartzen du, bere gozamenean «baloreen» izaera absolutua deuseztatzen duena. Etika, poetika, estetika, esperientzia erlijiosoa, psikologia, jakintza... emantzipazio eta errealizazio irrika faustikoa den esperientzia modernoak, modu desberdinez Barthes-ek «autorearen heriotza» deitu zuena ikertzen du, hots, ohar nekrologikoen mendeko tradizio horren beste ondorio bat, tradizio horren adierazgarri nagusia Nietzsche-k iragarritako Autorearen (Autistaren?) heriotz maiseatua delarik.

Obra modernoak autorearen kitapen antzeko zerbait azaltzen du, zatikako esperientzia baten paroxismoan galtzen dena -zenbait expresionismotan gertatzen den bezala- edo esentziaren gorenkoari leku emateko atzeratzen dena -abstrakzio jakin batean gertatzen den bezala-, edo obratik kanpo iharduteko obra horretatik alde egiten duena -minimalismo kontzeptualean bezala-, edo intertestualtasuneko jai-programa batean ikuslearekin bat egiten duena. Enuntziazioaren hasierako egoera baterantz deslekturirik, obra adierazpenik gabe agertzen da, anonimoa zeinu huts baten antzera edo berehalakoa ohizko objektu bat bezala. Jadanik ez du norbait adierazten, zerbait gehienez ere. Edo obrak pentsaraziko lukeen «autore-beste bat» baten testigantza egiten du; Edo, erreprodukzio tekniko edo itxuraketaren bitartez, autoretzaren mugetatik ihes egiten du.

Autorearen Grina hori krisi errito batean betikotzen den bitartean, misteriozko irrika berrituak berpizten dira autoretzaren irudian, autoretzako «esperientzia libre» posible eta liluragarri bati bidea itxiz.

Gorakadaren gozamena, erruaren jabegoa.

Juan Luis Moraza

Artista eta hutsa.

Ana Martínez-Collado

Parnaso eta superrealismoaren arteko poesian autorearen heriotza.

Carlos Bousoño

Subjektu isila: irudipen eta formazioak.

José Luis de la Mata

Besteak.

Angel González

Arteleku

Arte Tailerrak - Erakusketak
Dokumentazio Zentrua
Liburutegia - Bideoteka
Uzteko Lekuak
Obra Grafikoen
Argitaltenak
Mindegiak
Hitzaldiak
ZEHAR Artelekuko
Aldizkaria
Argitaltenak



Arteleku

Talleres de Arte - Exposiciones
Centro de documentación
Biblioteca - Videoteca
Espacios de cesión
Ediciones de
Obra Gráfica
Seminarios
Conferencias
ZEHAR Boletín
de Arteleku
Publicaciones

Koadernoa 6 zk.

Auzoa/Barrio de Loyola/Kristobaldegi, 14 / T. (943) 470021 - 453662

Fax: (943) 462256/E- 20014 Donostia/San Sebastián

edonor denak ezein ez

Autorearen Heriotzaz harantzago (2. Alea)

EXPERIENTZIA MODERNOARI BURUZKO MINTEGIA
JUAN LUIS MORAZAK KOORDINATUA

TEXTUAK:
JUAN L. MORAZA
CARLOS BOUSOÑO
ANA MARTINEZ COLLADO
JOSE LUIS DE LA MATA
ANGEL GONZALEZ

AURKIBIDEA

Sarrera..... 11

Gorakadaren gozamena, erruaren jabegoa..... 23

Juan L. Moraza

*Parnaso eta superrealismoaren arteko poesian
autorearen heriotza*..... 61

Carlos Bousoño

*Artista eta hutsa (Artista kitsch-aren fenomenoaren
aurreati: nortasun arazo bat)*..... 71

Ana Martínez-Collado

Subjektu isila: irudipen eta formazioak..... 91

José Luis de la Mata

Besteak..... 211


Angel González

Ale honek, «Edonor denak ezein ez» izenburupean 199 lko irailaren azken astean burututako mintegiari dagozkion interbentzioak biltzen ditu. Mintegiaren zati gisa, erakusketa bitxi bat antolatu zen, 40 artista espainiarri gai berari buruzko gogoeta egitera gonbidatu zintzaiolarik. Gainera, erakusketa horren katalogoa, orain aztergai dugun bigarren ale honen ale aurreratua izan zen.

Barre hartutako testu bakoitzean, autore bakoitza nabaritasun eta izkutapen gisa bikoizten da; eta norberarena ezezik, bere enuntziazioak enuntziatzen duenarena ere. Testu bakoitzean ezaguerarako borondate bat dago eta honekin batera, zentzu baten ziurtasunez esate hori isilarazteko erresistentzia bat. Eta horretarako, oso forma anitzetan autore bakoitzak desberdintasunak ditu, zati eta bikoiztasunak gaineratzen ditu, linealtasunak hautsi, kidetasun eta distantzia bat iradoki. Baina autore bakoitza bere testuaren ondorio eta bitxikeria gisa eta norberaren bitxikeria gisa agertzen da. Eta bere autoretza zintzilik geratzen da irakurtzera ematearen egintza berean. Testu ehundura berak autoretza exekutatu eta autoretza hori bere edukina adina ikertzen du, gai eta egitura, leku eta hurbilketa bihurtuz; hortaz, testu bakoitzak espero duzun erantzuna ematen ez duen eta ematen ez duzun erantzuna ere espero ez duen fabularen fabula kontatu eta agertarazten du:

«Zuk gezurra esaten didazu eta nik gezurra esaten dizut, esan zuen lasai. Zer egingo dugu orduan?, erantzun nion. Ez dakit, erantzun zidan, isil gintezke. Bai, ondo dago isiltzea; baina jolastu ere egin gintezke. Zertara? Hitz egitera...» (109. or.)

Testuen carrera gisa, errepikatzeko arriskua (promesa) izanik ere, hizlariekin batera mintegiaren edukina eratzeko aurkezpen eta aurre-rapen gisa balio izan zuten oharren zatiak barne hartu dira.



Subjektu isila:
irudipen eta formazioak

José Luis de la Mata

Páginas: 91- 208

SUBJEKTU ISILA ZALANTZAN JARTZEKO ARRAZOIA.¹

——→ Egia esan, nire presentzia Artelekuk antolatutako eta Morazak zuzendutako Ziklo honetan, presentzia arrotza da eta, neurri batean, *inozoa*, *umetiarra*. Funtsean, egitate artistikoaren aurrean ezagunak ditudan bi gauza bakarrak burutuko ditut: nire buruari itaundu/galdetu eta gogoeta egin/ elkarrizketan, ahal bada behintzat. Eta ekipaia arin batez horniturik egingo dut: zenbaitetan gauzak agertzen diren horre tan direla -nahiz eta

1. ARTIKULU HONEN IRAKURKETA METODOARI BURUZKO SARRERA GISAKO OHARRA. Artikulu honek baliorik izan zezan, **elkarrizketa, edo hobeto, elkartrukatze analitikorako proposamen gisa** irakurri beharko litzateke. Goitik behera berreketa, errepikapen, keinu, egitate «deja vu» edo testu «deja lu», autore, erreferentzia, aipamen eta itzulerez beteta dago. Elkarrizketa edo bilkura bat bailitzan. **Artelekun** egindako hitzaldirako landutako materialetik eta ondorengo zuzenketetatik abiatu nintzen. Gero hitz egin, isildu, idatzi, materiala berrikusi, ordenatu, jolastu, ordenagailua piztu eta material iturri desberdinetara jo nuen. Saiakeratik sortutako 20 artikulu baino gehiagoren ondoren gelditu naiz. Nonbait, geratzea edo kontsistitzea espero dut. Nolanahi ere, lagun iezadazue bilatzen.

zertan dautzan beti ez dakigun- ulertzen laguntzen didaten *sinismenez* hain zuzen. *Entzuteko* nolabaiteko bokazioa ere badakart, nire lanbideak horretarako prestatzen bainau. Entzutea ez da beti diskurtsoaren jarioan galtzea. Isiltasunetik isiltasunarekin egiten den eragiketa da ere: funtsean, isiltasun horren *formazio eta irudipenekin*. Baina, gauza beragatik, isiltasun hori errefraktatu, nahasi edo faltsu dezakeenarekin ere bai. Ba al da desira baino gauza isilagorik? Baina, era berean, ba al da formaziorako aukera gehiago duen gauzarik? eta, halaber, ba al da desbideraketa, ukapen,.. gehiago paira dezakeen gauzarik?

Bestalde, entzute, galdera, formazio, irudipen, adierazpen horiek ez dute ondo zehaztutako ibilbide uniforme, erregular eta ibilgarri baten linealtasunik. Ez zait axola nire pentsamendua paradoxara zabaltzea: beste ahotsak ager daitezen edo ahots desberdinak argumentuaren harian tarteka daitezen ahalbidetzea. Izan ere guk pentsatzen dugu, edo hobe esan, badakigu gehienetan onartzeko edo jasateko prest gauden horretatik kanpo azaltzen eta agertarazten dela Egia. Badago denborazkotasun ez mekaniko, ez biologiko eta ez informatiko bat *gertakizunak* agintzen/xedatzen dituen, *ez ordea aurrikus daitezkeen erregularitasunak; prozesu eta azaleratze sinbolikoak, objektiboak, berritasunez hornituak dakartzana*. *Barkaidazue orduan nire diskurtsoak nik baino hobeto jakingo duzuen horretatik beharbada interesatzen ez zaizuen horretarako joan-etorria egiten badu.*

Hitza da interesatzen zaidana eta berarekin batera, artea bera, **ezerezetik izatera heltzeko aukera** diren heinean. **Beren erradikaltasun poetikoari** dagokionean hain zuzen. Hitza, gorputza, artea, historia, lana, hots, izatearen agerpenak. Izkututzen dituzten ukapenekin, hutsekin, beren izkutapenekin. Sintoma, biologia, merkagaia, erotasuna, errealitatea. Zera pentsatzen dut, gure entzuteak kokatzen gaituen lekutik subjektuaren bilaketak behin eta berriz zatiketaren pitzadurara, Legearen opakotasunera, Desiraren tentsiora, beharrak inposatzen duen ukapenera amiltzen gaituela. Heriotz pultsioa eta gabeziaren, ezaren onarpena. Behin eta berriz beste funtsa batera igortzen duen muga.

BESTE HISTORIA BAT: W. BENJAMIN

——→ Galdera: zergatik Lacan? zergatik subjektu isila? zergatik «**formazioak**», zergatik «**irudipenak**»? Baina zer dela eta Freud-engana itzuli, zer dela eta subjektuarengana, diskurtsora, poetikara, artera, ekoizkortasun ez sintetikora itzuli. Zergatik Laing-ek «**indibiduazioa**»¹ deitzen zuenaren funtsa goitik behera zalantzan jartzen duen ziurtasun eza hau?

BILAKETARAKO ORIENTABIDEAK. Aurkikuntzaren osotasun mitiko bat dago: mende honetako filosofia, psikologia, psikoanalisi, terapia eta arte oro desokupazioekin hasten diren

1. «**ziurtasun ontologiko**» gisa izendatzen zen eta *mugaketa* baten konpromisua besterik aipatzen ez zuen proposamen garrantzitsua: **niri dagokidanean, dagokidanagatik, dagokidanetik naiz...**

des-aurkikuntzen zergatien aurkikuntzak edo bilaketa dira. Desokupazio errealistikoa, naturalistikoa, adierazkorra, kaotikoa, izpirituzkoa, teknologikoa, etab. Gaur egun eztabaidatua den subjektu/aktore/autore horren, alde guztietatik destokitu edo deseraikia dirudien subjektu horren berri izan ote genezakeen pentsatzen dut. Ea akta filosofiko edo artistikoetan, abangoardian edo errealitate proposamen berrietan, hizkuntzalaritzan edo psikologian bere berri izan ote genezakeen. Egon edo agertu beharko lukeen lekuan alegia.

TORA EDO ERREBOLTA. MAGISTERITZA EDO IS-KANBILA. Mende honetan, artearekin Freudekin bezala gertatu zen. Askok heuren burua freudiartzat hartzen zuten. Subertsioaren zentzu bera ulertu baino lehen. Artean, askok (gutxi batzuk ezik, eta zeri egiten zioten aurre bazekitela suposatzearen baldintzapean) artearen aitzindaritzat jotzen zuten heuren burua. Hurrengoak ezin ziren aitzindariak izan. Freudek uko egin behar izan zion bere burua harrapatuz amaitzen zuen subertsioari: Freud izatearen -subertsiboa agian, nolabaiteko, balizko Egi baten mediuma agian- eta freudiarra izatearen artean -bere irakaskuntzaren maisu eta bere Egiaren jabea- aukera egin behar izan zuen. Desokupazioak eta izkutapenak. Horrela, artean **«hausketatik berritasunera»**, edo **historiatik kronologiara** edo proiektu/keinuak **lehiatu/zehaztu/agindu egiten duen** bizi-kaosetik **agindu, komentatu, desjabetu, isolatu...egiten duen** katalogora joan ahal izan zen.

HISTORIAKO AINGERUA: NEGATIBISMO KRITIKOA?
Benjamin, itxuraz ezinezko proposamen bat planteatzen duen testuan¹, ikuskizunean, historian, teologia negatiboaz duen

kontzeptuan: hondamendi eta deboiladurak, desolazioa. Indarrezko mundu baten eta patuzko unibertso baten artean aukera egiteko inolako gaitasunik izango ez balu bezala. Benjamin bere tribuko deabruak, zoritxarreko indar faszistak, bere borroka psikiko propioa eta kolapso moralari dion beldur arrazoitua atzean dituela. Guk ondo antolatu eta sistematizatutako datuak ikusten ditugu, lotura kronologiko eta/edo kausalak dituztenak. Denbora homogenoa, jarraikakoa, zientifikoki adierazia. Historiako aingeruak beste gauza bat ikusten du: hondamendi egoera bat, zeina ezagutarazi nahi den agian bere berri emateko, bere erantzukidetasuna hartzeko eta bera desagertarazteko. Denboraren pasaera adierazi eta azaltzeaz gain, orainaldi ilun horren berreraikuntza². Baina progresuak etorkizunari bizkarra emanik bultzatzen du, hegoak itxi ezinik, deboiladurak nola gehitzen diren babesik gabe

1 —→ «Klee-ren Angelus Novus izeneko koadro bat dago. Bertan, txunditurik utzi duen zerbaitetik urruntzearegongo balitz bezala agertzen den aingeru bat errepresentatzen da. Bere begiak neurririk gabe irekiak ditu, ahoa irekia eta hegoak zabalik. Eta itxura hau izan beharko du historiako aingeruak. Aurpegia iraganerantz ipini du. Guri datu kate bat agertzen zaigun tokian, berak hondamenak bata bestearen gainean metatzen dituen -bere aurrean jaurtikiz-hondamendi itzela ikusten du. Berak gelditu, hilak esnatu eta txikitutakoa osatu nahiko luke. Baina paradisutik bere hegoetan nahasi den zirimola bat dator eta hain indartsua da non aingeruak ezin dituen hegoak itxi. Zirimola honek etorkizunerantz bultzatzen du ezinbestez, zeinari bizkarra ematen dion eta bitartean, hondamen piloak bere aurrean zeruraino heltzen dira. Zirimola hau, progreso deitzen duguna da» (W. Benjamin, 9. tesia).

2. «hilak esnatu eta txikitutakoa osatu»

diren babesik gabe begietsiz. Aurrera eginarazi nahi dio, orainalditik ihes eginarazi... Baina hala ere, negatibotasunak bere galdera absolutua planteatzen du: izugarrikeriazko orainaldia uztea, **transzenditzea, gainditzea al da? zer dela eta?**

————→ GEZUR FUTURISTA. Ez du nahi deboiladuren «**ihesa**»ren gainean egiten den aurrerapenik; gertatutakoa kontutan ez hartzearen bitartezko etorkizun hobe batek ez du zentzurik deboiladuren eta deboiladuretatiko berreraikuntza gisa ez bada. Inperioaren pausorik ez, hondamenditik egindako berreraikuntza baizik. Positibismo, pragmatismo eta sozialdemokraziak bere esentzian ezagutzen ez dutelako baloratzen dute etorkizuna. Historiako aingeruak iraganaren berreraikuntzan, gizakiak paradisuan zituen aukeren oroimenean -non bere armarik onena aurkitzen den- bilatzen du gizakiaren salbabidea. Itxaropen hauek berreskuratu eta errealtate bihurtu. Benjamin «**faktore subjektibo**»aren defendatzaile deitu ditugun marxista horietakoa da: ezin du objektibo/subjektibo lehiakidetasunaz duen komentzimendua baztertu, ez eta kultur guneko erdieuroparretako kulturalki aktiboa den judutar izaera alderatu ere.

IZAKIA ETA POSIBILITATEA. Hau erabakiorra da, bai aldi hartako intelektual/artisten (ortodoxo nahiz heterodoxoen) ezaugarri asko ulertzeko, bai Benjaminek oinarririk gabeko etorkizunerako joerarekiko duen errefusaren oso alderdi «sui generis»ak ulertzeko. «Progresu»aren kritika topiko marxistak generikoa baldin bada, Benjaminen kritika hori, bere erroan, gizakiaren arrazoi historiko propioetatik baino bere tinkotasun esentzialagatik izateak ez du gauza bera esan nahi. Hau da,

izatearen eta izatera iristearen artean, historikotasuneko arrazoi osoa agertzen da; aitzitik, izatearen eta bere formaziozko edo irudipenezko adierazkortasunaren (edo adierazpen horren muga murriztu edo erreprimituaren) artean, hegelianismoak eta Benjaminen teologismo laikoak beren ulergarritasun osoa dute.

JASOTAKO TXARRA...¹ Positibista sozialdemokrata haientzat, pragmatiko liberal eta sozialdemokrata hauentzat, helmuga paradisua da beti². Benjaminentzat berriz, lehenik agertzen dena galtzaileen hondamendi eta porrot unibertsoa da, ondoren edenera iritsiz, hots, lehen ikusketariaren baina halaber lehen galtzailearen egoitzara. Denbora homogeno eta hutsari, **«denbora-orain»** baten kontzeptua kontrajartzen zaio: positibismo historizistaren kontrako historia. Hauek iragana izan den bezalakoa ezagutzea bilatzen dute eta beren balizko metodo arrazionalak darabiltzate. Ez dago galtzaile, mutu, gizen, itsusientzako lekurik. Iraganak berak ditu bere interpretaziorako gakoak. Baina era berezi batean ditu.

——→ PORROT BATEN HISTORIA. Benaminek arazoetatik abiatuz edo oraingo unearen -zerbaitengatik eta ikuspegiren batetik beste une hura berreskuratu nahi duen unearen- funtzioan bilatzen du iragana. Ezin da ezer ikusi izan zen bezalakoa. Hori dela eta, **«denbora-orain»** delakoak egungo beharren funtzioan interpretatzen du iragana, continuum historizista hori puskatzen

1.——→ «hilak esnatu, paradisutik datorren haizea, zeruraino heltzen diren hondamenen ekintza...»

2. «helmuga jatorria da», zioen *Karl Krausek 14. tesian*.

du eta osotasun horrek ezinbestez karakterizaturik egon behar duela erakusten du. Eta ikuspuntu honetatik, bere adibideak bilatuko ditu. Bada historialarien denbora bat, «**Behin batean**» motakoa, non egitateak historia uniformeekin berdintzen diren beren errealitate eta irrealitate berean. Benjaminen ustez, historia gauza guztien iraupenaren zati bat da eta gainera, gertakizun batek bere egungotasuna izan zueneko lekua.

—→ une desberdintzaile hori, jarraikeraren hausketa hori, historia berriz ere hasten dela, jarraikortasunik ez duela, birjaio egiten dela, egindakoaren garrantziaz jabetutakoan iraganez betetako orainaldi batean besterik gertatu ezin dela ohartaraztea. Iraganaren berrantolaketa adierazlea orainaldian. Justifikatzailea baino, **barnebiltzailea**, **egituratzailea** izan nahi duen berrantolaketa alegia.

SUBJEKTU GEZURTATUA

—→ EPISTEMEAK, GIZAKIAK. Hala eta guztiz ere, historia berreskuratzeko posibilitate hori, orainaldia, bateragarria al zen une horretan European gertatzen ari zenarekin, Benjaminen buruhilketa propioarekin, porrotean lortutako garaipenarekin - zeinak garai haietan Nuremberg-eko fartsa gainditzen zuen-, garaipenean jasandako porrotarekin -Yaltan gertatzen ari zena eta munduari asedura arte azaldu zitzaiona, Gerra Hotzaren bitarteko denboran-, 60 eta 80ko hamarkadetan hedatutako sakontasun mugimenduarekin? **Was ist der Mensch?** galderaren baikortasun humanista kantiarraren atzetik, gizarte zientzien edo giza zientzien

ugalketa bat etorri zen: soziologia, etnologia, antropologia..., baina aldi berean zientzia hauek epistemearen hainbat zientzia ekarri zituzten, zeinak azken batean subjektuaren eginkizuna zalantzan jartzen zutenak ziren. Kuestionamendu erradikalago batez, bere depresioa letretako campus yankeetan lantzen zuen eta itsuturik errepideak hartzen zituen belaunaldi bat zuela esnatu zen USA 50eko hamarkadaren amaieran.

——→ DISKURTSOA ETA GAUZAK. Zer gertatzen da? Errepresentazioak eta izateak topo egiten duten lekuan, itxuraz gizakiak azaldu beharko lukeen lekuan, «**ezer baino hobeto**», gizaki hau kanpora bidaltzen dela alegia. Izan ere, argi eta garbi agertzen dena ***Diskurtso Maiestate Hori*** da. Diskurtsoa errepresentazio autonomizatua den heinean. Lengoaiak gizakia izkutatu, gezurtatu edo berriz ere beregain hartzen du. **Horrela, historiak beste pauso bat ematen du; lehen gizakiaren naturarekiko nagusitasuna esan nahi bazuen, azkenean orden linguistiko/adierazle bat gizakiari berari nagusitzen zaio.** Diskurtsoak errealitate soziala eraikitzen du. Diskurtsoa, bere generatibotasunean, erreferentzia antropogeniko oro erabat aldera dezakeen funtsa-orden batekoa da.

——→ FINITOTASUNA. Foucault-ek dioenez, halako batean **gizakiaren historia bere finitotasunaren, lengoaiaren edukin positiboan, lanaren eta bizitzaren historia bihurtzen da.** Proposamen dualista batetik iseka egiten dion bizitzaren historia da ordea, eta horrela, gizakia bere gorpuztasunaren egian berraurki zitekeela zirudienean, bertan biologikoa besterik ez dagoela da.

Hala ere, finitotasun honek bere barnebiltza posiblearen esparruak gainezkatzen ditul. ***Infinitoaren ilusioaz aske -infinito honen aurrean edo infinito honetatik bere finitotasuna bilduta (eta... jasota?) zegoelarik-, gizakia bere posibilitate propioaz deuseztatuta geratzen da.*** Posibilitate teoriko honek «***antihumanismo teorikoa***» deitutakoa goreneratuko duelarik.

————→ Foucault-ek dioenaren arabera, metafisikaren amaiera pentsamenduan eta berandu samar (XVIII. mendean) izan den gertakizun konplexu baten seinale da. Gizakiaren agerpenaz ari gara. **Bere gorputzaren, bere lanaren, bere lengoaiaren egitate guztiz harrigarria inposatuz sortzen den gizakiarena. Metafisika, gizakia bere printzipioak menperatzen duen eta bere ekoizkinak ihes egiten dion lan baten bihotzean dagoenean amaitzen da; gizakiak bere pentsamendua gizakia baino zaharragoa den (bere esanahiak menderatu ezin dituelarik, nahiz eta bere hitzaren ekiteak esanahi hauek bultzatzen dituen) lengoaia baten tolesduretan ipintzen duenean; baina, funtsean, gure kulturak gure modernotasuna ezagutzeko darabilgun muga igaro du, finitotasuna bere baitako erreferentzia amaitezin batean pentsatu deneko**

1. Foucault-en ustez, iraganean finitotasunaren ideia edo kontzeptua positiboki zehazturik zegoen, infinitotik abiatuz egiten baitzuten. Horrela gorputzak, beharrak, lengoaiak eta ezaguerak zehaztaperen argi bat izan zezaketen; baina infinitoaren ideia galtzeak zehazgabetasun batera eramaten du bizitzaren, ekoizpenaren eta lanaren positibotasunean, bere koerlazio negatiboak bezala ezagueraren izaera mugatua sortuz.

egunean¹ Norberaren naufrago horrek nola aurkitu ahal izango du berriro ontologia garbitzaile bat? Foucault-ek antropologiaren sustraiak desegin beharra aldarrikatzen du. Gauza zera da, gizakia norberarengandik askatzea dagoeneko munduko erresumako nagusia ez dela jakitean eta giza zientziak jakintzaren espazioko bitarteko arriskutsuak besterik ez direla jakitean (asmo unibertsalekin baina beti bigarren mailakoa, zalantzazkoa den izaera batekin, eta estatutu metafisiko baterako irrika faltsuekin).

——→ Antzeko zerbait esan zuen 1929 aldera M. Heidegger-ek **«Kant und das Problem der Metaphysic»** zelakoan. Kantek metafisikaren funtsa egiten saiatzea gizakiaz galde egitea zela planteatzen bazuen, agerkunde ontologikoen filosofoak askoz ezkorragoa zen zerbait aurkitu zuen². Ondoretzen duen arabera, giza zientzien bidez inoiz ez da hainbeste jakin gizakiaz baina era berean, inoiz ez da hain gutxi jakin **gizakia denari buruz, gizakia ez da inoiz izan gure garaian bezain problematikoa.**

1. Gizakiak *behin-betiko irudi gisa finitotasuna dauka*. Gizakia, ontologikoki mugatua den izakia da eta jakintza moderno osoa *bere finitotasunari betirako uztartua dagoen gizakiaren aurkikuntzaren zeinupean ezarrita dago*. *Gizakia, egia murriztua da*. Nola irten ahal izango da amets berri honetatik? Gizakia dogmatismoaren ametsetik irten eta antropologiaren ametsen sartu da. (Foucault, «hitzak eta gauzak»).

2. «gaur egun -dio Heidegger-ek- antropologiak gizakiari buruzko egia bilatu ezezik, egiaren (orokorrean) esanahiari buruz erabaki nahi du» (Heidegger)

——→ Arazoa honako hau da: zer jakin daiteke? ¹.

SUBJEKTUARI BURUZKO PROPOSAMEN BERRI BATEN GAINEAN

——→ ZERI BURUZ HITZ EGIN. Baina zein egiari buruz hitz egiten da, **jakitea beharrezkoa izanez gero?** Gauza bat da egia osotasun gisa pentsatzea eta bestea **egia gabeziaren alderditik, gainezkatzen duen desiraren alderditik pentsatzea, egia honek bera aipatzen duen subjektua gainezkatu eta ikerlaria, historialaria, bidaiantea eta analista bezainbeste harritzen duelarik.** Gure artean, egia ez dago inoiz lehen, ondoren baizik, **a posteriori.** Egia gure lan esparrura dator, beti ondoren eratzen delarik. Etortzen den zentzu bat baldin badago ere, **subjektuaren ekoizpenean ez dago benetako intentzionalitaterik.**

——→ Zentzu ekoizpena badagoela esan daiteke, ez ordea subjektuaren **intentziozko** interbentziorik ekoizpen horretan².

1.——→ «Erlazio nartzisistaren erbestea, bere subjektu gisako ibilbidea hasi ahal izateko baldintza dirudien erbestea. Ediporengan pentsatzea, zeina, bere jakinmina dela eta, azkenik tronutik erbesteratzen duten, ikusmena galtzen duen. Aldi berean ordea, erbeste hau (intzestuzko tronu-erbestea) subjektu gisako bere gizaki izaeraren mailan egongo litzatekeen ibilbidea hasi ahal izateko baldintza izango da». (*Massotta, O.*).

2 ——→ «Azterketarekin jarraituz gero, harritzen nauten pentsamenduetara heltzen naiz, neure baitan ohartu ez nituenak, urrunak ezezik desatseginak zaizkidanak. Horrexegatik hain zuzen ere adorez egin nahi nieke eraso baina azterketan zehar igarotzen den pentsamendu katea gupidagabe inposatzen da» (*Freud*)

Hori dela eta, lengoiaren teoria instrumental batek ez du balio subjektibotasunaren gaia ulertzeko. Freudek egindako inkontzientearen aurkikuntzaren hedadura kopernikarra, **subjektuagente** baten posizioa nahiz **subjektu-sintesi** batena -filosofia klasikoaren puntu nagusiak- zalantzan jartzean datza. Lapsusa, txistea, sintoma, ezin dira ulertu lengoia subjektu batek bere asmoak adierazteko tresnatzat hartzen duen eredu batetik. Baina Benjamin eta Foucault-en analisia, eta lehenago Marx, Saussure edo Tarabukin-ena zera da, hots, hitzak, keinu ekoizleak, aztergai dugun subjektuaren bereiztasun horrek alegia, balioa galtzen duela.

——→ sintesizko ni horrek (elaborazio primarioko ni-a jakintzat emanik, lapsus, txiste, amets eta sintometan: kondentsazioa, desplazamendua, ordezkartasunarekiko kontsiderazioa, etab.), elaborazio sekundarioa ekoizten du: lehena inkontzientetik abiatzen da eta bigarrena Ni-tik l. Koherentizatu, arrazionalizatu eta hutsuneak betetzen dituen elaborazioa: Ni-aren sintesi-iharduera horretan elaborazio sekundario gisa diharduten erresistentziak. Horri jarraiki, **Ni-a sintoma bat da.**

1.——→ «Inoiz ez dago Ni gabeko subjekturik, hots, erabat osotu-tako subjekturik, baina haxe da hain zuzen aztertzen ari den subjektuarengandik lortzen saiatu behar dena beti. Azterketak subjektu bat beste subjektu batekin elkartzen duen benetako hitz batera jo behar du, lengoiaren hormaren beste aldetik. Subjektua eta benetako Beste baten arteko azken erlazioa da (espero ez den erantzuna ematen duen eta azterketaren amaierako puntua definitzen duen Bestea hain zuzen)» (*Lacan*)

SARRERA GISA: HIRU ARDATZ.

SUBJEKTUEN MUGAN. HIZKUNTZA ETA PSIKO...

De nobís ipsis silemus¹ Whitman-ek **obra/autore ↔ publiko** elkarriketaren garrantzi handiko berrikuntza hori planteatzen du². **Artelekuk** gaurkoan planteatzen digun «subjektuaren heriotza»ri buruz galdetzen du. Semiotikoki antihumanismo teorikoa burutu nahi duen psiko(pato)logia baten legezkotasunari buruzko galdera egin beharko litzateke. Alde batetik, Bacon-en aipamenaren atzean izkututzen den ukapen sakona: **ez dago subjektuarentzat lekurik, subjektu horren sakontasuna dagoen tokian hitza hain zuzen ere gelditu egiten baita**. Mistikan bezalaxe. Bestetik, Nietzschek ohiuan laburtzen den proiektua ez den beste proiektu batetik ihes egiteko ezintasuna: ohiu hau jadanik hitza gelditzen deneko ataria delarik. Bata eta bestearen artean, diskurtso eskuragarri baten isiltasuna: ez dago gehiago hitz egiterik besteen lengoian. Baina besteek, hain zuzen ere arao baten antzera izuaz babesten zituen Ordenaren izena asmatu behar izan dute: Erotasuna.

1. Bacon de Verulamio.

2. «Zatoz», esan zuen nire arimak, idatz ditzagun bertsoak nire gorputzarentzat (bat baigara), heriotzaren ondoren modu ikustezin batez itzultzen banaiz edo handik denbora luze batera, beste esfera batzuetan, nire kantuak hara zuzentzen baditut, berriz, adiskide talde batengana (lurrari, zuhaitzei, haizeei, olatu zalapartariei egokituz), beti alaitasun irribarrea gorde ahal izan dezadan, nire bertsoak betirako ezagutuz, hemen eta orain arima eta gorputzaren alde sinatu eta haien aurrean nire izena ipintzen baitut.../. (Walt Whitman).

Baina era berean, beste Kultura mota berri bat azken batean (?)¹.

Ecce homo!

Nietzsche

Dena den, gizaki hau bera izango da **ukapen** errepikaezinaren bidez soilik lortuko dena. Marxengan bezala, beharrezkoa da esentzien desbilbadura burutzea erreal zehatzaren jarraikako jariora lortu arte. Errealak den hori ordea, **zentzu gauzatu** gisa nabarmentzen da. Halako batean etika eta estetika lengoaiaren arauetatik ihes egiten duen transzendentzia batean elkartuko balira bezala, lengoaia honek finkatu eta azkenik ukaizen dituelarik.

De nobis ipsis silemus.

Bacon de Verulamio

Hala eta guztiz ere, une honetan, kontzeptuaren egitura teknikoaren ondoren, diskurtsoak urratzen den «**ni neu**» horri egin nahi dio aurre: ezinbestez errealizatu eta bestetzen zaituen ispilu bati aurre egin. Utz iezazkiguzu defentsak: guztiak galtzen dira ibilbide horren beharrean. Sebag-engan bezala, hil baino

1. Nietzsche gizakiak honako hau idatzi zuen: «Historiaren joko handia zera da, nork eskuratuko dituen erregelak, nork betekiko duen erregela hauek erabiltzen dituztenen lekua, erregela hauek perbertitu, aurkako zentzuan erabili eta inposatu zituztenen aurkako bihurtzeko nor mozorrotuko den, aparailu konplexuan sartuz nork jarriko duen martxan menperatzaileak beren erregela propioez menderatuak izateko moduan» (*Genealogía...*).

zertxobait lehenago. Agian Besteari buruz hitz egin, edozein defentsatik erabat urrundurik. Hortaz, hitz egin dezagun.

HIZKUNTZ UKAPENA

Lan handi orori lengoaiaren bilbe dentsoan murgildurik ematen zaio erantzuna, ezinbestez. Hala ere, **kode handien** krisi handiarekin egiten dugu topo eta hauek ordeztatzakeenik (beren errealitateak transformatuz) nahitaez ez dago. Erlijioa, politika, Artea, Zientzia... alde batera utziko ditugu. Bestalde, lengoaiak ezagutzen dugu bederen bere barrutiko dentsitate ikaragarria: ez esanahiaren eta/edo sinbolizazioaren planoak soilik. Objektuetatik errito eta mitoetara, egoeretatik ekoizkortasunik harrigarrienera, elkarrekintzatik komunikazio ezarik basatienera.

KRISIA. Desjabetutako gorpuztasun baten dramari erantzuten dioten kode krisiak, zeinak politika eta erlijioari, familia eta fabulei, maitasun eta adiskidetasunari ere badagozkien, gizarte eta lanari edo estatuaren Moloch delakoari bezainbeste. Eguneroko bizitzan, gizakia eratzen duen (jaramonik egin gabe) lengoaia. Dena biltzen duen boterearen egitura baten diseinua. **Lengoiak gizakia ezartzen du baina aldi berean, sorkuntza mugimendu berean, gizakiari aurka egiten dio, ezgaitu egiten du birnaturalizatu arte.** Hortaz, hemen ere beharrezkoa da ezinbestez berarengandik hastera.

BESTE ERREALITATE BAT. Orain arte, sistema desberdinetako boterearen izkutapena ikusi dugu, sistema hauek, guztiraturik, boterea errealizatzen dutelarik: mezuen, baloreen, objektu-zeinuen, zeinu-funtzioen, zeinu-mitoen sistemak. Hegel, Marx, Saussure, Nietzsche, inpresionistak, sinbolistak... Lacan-ek subjektua eratzeko sistema-zeinuaren aurkezpena burutu nahi du eta irudimenezkoa denetik sinbolikorako igaroaldi gisa egiten du, bi plano horien egitura bera sortzen duena gehiturik. **Edo adierazlearen munduaren eraketan (esanahiaren munduaz harantzago dagoen edo honen aurretikoa den unibertso gisa)** amaituko diren (edo ahal duten, edo behar duten...) bi mundu aipatu behar al ditugu? Mundu honetan «errealak» jadanik ez du leku propiorik, **«errealak»** hitz egiten den «hori» baita eta, beraz, *oraindik izan baldin bada ere, jadanik erreala ez den zerbait*. Hau da, ez da gizakiek uste duten erreala, **gizakia gainezkatzen duen hori baizik**.

HUTSAK. Nietzscheren asmoa, balorearen egiazko legegilea izango den, balore oro baloratuko duen, bizitzari bizitzeko aukera berriak zabalduko dizkion gizaki bat da. Bere ohiu itzarogabetuan galtzen da ordea. Idoloak bota, Botere eta Betebeharraren presentzia tinkoak eraitsi. Baina orduan, **«zer esanahi izan dezake erotasunak moraltasunaren historian»?** edo **«lilurak»?**. De nobis ipsis silemus...

Jainkoa hil egin da. Baina gizakia?, non geratu zaigu gizakia? Minarentzat ez dago kontzepturik: moraltasunaren ideologia zaharren kategoria negatibo edo positiboak besterik ez. Artaudengan bezalaxe, sufrimenduaren sekretuan murgildu nahi izatea

disoziazioari aurrez aurre begiratzea da, hots, erotasunetik inoiz ez itzultzera arriskatzea. Izan ere, aldez aurretik beharrezkoa baita erotasunean sartzea edo, hobeto esanda, beharrezkoa baita erotasuna ezagutzea. Eta hau **nobis ipsis silemus** horren hasiera da. Artea ere bai? Edo batez ere **artea izateagatik?** Lan handi orori lengoaiaren bilbe dentsoan murgildurik ematen zaio erantzuna, ezinbestez.

Baina **hitzak mintzatzeko balio al du? Saia gaitezen:**

POSIZIOEN AIPAMENA

.ZERI BURUZ HITZ EGITEN DA. Kontzeptuen definizioa: objektuaren definizioa. Zergatik da auzia Adierazlea, eta **Adierazlea, errakuntza eta/edo iruzurrerako bidea den heinean?** Ez al da gehiago erakarpena? edo «nor den Nagusia hemen»? Ez al litzateke komenigarriagoa izango semantika atzematea? Ez al da gehiago adierazle, forma, irudi, interpretatzaileen... zirkulazioa? **Ez al da gehiago Egia?**¹. Zeri buruz hitz egin nahi dugu **autorearen heriotzari** buruz hitz egiten dugunean?

1. Ez natzaizu zoriontasunaz ari;
Nik nahi dudana zorabioa da,
Gozamen urduri eta mingotsa.
Gorrotatuz hazten den maitasuna.
Arima, jakintzarako itxia,
Beste emozioetara zabaltzen dut;
Gizakiak gozatu eta pairatzen duena
Pairatu eta gozatu nahi dut.
Nire errainetan sentitu nahi dut

On eta txar oro.
Eta nire bizitzaren esentzian
Aldatu eta nireganatu.
Zoriontsua ni, osorik
Gizadia nigan biltzen badut
Eta, azken finean, berak bezala,
Kontra jo, leher egin eta
eztanda egiten badut!
(Goethe, W. «Fausto»).

EGIA ETA ERRAKUNTZA ERREGIMENA. Esanahia sortzen deneko espazioa definitu behar da. Eta espazio horren barruan, «**esanahi**» eta «zentzu»aren artean, «**objektibotasun**» eta «**erreferentzia**»ren artean, «**intentzionaltasun**» eta komunikazioaren artean bereizketa egin. Adierazlea materiala dena da (zera ulertu nahi dut, hots, Adierazlea «arrazoiaren proiektua» -arrazoi zientifikoa, plastikoa...- erregulatzen duten prozedurei jarraiki antolatutako materia oro dela). Lacanek Adierazlearen eremua definitzen du eta «**egia eta errakuntza erregimen**» terminoetan egiten du. Zer ulertu behar da adierazpen honekin?, izan ere metodoz hitz egin behar baita. Nolanahi ere, halako batean Saussure zaharra erabat ezgauza bihurtuko balitzaigu bezala da: **ez dugu ezertarako behar esanahi edo errepresentazio ordenik**. Zuk gezurra esaten didazu eta nik gezurra esaten dizut, esan zuen lasai. Zer egingo dugu orduan?, erantzun nion. Ez dakit, erantzun zidan: isil gintezke. Bai, ondo dago isiltzea; baina jolastu ere egin genezake. Zertara? Hitz egitera...

.Guk bitartekotasun komunikatibotik abiatuz esanahiari buruzko azterketarako bide bat -subjektibotasunaren Teoria baten osagarri gisa- proposatu dugu, zeinaren ardatzak honako hauek diren²:

1. Metodo oro fikzio bat da eta soilik frogatzeko da ona... (*Mallarmé*, S. «Notas»).

2. Hala eta guztiz ere, gogora dezagun *badazpada ere* Bachelard-ek esaten ziguna: «Zientzien filosofia [eta beste edozein prozedura hermeneutiko, gaineratu beharko litzateke beharbada], *filosofia banatu* gisa definituko dugu. Alderantziz, pentsamendu zientifikoa *ondo antolaturiko* sakabanaketa metodo gisa eta azterketarako oso metodo fin gisa aurkeztuko zaigu sistema filosofikoetan masiboki pilatutako filosofema desberdinentzat» (*Bachelard*, G. «*Epistémologie*»).

.Intentzionaltasuna; mundua aurkitzera joaten da
.erreferentzia; esparru bat mugatzen da
.objektibotasuna; itxuraketa bat eraikitzen da
.(Komunikazioa) = (Subjektibotasunari buruzko T.).

bide hau nolabait ere ondorengo hiruangeluaren garapenean
azaldu dugu:

I

S..... OE

.ZENTZUAREN TEORIA BAT. Irakurketa estrukturalis-
tan, psikoanalisi **esanahiaren teoria batean datza, Inkon-
tzientetik edo «aieru» gisako subjektutik bereiztezina (La-
can)**¹. Dena bikoizten da zientziaren eredu baten beharrarekin:
Gogamenaren «edukinen» gainean baino **arrazoiaren
iharduera eratzailearen** gainean oinarri daitekeen kontzep-
tuen epistemologia hain zuzen. Eta honek hiru alderdi edo
plano eztabaidagarrietara jotzea dakar:

.erreal
.irudimenezkoa
.sinbolikoa eta hiruren arteko erlazioak

1. Poetaren ahotsa, berea da eta ez da berea. Nola deitzen da; nor da nire
diskurtsoa eten eta esan nahi ez nituen gauzak esanarazten dizkidan hori?
(Paz, O. «*El arco y la lira*). Aieruz, (berak) ez baitu *esaten*; (*bera*) *gabe*
ordea, ez dago *esaterik*.

Erreala baieztatu egin ohi dugu; irudimenezkoa azpiekoizkin gisa hartzen dugu eta sinbolikoa berriz, elkartrukaketa sozialetik datorrenetik gauzarik estatikoen gisa agertzen zaigu gehienetan. Egiaz, erreferente Adierazien errealismo baten epistemología baten gainean dihardugu behin eta berriz. Gauzak *beren izen errealizatuak* direla uste dugu.

.LENGOAIARI BURUZKO FILOSOFIA BAT. Hizkuntzalaritzan (agian lengoaiari buruzko filosofian esan beharko genuke), Lacanek diskurtsoaren azterketari emango dio lehenentasuna, Hegel eta Heidegger-en eragin filosofikoetatik. Hitzaren ordenekoa den orok¹ ez du zertan Sinbolikoaren ordenekoa izan beharrik (=erresistentziak, defentsak, irudimenezko afektuak). Baina honek beharbada zera esan nahi du, hots, sinbolikoa *ez dela nahitaez adierazi sozialaren, errepresentakorraren ordenekoa*. Eta honek ondorio garrantzitsuak izango ditu erregistro artistikoan. Gure ustez, ezin da esanahiaren bidea (azken batean giza Ekosistema den bidea) atzeman alde aurretik ondorengoa argitu gabe:

.irudimenezkoa/sinbolikoa
.esanahia/komunikazioa
.esanahia/zentzua
.erreferentea (¿=?) erreala
.../...

1. Hitzak, hitz baztertu eta murriztuak eta besteen hitzak izan ziren orduak eta mendeek utzitako oroimen pobrea (*Borges, J.L., «El inmortal»*).

.PRESENTZIA ADIERAZLEA = AUSENTZIA ERREALA. Hau da, zertaz hitz egiten ari garen jakin behar dugu. Baina honek nahitaez lengoaiaren sorrera berarekin zer ulertu behar dugun galdera dakarkigul. Horretarako, garrantzitsua da hainbat alderdi agertaraztea:

.ez dugu uste objektu erlazioa aztertzea «arrunta» denik (hau da: «*naturala*» al da objektuaren aurkikuntza? objektua beharrezko aurrerakina al da?); hauxe da subjektuaren gaiak planteatzen duen arazo bakarra;

.dena dela, dirudienez zailtasunak puntu nagusi batean planteatzen dira: *objektua ez dago*. Behar bezala uler da-din: objektua *ez da erreal*. Lacanen ustez, dena erlazioan datza. Hala ere, hau argitzen ez bada, jarrerarik legezkoena Semiotika «psikologizatzea» eta «egintzaren psikologia» batean (= intentzionaltasuna + errealismoa) edo «fenomenologia» transzendental batean (= intentzionaltasuna, intuizio soila = aurretiazko esentzia objektiboa) amaitzea da. Intentzionaltasun ez eraikitzaile batek ordea, ez du errealismo mekanizistatik ateratzen².

1. Ez da suposatu behar kudeaketa freudiana zentzuaren interpretazio baten eta erresistentziaren edo oztopoaren dinamika baten osagarria denik; giza zientzien bide beretik baina begirada aurkako norabidera jarrita jarraitzean, kontzientziaren edukinak egituratzen diren edo, hobeto esanda, *gizakiaren finitotasunean zabalik dirauteneko unerantz abiatzen da (definizioz eskuraezina gizakiaren ezaguera teoriko ororentzat, jarraikako ulermen ororentzat -esanahi, gatazka edo funtzio terminoetan-)* (Foucault, M. «*Las palabras y las cosas*»).

2. Proposamen artistiko *Adierazle* eta ez *adierazi* batek, ez al ditu kode, «kontsumo» edo industria kultural, errealismo, formalismo, etab.i buruzko nahaste guztiak erregistro desberdin batean lekutzen?

.BERRERAIKUNTZA SEMIOTIKOA. Zentzuzko eraikuntza objektiboa eta bere «berreraikuntza» analitiko eta/edo terapeutiko edo kritikoa (**=berreraikuntza interpretazio gisa**) bereizi behar dira. Hemen interesa duena zera da, berreraikuntzaren objektua erreferentziaren zein planotan kokatzen den jakitea alegia (eta, jakina, guk ere planteamendu semiotiko soila gaindituko duen irakurketa epistemologiko batean pentsatzen dugu).

.Honako hau esaten digute: **Adierazia ez dago inoiz he-mentxe bertan= «hor dago», baina era berean, «beste toki batean dago»**. Beraz, testua ausentzia bikoitz batera bidaltzen gaituen Adierazle bat da:

- a. Objektu «ondorio»arena.
- b. erreferente intentzionatuarena.

Hau da, ondorio gisa berez Adierazlea ez den zerbait izan arren bere menpean dagoen zerbait ematen du eta era berean, erreferentearen ausentzia dagoelako agertzen da Adierazlea. **Adierazlea, ausentzia baten tokian dagoena da.**

ZENTZUAREN NAHASTEAK. Zer esan nahi dute adierazpen hauek? **Esanahi/zentzu edo komunikazio bereizketarako eskari argirik ez badago, Adieraziaren «lekutasun bikoitza» ulertu ezin dela pentsatzen dugu. Adierazi abstraktu bat, hots, esanahi ordezgarri baten abstrakzioa izendatzen duen Adierazi bat, testua den zentzu osotasuneko faktore egituragarri gisa azaltzen da soilik. Dena den, horrez gain zentzu hori testuaren «ondorio»**

gisa soilik uler daitekeen objektu bat da. Hortaz, testu adina objektu izango al dira? Bada, zorrozki, bai: eta honek zera dakar, hots, objektuen arteko erabateko ordezgarritasunik ez dagoela baina, era berean, erabateko bateraezintasunik inoiz ez dagoela. Hala ere, testu desberdinen izendapena bera denean, erreferentea ere (bere egiturazko determinatzaileetan) bera da. Horrela, esandako hau, erreferentzia «bidea» beti naturalaren Bestea, Naturaren Bestea dela dioen baieztapenaren baliokidea da¹. Hala ere, subjektuaren zergatiari buruz

1. SEPPUKU - samuraiari delitua xahutzea edo zaintzen duenari berarekiko lotura agertaraztea ahalbidetzen dion errito-buruhilketa; baina bi kasuetan, eta batez ere, familia abizenari jarraikortasuna emateko aukera: Izena heriotzaz harantzago.

SEPPUKU - Beste batengan izan, beste hitz baten bidez eta, agian, beste irrika baten bidez (Izena hedatzeko irrika) izatea ahalbidetzen duen sakrifizioa. Tradizioari jarraiki, gizakiaren boterea legearen botere bihurtzea.

Baina, oh, bizitza!, han «*deabruak muturra sartzen du*» gure ustez errepikapenaren ekitean, hots: hilotza egunero desobiratzea, deabruak (deabrua izaki) bai baitaki (eta hementxe dugu paradoxa) izateko ez dagoenaren ordenean behar dela izan (hitzean besterik ez).

Itun faustikoa: -zein boteretsua den desira! Eta nik goza zitekeela, jakintza hor zegoela eta aurkitu besterik egin behar ez zela eta, are gehiago, Horren oroimena izan zitekeela pentsatu: baina ez dago itun posiblerik, ilusioak besterik ez ziren.

- HARA(KI)RI, Bachelard edo bere «izpirituak», galdera hau planteatzen digu errieta gisa:

- *zer da, gizakia ala Izendatzen duen hitza?*

Ezinezko galdera subjektu zatiturik gabe, zirriborro edo barradurarik gabe.

Zein SEPPUKU izugarria nartzisismo ororentzat! (*Franco, A. O. «Hara(ki)ri», Grimson-ek aipatua*).

galdetzen dugula dirudi: testuaren generatibotasun adierazi baten aurrean gaude eta autoreak eraikuntza horretatik baztertzen da ala berreskuratzeak aukera al dago beti...?

ZENTZUAREN ONDORIOAK. Hala eta guztiz ere, «**objektu-ondorio**»ak horrez gain beste zein «ondorio» dakartzan planteatzen ez bada, honek ez du gehiegizko garrantzirik. Bere harreran (eta Bestearengandik eta Bestearentzat hitz egiten da, nahiz eta Beste hori, noizbait, subjektu hitzaren beraren «gogoeta» izan daitekeen), «**ondorio-objektu**»ak Adierazleak, Interpretatzaileak, errepresentazioak, afektuak, ekintzak... dakartza. Eta honek, guztiz ideologizatutako «**gogamen**» terminoa edo beste edozein antzeko balizko kanporatzea ahalbidetzen digun neurrian dauka bere garrantzia. Izan ere, hemen ez gara erreferente idealistei buruz ari, jokabidea eratzeko duten faktoreei baizik. Erreferentea, zatika²

-
1. Hitzak hitza oroitarazten du, hitzari erregutu, dei egiten dio.
Mundu, irudi, pertsonaia, afektua.
Testu, testuinguru, serie, erlazio, katea.
Besarkada, lotura, kontaktua.
Zu eta zure hitzekiko dudak beharra.
Ni eta nire hitzekiko duzun beharra.
Zure jabetza nire esku.
Eta munduaren birsorkuntza hitzetan
(Grimson 1)

2. Nire ustez, zatia da bizi garen eta gu geu gareneko errealitate mugikor hau hobekien islatzen duen modua. Zatia, hazia baino, partikula da. Testu bat, erlaziozko ehun bat da (Grimson-ek aipatua, Paz, O.).

bada ere, proposamen Adierazle batetik **«harrapatu»** egiten da eta honek tentsio **«subjektibo»** aniztun bati dagozkion formazio objektiboak dakartza. Dena dela, erreferentearen harrapaketa **objektal** horrek ez ditu perspektiba guztiak erabakitzen.

.JATORRIZKO ESZENA: HISTORIAREN AURKA? Jarraian jatorrizko «eszena» baten tesia baiesten da, eskema nagusi honek, bere berregituraketetan zehar eraketa-dialektika osoa sortarazten duelarik. Maiz esan dugun bezala, kasu honetan lengoaiaren anbiguotasunak ezezagutza positibista bat estaltzen du: Historiaren ahanztura (edo ukapena) alegia. Funtsezkoa dena izkutatzen duen ahanztura (edo ukapena): subjektuaren prozesu eratzailea hain zuzen. **Eta agian, agian, beste zerbait¹**. Hau da, aurrerago aipatu dugun a posteriori delakoa, zeinak ondorengoa esan nahi duen, hots, Egiak ez duela Adierazle batek egitate batekiko duen fideltasunarekin zerikusirik, Adierazle batek esanguratsuki esparru bat, erregistro bat, eszena bat, periplo bat... egituratzeko duen aukerarekin baizik. Egituraketa honek bere ondorioak zentzuaren planoan eskainiko dituelarik.

FABULA ANTROPOGENIKO SORTZAILE BAT

.SUBJEKTUA, BESTEAREN EKOIZPENA. Fabula zientifiko bat konta dezakegu: subjektu psikologikoaren jaiotzari buruzko fabula alegia. Esan dezagun zertan datzan: Komenigarria

1. Pentsamenduan dagoen zuloa ezin du *errealitateak* estali («*Pensamientos descabellados*»... norenak?)

da ez nahastea, hitz egitean aipatzen den subjektua bere baitan organikoki materializatua baina «genetikoki» zehaztu gabe dagoen gizabanakoa eratuko den subjektua baita. ***Eta zehazgabetasun hau puskatzen duena (irudi grafiko batez esatearren), Bestearen ihardueraren eskusartze sinboliko eta sinbolizatzailea, irudimenezko eta desiratzaila, aktibo eta teknika da: haurraren lotura-subjektuak bere iharduera propioa «prestatzen dio», iharduera bereizgarri gisa baina era berean iharduera eragile gisa (iharduera prestatzaile, eratzailea den neurrian).*** Zein erresumatakoa da ***lege baterako aukera oro nahasten duen tarte arkaiko eta arkaikozale*** horil?

.FILIAZIO ERATZAILEA. Fabulazio psikologiko osoa «**jatorrizko eszena**» horrek burutzen du, zeina bestalde beste errekurtso semiotiko psikologiko batekiko desberdina den: «**erlazio objektalak**» izenekoekiko desberdinak alegia. Haurra, jaiotzean, filiatu eta afiliatua izateaz gain, afektu, emozio, behar, desira... sare batean lotuta geratzen da, subjektu afektatu, desiratu, behartu... gisa kokatuta geratzen delarik. «Afekzio» hori eratzailea da, antolatu, erlazionatu, baloratu egiten baitu, eta ez edozein modutan gainera: haurrak bere iharduera lehen erlazio horietatik abiatuz antolatzen du. Haurra, edukin sistema baino, **formalizazio eta eragiketa sistema antolatua da. Sistema zehatz horri, hots, filiatu eta afiliatua, behar eta desiraren mugimendu eta keinuaren...**

1. Irudia erabakiorra da, azken hitza du beti; ez dago kontraesan, egokitu edo sotil dezakeen ezaguerarik (*Barthes, R. «Fragments d' un discours amoureux»*)

erlazioek inskribatu eta eratua dagoen sistema horri ematen diogu subjektu izena¹.

JATORRIZKO ESZENA ETA LOTESPENA. «Jatorrizko eszena»z hitz egin badaiteke, sare eratzaile hauen dialektikaz hitz egin behar da, sare hauetariko batzuk «erlazio objektal» gisa uler daitezkeelarik -zehazki erlazio loteslearen izaera, kalitate eta egindura kontutan hartzen bada-. Badaude, noski, behar erlazioak: nola kokatzen da hor beste iharduera? **Gogora dezagun Trumboren² testua eta giza subjektu batek bere bizitza sinbolikoa behar/afekzio/desira erlazio batetik berreraikitzeke egiten duen ahalegina (= erizainak Jhonnyren sexu-tentsio mugimendua Adierazle bidez antolatzeke darabilen bereganatze loturazko-sinbolikoko «amatasuna»).** Azken batean, ez da behar organiko bat betetzen; aitzitik, afektuzko «quantum» horren bidez, haurra afiliazio sozial soila ez den dimentsio batean inskribatzen duen erlazio desiratzaille horren bidez, *beharra humanizatu egiten da.* Horretarako beharrezkoa da Desira. Nola kokatzen da beste iharduera, hau da, nola betetzen da haurra eratzeko beharrezkoa den dimentsio erakargarri, «erotizatzailea»? Eta honi buruz ari gara «faktore eratzaileak» aipatzen ditugunean. Eta, jakina,

1. Barkatu, adierazpena Barthes-ek ondorengo zioenetik, har daitekeelako besterik ez bada ere: «Amaitzeko boterea, esaldi-maisutasuna definitzen duena eta nekez eskuratu (!) eta irabazitako trebetasun bikain batez Esaldiaren agenteak markatzen dituen da. Irakaslea, bere esaldiak amaitzen dituen norbait da» (*Barthes, R. «el placer del texto»*). Aitzitik, gonbaratu esaldi psikotikoetan sinkopatutakoarekin edo dislokazio surrealistarekin.

2. «Johnny cogió su fusil» filmean.

erlazioaren «kalitatea» aipatzen dugunean, faktore hauek hartzen ditugu kontutan ¹.

.OBJEKTIBOTASUNAREN TEORIA. Hortaz, Adieraziaren arazoek eta subjektuaren eraketa (historiko)aren arazoek, darabiltzagun bereizketa kontzeptualen beharra planteatzen dute. **Filiazio eta afiliazioak pertsonarteko erlazioen gaiaren aurrean ipintzen gaitu, subjektuaren eraketak subjektuarteko erlazioak bideratuko dituzten lotura erlazioen beharra planteatzen digun bezalaxe. Estiloak, objektu erlazioek eta objektu erlazioen oinarritzko karakterizazioak, nahi dugun objektibotasunaren teoriarako subjektibotasunaren teoria bat kontutan hartzera behartzen gaituzte. Baina, inbentario gisa beharbada, guzti honetatik interesatzen zaiguna zera da, hots, psikologia galdu egingo dela erakarketa eta desiraren irrazionaltasuna bera gaindituko duen sorrera orden bat aurkitu nahi badu².**

1. Nola hustu ahal izan dugu itsasoa? Nork eman digu belakia odeiertza ezabatzeko? Zer egin dugu lur hau bere eguzkitik askatzeko? Norantz doa orainaldia? Nora garamatza bere mugimenduak? Eguzki guztietatik urrun? Ez al gara jarraikako erorketa batean amildu? Eta hau atzerantz, alboetarantz, aurrerantz eta norabide guztietan? Ba al da oraindik goi eta beherik? Ez al gabilta noraezean, ezereza infinito batean zehar bezala? Hutsak, bere hatsaz ez al gaitu jazartzen? Ez al du hoztu? Ez al duzue ikusten iluntzen ari dela gero eta gehiago, gero eta gehiago?» (*Nietzsche 1, «El Gay Saber o La Gaya Ciencia»*).

2. Gure sinismenak, gure sorkuntzak eta gure zorabioak gara, gure mitoak, gure bizinahiak, gure heriotzarekiko beldurra garen bezalaxe. Zorabioak heriotzarekiko beldurra itxuraldatu eta amaiera aurreratu bat proposatzen du... [horrelakoak gara]... *Hortxe gaude.* (Grimson, etab.).

.SUBJEKTU ERAIKIA. Hau da, egitura (sinbolikoa) da zehaztapen ondorioak eragiten dituen. **«Subjektu»ak (izan ere, azken batean ez da) egitura horren ondorioak jasotzen ditu, era honetan Adierazle gisa eratzen delarik. Honen arabera, subjektua ez dago bera eratzen duen diskurtsotik kanpo. Baina objektuarekin gauza bera gertatzen al da? Zer abantaila dauka Adierazleak? Baina bestalde, zer zentzu suerta daiteke subjekturik gabe? Lacan-en ustez, subjektua alderdi aktiboa da eszena bakoitzean; baina, pasiboki, egituren ordenari lotzen zaio. Zer esan nahi du honek?, edo hobe esanda, zer dira egiturak?, zer da subjektua?**

.GENERATIBOTASUN KAOTIKOA. Zer da egitura Lacan-engan? Osotasuna ala **sistema baten lege antolatzaileerlaziozko-eragilea?** Zein alderdi antolatzaile, dinamiko, etab. egiaztatu behar dira egituren, subjektibotasunaren berri emateko moduan? Dena dela, funtsezkoa honako hau da oraindik: subjektuari buruz hitz egin al daiteke oraindik? **Orden kaotiko batean, subjektibotasunaz, «autore»az edo existentzia adierazkor batez hitz egin ahal izango al dan** Horrela, egitura eta egitura honen sorrerari buruzko arazoa ezezik, egituren «ekoizkortasuna»

1. Logikoa den bezala, kaosetik hasiko naiz, naturalena baita. Horretan lasai aurkitzen naiz, hasieran ni neu izan bainaiteke kaos (*Klee, P.*), eta *Teo van Doesburg-ek* («*la voluntad de estilo*») honako hau baieztatu zuen: Gure arreta gure eguneroko bizitzaren irudi orokorrera zuzentzen badugu, geure ikuspegi propioetatik abiatuz, irudi honek izaera kaotiko bat dakarrelako ondorioa iritsiko gara eta ez dugu harritu behar itxurazko kaos honetan gustora ez daudenek mundutik ihes egin edo izpirituzko abstrakzioetan galdu nahi badute.

aipatzean ulertu behar denari buruzko arazoa da. Eta, azken batean, aztergai dugun arazoari aplikatu dakizkiokeen ondorioak ateratzeko aukera ematen duen ontologia baten aurrean ote gauden.

.Lacan-ek Lévi-Straussen estrukturalismo formal-matematikotik erantzungo du, ahaidego egituretatik abiatuz, intzestua debekatzen duen funtsezko legearekin, zeinari Edipoa funtsezko antolamendu eratzaile gisa egituratzen zaion. Hor, «ni»ak ezezagutza funtzioa dauka¹. Horrela, printzipioz baztergarria da transferentziaren eskuragarritasun semantiko baten beharra, esanahiaren egiturak subjektuaren aurretikoa izan beharko lukeen eta subjektua sortu beharko lukeen neurrian. «Itzulpen prozesu»rik eskatzen ez duela esan daiteke, esanahien ordenak balio desberdina baitu hemen.

.INTERPRETAZIOA, DISKURTSOAREN KATE ADIERAZLEAREN DESERAIKUNTZA SINBOLIKO-IRUDIMENEZKOA. Orduan, zer da zehazki Adieraziaren interpretaziorerreraikuntzari buruzko gaia? **Lehenik, objektibotasunak pertsonarteko/subjektuarteko infekzio baten paradoxaren**

1. Gizakiak *behin-betiko irudi gisa finitotasuna* dauka. Gizakia ontologikoki mugatua dagoen izakia da eta jakintza moderno osoa *betirako bere finitotasunari uztartua dagoen gizakiaren aurkikuntzaren zeinupean ezarrita dago*. Gizakia *egia murriztua da*, dio Foucault-ek. Nolanahi ere, eta amaitzeko, giza zientzien bidez inoiz ez da hainbeste jakin gizakiaz baina era berean, inoiz ez da hain gutxi jakin **gizakia denari buruz; gizakia ez da inoiz izan gure garaian bezain problematikoa.**

aurrean ipintzen gaituela ulertzea. Bigarren, Adierazi indibidualaren berreraikuntzak aldi berean lotura erlazio arkaikoen eta subjektuarteke erlazioen soberakin eragileak askatzen duen irrazionalaren presentzia kutsatzaile eta adierazkor-komunikatiboari (= durundi emozional, afektibo, baloratzzaile, «sentimentalak»...) aurre egin behar diola ulertzea. Orduan, desira Nicolai Hartmann-ek irrazional «objektibaezin»ari buruz adierazi zuen dialektika batean koka daiteke. Eta honek, berriz ere, subjektuaren teoriarik gabe erreferentziaren (eta esanahiaren) teoria bat lortu ezin dela ulertzera garamatza.

. Baina zer, nor da subjektua? Hots:

—esanahiaren egitura (= ekintza)

—desira eta beharraren egitura

—«Hitza», «ekintza»... funtzioaren «lekua»

Ikusten denez, guzti hau Lacan-ek planteatzen dizkigun arazo handiez beterik dago: **Edipoa, ezagutzazko espekulazio funtzioa, Faloaren interbentzioa (= metaforak ematen duen balioa), Objektuaren eraketa eta, beraz, Subjektuaren urritasuna (= ilusiozkotasuna).** Nire iritziz, estrukturalismoaren gaiak hementxe du bere garrantzi osoa. Hauxe da ezagutu eta gorde behar dena:

. orden sinbolikoa subjektuaren eratzailea da

. subjektuak Adierazlearen ordenekoa izatetik jasotzen du bere zehaztapena.

. Izakia, balorea kontsokratzen duen metaforák ematen du.

. Izakiaren amaiera, Edipoaren soluzio sinbolikoa prestatzen duen irudimenezko prozesu bateko gertakizuna da.

.../...

EGITURAK. Orduan, «egitura» kontzeptuari buruzko (eta horrela, «sorrera» kontzeptuari buruzko) jarrera sendoa iza-tea funtsezkoa dela baiesten da = ekintzaren egitura, prozesu psiko eta soziogenetikoen egitura dialektikoa. Noski, beste zenbait lekutan idatzi dugu ideologia estrukturalistari 'buruz eta ez ditugu bertan garatutako argumentuak errepikatuko. Hemen interesatzen zaiguna, «**Adieraziaren berreraikuntza**» gafaren bidez eta ondorioz, subjektuarterekotasunaren kontzepzioaren bidez Lacan-ek eramaten gaituen argumentazio mota azpimarratzea da. Testuari ahalik eta gehien lotzeko ahaleginak egingo ditugu.¹

ZENTZUA ETA **EDIPO**. Lacan-en ustez, subjektuarterekotasunaren dialektikan ezin da esanahiaz hitz egin bere funtsa Edipo-egiturara igorri gabe. Falta ezin diren ondorengo ezaugarriekin:

1. Inoiz ez dago Ni gabeko subjekturik, hots, erabat osotutako subjekturik, baina haxe da hain zuzen aztertzen ari den subjektuarengandik lortzen saiatu behar dena beti. Azterketak subjektu bat beste subjektu batekin elkartzen duen benetako hitz batera jo behar du, lengoáziaren hormaren beste aldetik. Subjektua eta benetako Beste baten arteko azken erlazioa da (espero ez den erantzuna ematen duen eta azterketaren amaierako puntua definitzen duen Bestea hain zuzen) (*Lacan*)

. adierazle falikoaren tartekapena Adierazle katean.

. oinarri edipikoa, subjektuek beren artean dituzten harremanen arauketa ordenatu gisa.

. ama-seme/alaba bikoteak Hirugarrenarekin duten erlazioa, ez da beharrarena soil-soilik, funtsean desioarena baizik.

- Gogobetetasunak/gozamenak subjektua klausuratzen du. Beharrak gabezia ezartzen du. **Desioak objektua norabidetzen du. Hortik, eskaria eta beharra, desioa eta ekintza (azken finean, gabezia) erlazio zentrifugoak dira: gizarteratzen dute subjektua fundatuz. Ausentzia edo presentzia eskariak, ondorioz, gogobetetasunaren objektua eskariak urratuta geratzen delarik:**

= objektua isiltasuna da, ukapena delako

= falta, balioa, dira konplitudeak beharrezko dituenak

→ Beraz

= objektua adierazia da.

→ ondokoen posibilitateak dakartzalarik

{ - depresioarena
- erasokortasunarena

Baina, hemen, arretaz behatzen badugu, objektuzko erlazioen (kultura, lengoaia) auresuposamendua badago eta objektu

erlazioak (subjektuarteke erlazioak, pertsonarteke erlazioak). Beharraren objektu-terminoak bestearen (ama, lehenengo, uneetan) presentziaren esanahiarekiko irekidura dakar.

.ADIERAZLEA, AUSENTZIAREN PRESENTZIA. Arriak beharraren eskaria, bete ala frustra dezake. Honela, oinarritzko bitarteko «sinbolikoa» da. **Baina eskaria ausentziaren posibilitatean (edo errealtatean) bakarrik sortzen da: honela, esanahiaren oinarritzko egitura muntatzen delarik. Ausentea bakarrik adierazten delako. Beraz, lorpen partzial eta barnerazlea, ausentziaren dialektikak eraikitzen duen egoeran agertzen**

.DESIOA ETA TRIANGELUAZIOA. Desioa plano desberdinean arakatzen da. Haurra gorputz-bikoitzetik (=bikoitza, ispiluzkoa Lacanentzat) ateratzen du eta triangelu edipikoan ezartzen: objektu erlazioa goi mailan «objektu hautapen»ean laburtzen da. Desioak, beharra-eskari dialektikako eskaritik baldintzagabetasunaren berezitasuna hartuko du. **Gogobetetasunaren beharra edo maitasun eskaria soil-soilik ez dena. Triangelu edipikoan, ispiluaren fa-sea amaitzen deneko hirukotearen ondorioz, desioa, halabeharrez, bitartekotuta geratzen da identifikazioa gertatzen denean.**

NI
BESTEA
OBJEKTUA

1. *Fort-Da!* Tresneria kontzeptuala erabiltzea besterik ez dago!

.berrezagutza desioa

.desioaren berrezagutza desioa

Hegelen irakaspenak adierazten zuen bezala: bestearen desioaren desioa; besteak desiratua izateko desioa; bestearen desioaren objektu izateko desioa; bestearen desioaren objektuaren desioa.

. bestearen hautapena

— Desioaren objektua besteak berrezagutua izatea da. (horregatik desiratzen da, bitartekotasun gisa, bestearen desioaren objektua);

— gozamen eremua, nahiz eta ukapena izan...'

.../...

DE NOBIS IPSIS SILEMUS. Nietzschek, benetako balioen legegile den gizakia nahi du, balio ororen balioa gainditzen duena, bizitzari bizitza-posibilitate berriak eskain diezaizkiona. Baina bere garraisi etsian galtzen da. Idoloak lurreratzea, Boterearen eta Eginbeharraren presentzia gogorrak suntsitzea. Baina, orduan, eromenak **zer esanahi eduki dezake moraltasunaren historian?**»

1. «... Psikoanalisiak gozamina lurraren gainean uzten du. Ugazabek etzirakó prometitzen dute, zigorrari eta zartari lotzen dicte, bat berrerosten bada, bere erruak ordaintzen baditu, onartzen dutelarik. Psikoanalisiak honekin zerikusirik ez duenez gero, agian horregatik dago psikoanalisiak ezer jakin nahi ez duen hainbeste *jende*».(Massotta, O.).

De nobis ipsis silemus... Jainkoa hil da. Baina, non geratu zaigu gizakia? Oinazerako ez dago kontzepturik: moraltasunaren ideologia zaharren kategoriak bakarrik, negatiboak ala positiboak. Artauden kasuan bezala, sufrimenduaren sekretuan murgildu nahi izatea deselkarketari aurrez aurre begiratzea da, hau da, eromenetik sekula ez itzultzeko arriskua hartzea. Aldez aurretik, beharrezko baita bertan sartzea, edo hobe esan, beharrezkoa baita bera berrezagutzea, **de nobis ipsis silemus** horren printzipioa delarik.

BESTE ZENBAIT HURBILKETA-BIDERENA. Beste indarraren berrezagupenak lagun al gaitzake? Subjektua ukapena dela (bere falta ezartzen duena) ondoriozka al genezake? Artea, urrutiago joan al daiteke berrezagutzan?

HAUSTURAK ETA ABANGOARDIA ARTISTIKOAK

——→ **ARTEAREN AUZIENA.** Zer da artearen historia? Ustez, abangoardiako mugimenduen historia, aurreko mugimenduekiko maila altuagoko haustura formaleko mugimenduak, bertan guztiak batera daitezkeelarik, manifestuak, taldekako erakusketak, eta gizarte-ingurune hurbilenean sortarazitako arrakasta diren nortasun agiriei esker? Aurreko unea gainditu nahi duen abangoardia da. Gizarte mundua aldatu nahi duen abangoardia. Azterketa izpiritualeko mugimendua... Zer demontre da abangoardia artistikoa? Ustez, iraganarekiko ukapen gisa itxuratzen den zerbait. Bere gisa eta bere aurrean erantzuteko gai ez balitz bezala...

Edo, hau da, behintzat, betiko arte kritikari eta historiagileek sarritan esaten digutena. Entzun diezaiegun berriro ere.

————→ prozesuaren mamizko kategoria, **aurreko egitate artistikoarekiko haustura eta une honetako egitate artistikoa itxuratzen duten urratsak** izango dira. Horrela,

- inpresionismoa esentzialtasun linealaren aurka
- kubismoa Errenazimenduko perspektibaren aurka
- fauvismoa kolore lokalaren aurka
- abstrakzioa irudikapen mimetikoeki
- Dadá, artea iharduera goitiar gisako ideiarekin

haustura, beraz

————→ Artea, izan al daiteke oraindik? Itxuraz, bere esistentziaren posibilitatea gardentzen zuen humanismo hura izan al daiteke oraindik? Zein humanismoz ari gaya? Zein artez? Zer da artea? Non lekutzen da? Nola? —————→ Ekoizpena ala sorkuntza? Sorkuntzaz ari bagara, —————→ badirudi ezezaguna, irrazionala, eskurakaitza den zerbait sartzen dela; —————→ ekoizpenaz ari bagara, badirudi berehala langile, teknologia, ekoizpen ideologiaren hondoan murgiltzen garela.

——→ ARTEA ETA HISTORIA. artea industri ekoizki na ez dela dio ideologiak, desioaren indibidualtasun, inte res eza, askatasun, irudimenezko errealizazioaren adierazgarri dela. Hau horrela al da? Ideiatik objektura; objektutik bere funtzioara; objektutik bere testuingurura. Gauza gehiegi dira guztiak ulertu ahal izateko. Hegelek, artearen he. riotzarekin batera, zera iragarri zuen, **historiaurrearen amaiera eta, ondorioz, gizakiaren etorrera**. Beraz, artes humanismo gisa. *Hala eta guztiz ere, badirudi autonomiza. zio prozesu osoa erabateko desubjektibizazioan amaitula litzatekeela («Historiaren deshistorizazioa» burutzeko as. moa den bezala).*

——→ BERRIZTAPEN BIDEAK. honek zenbait gauzi ekarriko ditu: ikuspuntu batetik, **edertasunaren estetika-er dimentsio metafisiko hutsa gainditzea, artearen beraren ontologizazioan sartzea**. Ideia, hiri, familia baten zerbitzuan zegoen iraganeko artista-artisau-zerbitzaria, ideologia bat iko no bihurtzen edo ospetsuen galeria ezartzen zuena, sarritan enkarguaren arabera arazo teknikoak konpontzen zituena, indibidualizatzen da. Sentikortasunera jotzen da eta subjektibo tasunaren forma, estilo, aztarna nabarmentzen dira. **Artea bere pertzepzioetik bere domeinura autonomizatzen da. Bikainki mugatutako irudikapen, aurkezpen edo erreali tate planotan bideratu, definitu eta instalatzeko xede du. Arteen klasifikazioari buruzko galdera buru haust hutsa izan daiteke: baliabideak, helburua, proposamena...** Hasieran, hastapen galdera da, baina, azkenean, ber baitan ahitzen da.

——→ ADIERAZPENEA. Delacroix, arte erromantikoaren ordezkari nagusia: Lessingek garaiko artea zen poesia, pintura eta eskulturari aurkajarri zien. XIX. mendearen hasieran, Frantziako poesia erromantikoak musikara jo zuen. Jakina da klasizismoak (David) arkitektura eta eskulturarekin kutsadura eragin zuela. **Estiloa eta adierazpenaren arteko polemika: estiloa artearen baliabideei dagokie, adierazpena, ordea, artearen eraginei.** Azken saio gisa, auzia zera izango litzateke, **unibertso formalaren ontologizazio proposamen horrek subjektu mota berriaren aurkikuntzaren baiespenarekin zerikusirik ote duen ikustea.**

——→ Adierazpen, eraginen garaipena; pintura-artearena, alegia: 1820 inguruan, adierazpena garbiago bihurtzen da, literaturak proposaturiko gaiak (poesia, antzerkia, nobela) alde batera uzten direlarik; plastikak bertan behera uzten dira, ez baita konposizioaren arkitektura ez eta modelatuaren eskultura interesatzen. Pinturak sugestioaren mundua eskuratzen du, bere lengoia propioa, naturala' hitz eginez eta zuzenean «arimari» mintzatuko zaio. Musikan, Schubert, Weber, Schumann, Chopin, Liszt.

——→ Delacroixek «**koadroaren musikaz**» hitz egingo du. Bere baitan etapa horretako gatazka tipikoa adierazten da, hots, estiloaren (=ordena, arrazoa, konposizioa, proportzioa, oreka, bilatu eta aurkitutako eragina) eta «izpirituaren» adierazpenaren beharren artean. Ildo honetan, poesia ez da generoa bakarrik,

1. Delacroix, Géricault dixit.

objektu naturalaren kalitatea baizik, artistarengan bere egintza sortzaile, inspiratuaren berezkotasuna sortaraztearren. **Sentikortasuna** funtsezkotzat jotzen da. **Halere, proposamen erromantiko hori laister objektibazio beharrek gaindituko dute. Laister, behar erromantikoari lengoaia artistikoen espezifikotasunaren gaiarekin ekingo zafo.**

——→ ABANGOARDIAK. Arteak, bere ihardun propioan autonomizazioa lortu nahi zuen arren, aldi berean, berari buruzko nahiz subertsio honen azken erantzule zen artistari zegokion zereginari buruzko gogoeta sortarazi nahi zuen. Hemen du abangardia kontzeptuak berak bere inskripzio legitimoa: Gaia, gizarte proiektuaren arabera, egitate artistikoari emateko asmo zegoen **funtzioa** eta **lekuan** bilatu beharra dago. Klasizismoan artea bameratuta dago. Abangoardiarekin, aldatzaile izateko¹ asmo duen proiektuaren proposamenarekin topo egiten.dugu. Pevsnerrek¹ artistaren zeregina aztertzen zuenean bera adierazi zuen XVIII. mendearen amaieratik. Ordurarte Eliza, noblezia edo Korporazioen zerbitzura zegben artisau egoerara baldintzaturik, bere zeregina Akademia desberdinak sortzen direnean aldatzen da. Mekanikaria nahiz teknikaria bigarren mailako bihurtzen dira eta artista, «letragizon».

——→ Izan ere, Estatuko garapen modernoak artista bere zortasunengandik askatzen du; iheserako (banakako nahiz

1. «Academies of Art, Past and Present» liburuan.

taldekako)¹ aukerak ahalbidetzen dizkio. Gainera, hirietako bohemia izango den modura bizitzea planteatzen du. Bestalde, bizitza industrial hazkorrak, eguneroko bizitza estetizatzeko behar gisa, alienazioarekin haustea proposatzen du, sormena berreskuratzea, aukerazko espazio berriak eskuratzea.

——→ **AKTIBISMOAK.** aurreko oposizioa **gaietan** eta horiek tratatzeko eran (Caravaggio, Goya) oinarritzen bazen, oraingoan kritika proposamenaren hondo-hondoraino doa. Lehen, artista lekuko bakarrik izan zitekeen; orain, aktibista izan nahi du, eta askotan benetako eraikitzaile. Aktibismo honek abangoardia kontzeptuak, gizarte bizitza propioan, kokapen, norabide, kokaleku, terminoak hartzea ekarriko du. Artistak ez du bere burua errealitatea interpretatzera deituta bezala sentitzen, aldatzera baizik, eta areago, ordezkatzera. Masaccio edo Leonardo ez daude bere garaiko zientzia baino atzeratuago; baina Malevichek bakarrik daki bere pinturak, beste lengoaia batekin, erlatibitatearen teoriaren eremuan diharduela eta zientziak dituen eskubide berekin. Kafka eta Joyce literaturarako materiala behar dutelako biziko dira. Maiakovski hirietako parkeak hankaz gora jarriko dituen borroka-brigadako langile sentitzen da.

——→bada abangoardien iluminismoa, XX. mendeko artearen garapenaren bide nagusienetarikoa ordeztuko duena.

1. Esate baterako, la sekretuak diren komunitateak edo sozietateak sortzen dituztenen kasuan (=prerafaelistak, nazarenoak, sinbolistak) edo landa erbestea edo erbeste exotikoaren bidea hautatzen dutenen kasuan, Gaugin, Van Gogh, bezala.

Mundua aldatzea, beste gizarte bat eraikitzea, beste hiri bat, beste espazio bat, beste sentikortasun bat. **Subjektu baten proposamena berezko oldarpen poetikoaren terminoetan barnebiltzen da.** Beste proposamena Formalismoa da eta honen xedea, lengoaia artistikoen mailan, hausturen gainditzearen dialektika-bidean gainditze ildoak da. Baina, nola kokatu mugimendu hauek, beren estiloak, agertzen diren indibidualtasunak, kezkatzen dituzten arazoak?

——→ PROPOSAMEN NAGUSIAK. 1910 eta II. Gerra Mundialaren artean hiru korrante nagusi desberdin daitezke, hauen menpeko diren eta mugen artean dabiltzan nortasun bereziko zenbait mugimendu aldagarriekin.

- Analitikoa
- konstruktibista
- expresionista

——→ FORMALISTA. Analitikak arte obren arazo linguistikoei erantzuten diel. Egitate artististikoari buruzko gogoeta burutzeko joera. Aurreko kode artistikoen suntsidura (Cézanne, kubismoa, etabar) eta bere «iharduketaren» prest jartzea, bai eta bere **kritika eta berrikuntzarena ere; artearen berezko izaera zalantzan jartzea, paradoxa logikoen bitartez adierazle eta adieraziaren arteko erlazioa ezereztuz. (Duchamp, Magritte). Artea iharduera autonomotzat jotzen da, lotura moral, politiko,**

1. Mondrian, Malevich, Bauhaus

filosofiko etabarrekorik gabea. Barneliluratzen den artetik zirikatzen duen arteraino, Mondrian, Malevich, Kandinski, Mirótik, Duchap lotsagaberaino.

————→ KONSTRUKTIBISTA. konstruktibismoak ez ditu arazo formalak saihesten. Sobietar abangoardiaz nahiz anglosaxiarrek abstrakzio geometrikoko korrontea deritzotenaz hitz egin daiteke. Bertatik konstruktibismora. Konstruktibismo, Bauhaus, De Stijl eta Dadák forma ez-objektiboak, ekintzak eta testuak elementu berri gisa ekartzen dizkiote XX. mendeko hiztegi artistikoari. Ez dira beraiek gaiaren muina, gizarte berriaren eraikuntza baizik. Eguneroko lan sortzaile eta askatzaileagoa den baterako integrazioa (produktibismoa), ingurune ararrazionalagoan (Bauhaus, ,De Stijl) edo gizon guztiek gain hartutako eta landutako ahalmen estetikoan (Dadá).

————→ manifestuak, loturazko tentsioa, ideal eta balio berriekiko fedea, kolektibitatearen borondatea. I. Gerra Mundialeko sarraskitik atera eta gerra ondoriozkatu zuena salatzen da, berriro hasteko zoria dagoela ikusten baita. Halere, desberdintasunak daude, industri pribatuaren hedakortasuna eta Bauhausari ematen zaizkion aukerak eta SESBko gerra-komunismoak behar zituen energia mobilizazioen artean. Posibilismo eta utopiak, eratutako boterearekiko txokeak, tentsio iraultzailea eta planteamenduzko porrotak. Lanaren alienazioarekin amaitzerik ez zegoen, eta, gainera, horren arrazionalizazioak nahiz merkatuaren eskakizunek ezin zuten Bauhausak bilatzen zuen askatasun sortzailea bermatu, eta funtzionalismoak ezin zituen

gizakiaren iguripen estetikoak bete; De Stijlel merkatuaren etengabeko inposaketari aurre egin behar izan zion eta Dadá azkenik, integratu zen.

——→ DESPLAZAMENDUAK. «**konstruktibo**» dei genezakeen beste korrontea bada: moldeak haustea. **OPOIAZ**¹ = **eginkizuna, objektuen perzepzio berrietara heltzean datza**, eta hau ezinezkoa da adierazleengan aldaketa eta lanak burutzen ez badira, ondorioz eraginak ekarriko dituztenak, «besteak», adieraziak, objektuaren ikuspen berriak. Aldaketa-motorea konstruktibismo formala izango da, bere alterazio eta desplazamenduetan.

——→ baina konstruktibistek salatzen duten aurreko be-girada hura, gotikotik errenazimendura, areto eta akademietakoa, ez da zehazki begirada lainoa ez eta perfekzio teknikoaz kezkatuta dagoen begirada ere. Mimesi horren atzean apriorismo moral, sozial, kultural eta ekonomikoak daude. **Astoko egitate** ororen aurkakó gurutzada izuko aszetismoan planteatutako **produktibismoa** dago.

——→ ESPRESIONISMOAK. adierazpenaren aukera erro-mantizismoan errotuta dago. XX. mendeko gaia objekturik gabeko, birzurgapen ez-figuratiboa da: berezko zeinuak dituen lengoaia sortzen du, aldi berean, haustura formalaren protagonista bihurtzen dutelarik, baina helburu desberdinekin. Matissentzat kolorea, Kandinskirentzat puntua eta lerroa, Kleerentzat zeinuak:

1. Shklovski, Eikhenbaum, Jakobson

gogamenaren ekoizpenak eta idazkin teorikoetako objektuak. Barne-egoera subjektiboko eroanbideak izan behar dutela suposatzen da. Adierazpen aukera hau ez da jada espresionismoa (1905), funtsean, krisian dagoen munduarekiko erreakzioa izan arren, forma patetiko, mingarri eta_ ilogikoak hartzen dituelarik. Matissek adierazpena funtsezko kategoria dela esango du. Munduaren aurrean, artistaren sentikortasunak, bere barredardarak, konposizioa, oreka, espazio huts eta beteen arteko dinamika, funtsezko lerroetarainoko murrizketa eta koloreen hautespen harronikoa itzultzen ditu.

——→ Mondrian, Malevich, Miró. Maila altuagoko errealitatearen interpretazioa, errealitatea eta bere legeen interpretazioa. Igoera horretan, objektibo, indibidual, emozionala den guztia suntsituta geratuko da sentikortasun edo izpiritualtasun garbiaren mundua aurkitu arte. Kodeen koherentzia, errepikapena, erredundantzia, tinkoketa izango dira unibertsu izpiritual horren ikuspen bakarra hautatu izanaren ondorioak.²

——→ II. Gerraren ondoren, abangoardiak deskreditatzeari ekin al zitzaion? Arte esperimentalak, «**abangoardista**» izena eduki al zezakeen oraindik, batez ere gertatutako guztia

1. «Nire ikuspuntutik, adierazpena ez datza aurpegian islatutako edo keinu oldarkorrean agertutako pasioan. Nire pinturaren antolakera globala espresiboa da».

2. «Modernitatea banakotasunaren arintzea da. Eremu berri honetan errepikapenek ere orijinaltasun mota berri bat adieraz dezakete eta nitasunaren forma ezagertu bihur daitezke» (Paul Klee).

medio eta humanismoko kritika galdu horren ondoren? Jada kritika teorikoa ez zen baizik eta politiko, sozial, iraultzaile eta psikologiko horren ondoren?

——→ AMAIERA. **II.** Gerraren ondoren, erakundeen presiotik nahiz erakundeen alde sortzeko beharrik izan ez duen korronterik ez dago: **galeriak, museoak, arte kritika**. Inork ezingo luke arte amerikarraren garapena azaldu euspeneko dimentsio hirukoitz hori kontuan izan gabe. Merkatuak eta marketingak, horrek kritikoen berezko politikarekiko duen esanahiarekin (interpretazio edo berbaldi zereginik gabe), gertatzen ari dena ezinhobeki lekutzen dute. Balizko hiri garbiak, komunikabideen monopolizazioa, placet operandi artisticus-aren instituzionalizazioa.

——→ SUBERTSIOA INSTITUZIONALIZAZTEA.

Museoak berak ezartzen du espazioa, ikuspegia, erakusketa, antolamendua, jarrera, **harmen subjektiboa**². Museoak, ikuspena, ibilbidea, Historia, ikuspenezko mitika erritualizatua inposatzen ditú, bere mugimendu, hastapen, indibidualtasun, etabarrekin. Modernitatea, historikotasun, nahasketa, anabasa, adierazpen desberdinetako eta maiz aurkitutako elementuak dituen heinean galdu egiten da. Sorta historizista eta museistikoa, kultura biziaren aniztasun historiko-sozialaren aurrean. Ildo bikoitzean, ekoizle eta ikusletik, beharrezko truke sortzailearen proposamena

1. Fakultate, eskola, kritika ofiziala, katalogoaren erritualizazioa, arte merkatua, subentzioak, «Kultura» Ministraritzak, etab.

2. N.York-eko Museum of Modern Art, Madrilgo Velázquez-en erakusketa...

galdu egiten da.

——→ II. Gerra Mundialaren ondoren zenbait proposamen burutzen dira, baina lehenengo abangoardiek egin zutenaren berrirakurketa besterik ez dira: ez dago praktikoki, egitura-berrikuntza propioa duten proposamenei dagokienez, berrikuntza formaleko mugimendurik. Berrir agertzen dira Duchamp, surrealismoa, Miró, Kandinski edo Picassoren irakurketatik eratorritako abstrakzioa, automatismo surrealisten edo aurreko proposamenetan¹ oinarritutako pinturaburutzapen berrien nolabaiteko birsorketa. Irakur, bestela, 60-70 urteetako obrek eta beren kritikoek esaten dutena, azter, pop art edo arte kontzeptualean dagoen berrikuntza edo espresionismo abstraktuarena... eta argi ikusiko da autoerreferentziazkoak ez diren beste eskarrietatik aldentzen den artistikotasuna dagoela.

——→ ARTEA, MERKATUAREN GARAIAN. Abangoardia kontzeptua hutsaltzen da proposamena beraren integrazio edo [irudimenezko] indibidualizazioa dela eta. Happening-etik , komuna-mugimendu gisako marginaltasuneraino doan guztia, sistema ekonomiko-politiko-artistiko-ideologikoak bere gain hartzen du. Ezkortasun politikoa, nazioarteko blokeo ekonomikoa, ekologia-hondamendi unibertsalak, merkatuaren garapena bere adierazpen goreneraino, galerismo, museismoaren internazionalizazioa, **sinbolo artistiko, ororen auto-erreferentziazioa**, kultur balio oro **ekonomizatzen** deneraino.

1. Adibidez, Matisse...

Eguneroko bizitzako arlo guztietan erradikalizazio kontserbadorea eta, askatasunen ezespena. Badaude berreskuraketa kritiko eta erradikaleko saioak, erakunde kapitalista jakin batzuen ustiaketa edo zinismoa agerian jarriko dutenak **I. Bestalde, bideoarekin, «gurutzada abangoardista» bitxia aurrera eramateko saioak egiten dira, beti ere, eraginkortasun muga, bere marginaltasunean izango duena.**

——→ **PRODUKTIBISMO OBJEKTALA.** «Auto-gogoeta» delakoari dagokionez, arte kontzeptuala geratzen da, artearen izaerari buruzko gogoeta gisa. Alde batetik, idazkera, objektua desmaterializatzea; bestetik, artearen teoria azpimarratu eta ñabartzea. Testu erabat itxi, tautologiko, interes gutxiko eta sarritan ilunak direnak, arteak lengoaia itxi gisa duen arazotik harantzago irteten dira, bere testuinguruetan irekiz. Hauxe ikus daiteke kritikoki Art Language edo Tel Quel bezalako talderik erradikalenetan. Lengoiaren borondate **objektala (=konstruktiboa)**² planteatzen hasten diren taldeak; baina artea subjektibotasunari buruzko inkesta gisa planteatu beharko duten taldeen arazoa ere. Testuaren ekoizkortasun sortzailea, makinadesiratzailleak. **Kanporaketa subjektiboa?** Eta ez proiektzio edo sentipen edo psikologia soil-soileko auzi gisa, baizik eta, bahar bada, galderaren estatutua honela balitz bezala: **gaur eguneko adierazpen aukeraren birjaurtiketa, metodologia eguneratuago batekin, subjektuari buruzko araketari al dagokio benetan?**

1. Hans Haackek Documentarentzat: ikus artelanen jabeei buruzko txostenak.

2. adibidez, Tel Quel.

SUBJEKTU ISILA. ABSTRAKZIOA.

Beste bide baten aukeraz mintzatu naiz. Abstrakzio lirikoa. XIX. mendea, anabasa naturala hautsi edo ikuspegi berri batean antolatzen duen kontra-proposamen sinboliko/irudimenezko gisa irekitzen zela bazirudien ere, Munduko Gerraren amaierak ikuspen berriak gainbeheratu eta erabateko atzeraldiaren beharra ekartzen du¹. Aitzitik, denboraldi batean zehar bi ikuspenak ematen dira: **bata, mundu berriaren eraikuntzan laguntzeko prest dagoena; bestea, urruntze erresuma izpirituala berresten dueña,** —→ikarazko ikuspena, eta laztura eta oinazearen aurrean sentikortasuna. Oinaze hori jasatea, Europa errausten ari zen suntsidura harekiko garaitezina izatea. Hondamendiaren aurrean erresistentzia eta berrespena.

——→²Desolazioaren gainetik hegan doaz aingeruak, izpiritual edo idealerantzako hegaldia, kristalezko esistentzia, esistentzia gardenena. Arte abstraktu, kristal, arrazionala; beste aldera; iluna, irrazionala, ifernua, oinazea³.

1. —→ «Natura zeharkatzen duen garraisia, etsipenaren garraisiaren beldur naiz» (*Edward Munch*) 1914 —→«Mundua are eta izugarriagoa (gaur bezalaxe), artea are eta abstraktuagoa; mundu zoriontsu batek, ordea, arte lurtiarra sortaraziko luke» (*Paul Klee*).

2. «Nire aurrietatik ateratzeko hegan egin behar izan nuen (...) Hiltzear nengoela uste nuen; baina, hil al naiteke, ni, kristala naizen hau? Ni kristala» (*P. Klee*)

3. «Mundu honengatik taupaka zebilen bihotzak lupuak jota dirudi. Gauza hauetara oroitzapenek bakarrik lotuko banindute bezala sentitzen naiz... Nigandik beirazko mota jaioko ote da...? Bazter ditzagun hemengo gauzak, horien gainetik, guztia berrespen izan daitekeen harantzagoa eraikitzeke. Abstrakzioa».

——→ Transzendentzia. Baina anabasa eta apokalipsia. Kristalinoa, gardenaren inbokazioa, ordena geometriko-matematikoarena. Une hartako egoeraren aurrean larrimina eta abstrakzioa, goi-mailako ordenerako beste igoera-aukeren bilaketa gisa. W. Kandinski, objekturik gabeko arte abstraktuaren aintzindari, «**Artearen izpiritualaz**» argitaratzen du, ikuspen berdintsua adieraziko duelarik.

——→ izpiritualitate hermetikoaren adierazpen plastikoa. «Bere zeinuek unibertsu ideal, itsi, ulertezin hori aipatzen dute, barne-mundu propio eta eskurakaitza irudikatzen duen abstrakzio printzipiorako kodea. Kandinski ulertezina, pintore absolutua, kolore eta forma geometrikoko konbinazio zorrotz eta tinkoak, itzulpena ahalbide dezan aukerarik gabe». Berak, «**Barne-beharrera**» jotzen du, kolore eta harmonien harmonia matematikoaren bilaketa fanatikoa. Forma garbi, ideia abstraktu, absolutuak¹.

——→ munduaren amaieraren deskripzio topiko honekin, barneraketa izpiritualizatu, mistiko eta unibertsalaren postulatu berretsiko zukeen. Honela, Kandinskik, ordena plastiko berriaren etorrera argi utzi nahi izan zuen. Behin betiko hondamendia galeraziko duen egitate kosmikoa. Horregatik, aurrerago zera esango du «**Gorago, beldurrik ez dago**».

1. «... arau matematiko eta arkitektonikoen arabera sendoki eraikitako hiri handia, bapatean, indar neurtezinak astinduko balu bezala... Horma lodiaren zati bat karta mordoaren moduan gainbeheratu da. Zerurantz jasotako done eskerga, hauskorrek eta hilezkorrek ziren zutabe izpiritual askoren gainean eraikia, lurrean datzan aurri hutsa da. Aspaldiko hilen zahar ahaztua dardaraz dago. Utzitako hilobi zaharrak irekitzen dira eta ahaztutako izpirituak bertatik atera. Hainbeste artez eraikitako eguzkian beltzuneak agertu eia iluntzen ari du...» (Kandinski).

Badirudi adierazpen enigmatiko honekin, Kandiskik, goimailako mundu hori aipatzen zuela.

——→ Gainera, tentsio lirikoa dago, printzipio elaboratzaile bat etab. Baina Mondrian aurre jartzen bazaio, egitatea agertzen da abstrakzioaren egitate absolutu gisa. Neo-plastizismoak indarrez esistentzia garbi baten egitatea baiesten du, unibertsala izan nahi duen ordena. Badirudi alde batera uzten dela, erreprimitu balitz bezala. Batzutan, badirudi, elaborazioa baino errepresioa dagoela. El Lissitzki edo Le Courbusierren proposamen bera emango da: gauza ez da anabasa deuseztatzea edo bihurtzea, alde batera uztea, enoratzea baizik. Errealitate **narriatu** honen aurka ezer egiterik ez balego, eta **maila altuagoko batera jo behar balitz bezala...Argi eta garbi, arazoa, proposatutako subjektuarekin geratuko litzateke...**

——→ Badago ere orrialde hauetan Europako eta munduko hondamendiaren premonizio magikoa aurkitu nahi izan duenik: suntsidura urteak, sekula berpiztuko ez ziren desagertutako hiri, inperio, kulturen urteak. Abstrakzioa anabasaren larriminaren aurrean horma gisa. **Gris, Mondrian, Malevich, Kandinski, hondamendiaren aurrean arte abstraktua aurkezten dutenak, berrespen humanistako proposamena klaudikazioa baino (aitzitik, gogora Francoren garaiko formalismo espainiar aberatsa)¹.**

1. Klee: «**Ni, noski, anabasatik abiatzen naiz**, naturalena delako. **Bertan lasai sentitzen naiz, ni neu anabasa izan naiteke eta**». Kleeren egitura geometriko konstruktiboa.

——→ 20ko hamarkadak porrotarik latzarena adierazi besterik egin ez dezakeela pentsatzen duenik badago: bakearen porrota, sozialdemokrazia klasikoaren porrota, Europa zaharraren porrota, Erdieuropako ordena politiko edo kultural ororen egonkortasunareen porrota. Adio, Husserl! Garai hartan Errusian gertatzen denak ez du ia pentsalari berezkorik: **zeregin politikoak** ez du gogarte filosofiko berririk jasaten ez eta ahalbidetzen ere. Estatuko Moloch-a ez dabil kolokan, oso finkatuta dago. Faxismoak, demokrazien klaudikazio politika, Fronte popularren mugarik gabeko heroismoak. **Ez Kafkak ez eta Joycek ere ezin izan zuten subjektu kontemporaneo horren dimentsio prometeikoa aurkitu.** Konstruktibismoa, produktibismo bilakatzen da eta azkenik, moldaeraren ospe errealista kantatuko du. Anabasaren ikuspenak ordena izpiritual eta idealista hori legitimatzeko balioko du. **Benjamin, Husserl, Brochek,** gauza bera adierazten dute. Baina Brecht eta Piscatorrek bezala, suntsiduraren aurrerapenaren euspena, deuseztatu ezin izango den ulergarritasun printzipioaren bidez aditzera emango dute. Subjektuak edo bere ilusioak, aldaketarik gabe diraute. Oinazea, etsipena, suntsidura edo anabasa ezagunak dituen «**oinarri izpiritual garbiaren gaineko eraikuntzaren**» estetika. **Eta, halere, subjektuaren zoriak desberdinak dira guztietan.**

——→ Zalantzarik gabe, tesi psikologistaren aurrean gaude, horrek beti daraman arriskuarekin; hala eta guztiz ere, badirudi **abstrakzioak anabasa gainditzeko duen balio hurbila** planteatu zuten tesietatik gertu gaudela. Ikus, bestela, geroago **Mondrian, Kandinski, Klee edo Malevichek** burututako argudioak.

Esana da oinazea, irarrazionaltasunean, etsipenean, suntsiduran, anabasaren sentimendua nagusitzen dela elkarrekintzen mundua irakurtzeko aukera bakarra balitz bezala. Uzketa den irakurketa. Worrigerrek¹ aurretestu bezala arte kubistaren eta objekturik gabeko lehenengo adierazpenen garapenak hartu eta lantzen ditu. Berak, kristalinoa hartuko du joera guzti honen pean datzan kategoria nagusitzat; arteko abstrakzio formalaren analisiaren eraginez, geometrizazioa eta irudikapen espazialaren errepresioa, arte kristalino horren oinarritzat une osagarritzat joko ditu. Eta bertan, larriminak leku nagusia hartuko du, **zapuzte** aukera gisa, alegia.

————→ Esan bezala, psikologismo edo izpiritualismoa, azken finean, kontraesankorrek dira. Izan ere, gerrarteko artea, eta

1. «Zeintzuk dira abstrakzioaren bulkadaren premisa psikikoak? Beharrezko da premisa hauek herri primitiboen sentimendu kosmikoan bilatzea, unibertsuarekiko duten jarrera psikikoetan... Tibulok -primum in mundo fecit deus timor- esaten zuen bezala, larrimineko sentimendu hori bera sormen artistikoaren erroan dagoela baieztatu genezake... Herri primitiboek artean bilatzen dituzten gogobetetasunezko aukera ez zetzan kanpo-munduko gauzetara bizia eman eta bertan gozatzean, kanpomunduko gauza zehatz horretatik arbitrariotasuna eta itxurazko kasualitatea erantztean baino, hau da, forma abstraktuei hurbiltzen zitzaizkien heinean betirako bihurtzen zituzten, itxuren jarioaren baitan nolabaiteko geldiunea aurkitzearen... Lerro soilak eta lege geometrikoen pean burututako garapenak gogobetetasunezko formarik gorenenak eskaini diezazkioketen fenomenoaren argitasun eza eta nahasketaren aurrean izututa zegoen gizonezkoari». *1906 eta 1913 artean, Wilhelm Worringerrek «Abstraktion und Einfühlung» (1908) obran abstrakzioaren printzipioak antolatzen ditu*

ondorioz, mundua eta horrek deskribatzea ahalbidetzen dituen subjektibotasunei buruzko galdera kontraesankorra da erabat. Txundiketa galderak dira, nahiz eta, askotan, **berrespen esisntentzialeko** konpromisua adierazi, **eta horrexegatik, errealitate beraren antolaketarako kontraproposamena**. Lehenengo gerraren garaiko arkitekturan gauza berdintsua aurkituko dugu ¹. Konpromisu **izpiritualak** gertatzen dira; **baina konpromisu politikoak ere**. Espresionismorik biluzienetik, **ulergarritasun eta arrazionaltasun berriaren ordena eskuragarri eta eraikigarriarekiko konfidantzara**.

————→ **DUALISMOAK**. Gropiusek metropolia aipatzen du leku kaotiko, kontraesankor gisa, tentsioz betetako leku gisa, zori industrial eta ezgizatiarrekoa. Döblinen² nobela espresionista, Citroenen collageak, Fritz-Langen hiri-molocha, lehen, Kafkaren idazkera osoa³. Bauhausean adierazpen espresionistak,

1. Mendelssohnek, 1919an, «Arkitektura berriaren arazoa» manifestuan; Gropiusek Berlineko «Arkitektu ezezagunak» izeneko erakusketa zela eta Bauhausen eraketaren aurretik; ondokoari buruz mintzatzen dira: **«hondamendi historiko-unibertsalen hurbiltasuna»** edo ondokoari buruz: **gure hiriak diren itsusitasun eremu grisak, miseriak; bertatik behera amilduko garen ifernu berriak...»**

2.«Berlin Alexanderplatz»

3. Lehenengo Gerraren garaiko arkitekturan eta ondorengoan ere antzeko zerbait aurkituko dugu. Mendelssohnek, 1919an, «Arkitektura berriaren arazoa» manifestuan; Gropiusek Berlineko «Arkitektu ezezagunak» izeneko erakusketa zela eta Bauhausen eraketaren aurretik; ondokoari buruz mintzatzen dira: **«hondamendi historiko-unibertsalen hurbiltasuna»** edo ondokoari buruz: **gure hiriak diren itsusitasun eremu grisak, miseriak; bertatik behera amilduko garen ifernu berriak...»**

funtzionalismo, konstruktibismo, oro har, adierazpen arrazionalistekin batera bizi dira. Bi joerak batera bizi dira, anabasa, suntsidura, miseriaren salaketa proposamena eta ordena berriaren aukera, bai eta artistak beste errealitate bat eraikitze duen ahalmena ere direlako, alegia. **Ordena politiko berria, eta ondorioz, arkitektonikoa, sentigarria, arrazionala, humanista. Gizakia ahalgarria da. Proposamen historiko-humanistaren aukeraz bizi da, nitasunaren ilusioaren aukeraz baino. Suntsidura eta barbariezko proposamenaren aurrean, ordena berria proposatzen dal.**

——→ Klee, Kandinski, Feiniger, Gropius, van Doesburg, Taut... 1992an, dualismoa De Stijl eta Teo van Doesburgenen «**Estilo Borondatean**»² nabaritzen da.

——→ zer eragin izan zituen proposamen honek? Abstrakzioaren estetika hori, heriotza, anabasa, oinazea, subjektuaren birreraiketa historikoa, subjektuaren birkonposaketa morala eta etikoa, bere barne eta kanpo arkitektura gainditzeko gai izan al zen? Bilatutako dimentsio hori lortzeko gai izan al ziren artea eta utopia?

1. Gropiusek «**ideiarik nobleenak dituen adierazpen kristalinoa**» bezalako arkitektura lortzeko deia egiten du. Gogora ESSBko Konstruktibismoaren programa berritzailea.

2. Ondoko hau esango du: «Gure arreta osoa egungo biziaren irudi orokorrean jartzen badugu, ikuspuntu propioetatik abiatuz, irudi horrek anabasa dakarrela ondoriozkatuko dugu, beraz, ez gaitu harrituko ikusteak itxurazko anabasa horretan atsekabez dihardutenak, mundutik ihes egin edo abstrakzio izpiritualetan galdu nahi izatea».

——→HILOBIAK MUSEOETAN DAUDE. Museoak berak ezartzen du espazioa, ikuspena, erakusketa, antolamendua, jarrerak. Museoak ikuspen bat inposatzen du, ibilbide bat, historia bat, hastapenez erritualizatutako mitika, bere mugimendu, hastapen, indibidualizazio etabarrekin. Modernitateak duen historikotasuna, konfusioa, anabasa, maiz aurkitu ohi den adierazpen desberdina, galdu egiten dira. Sorta historizista eta museistikoa, kultura biziaren aniztasun historiko-sozialaren aurrean. Bizitzaren premia dinamikoaren aurrean, katalogoaren kristalizazio historizista. **Arteak eta bere irudikapenak, azkenean, ez dute ia zerikusirik: parafernalía ofizialaren txorakeri burokratikoa.**

——→ II. Gerra Mundialaren ondoren egindako proposamenak lehenengo konmozioek burututakoaren berrirakurketak baino ez ziren izan, arte, lengoaia, jarrera, desio anitzek, subertsiozko tentsio anitzak sortarazten zituztenean. Psikologikatzeak, soziologikatzeak kezkatzen nau, baina, horrenbestez kezkatzen nau **mendearen amaiera/hasierako poetika formala edo formalen, espresibo eta konstruktiboen gaia artistiko bihurtzeak.** Eta artistak probokatzailerik enzimatikozko izatetik abangoardia, eta abangoardiatik estamentu bihurtzera bultzatzen dituen mugimendu horrek beste irakurketekin saiatzera narama.

1. N.York-eko Museum of Modern Art, Madrilgo Velazquezen erakusketa...

SUBJEKTU-PROPOSAMEN BERRIAREN INGURUAN

Lacanek izua hartzen zuen arakatze modu bakar gisa, arakatze horrek ekintza bera zetorren iturrira jotzen zuenean. **Saialdi edo erreboluzio prometeikoak: errealitatea eraikitzea edo anabasa eustea edo maila altuagoko esfera aurkitzea edo ordena berria aldarrikatzea.** Errealitatearen irudikapen ahalgarria nahasia geratzen da, materia argitsu edo egitura espazial edo proposamen postnaturalista bihurtzearen, kontingentziak erantzten dituen adierazpenaren lirismoaz, formalismo esentzialean erraiak kanporatzen dituen arte¹.

——→ ezer prometitzen ez duen aurkikuntza prometeikoa². Mina eta ez-jakintza nozitzen dituen eriaaren nitasunaren aurrean,

1. ——→ «Beraz, zuentzat, agertu ahala ihes egiten duen haren enigma naiz, zuek, zuen nahieren urreantzen pean trebezia gordetzen nauzuen gizon horiek. Halere, zuen larria benetakoa dela onartzen dut, nire mezulari bihurtzen zaretenean ere, nire koloreak eramateko besterik ez baituzue balio, zuek bezalako diren zuen soinekoenak bezalakoak direnak, mamuak besterik ez baitira. Zuen artean egon ondoren, nora noa? Non nengoen urrats hori eman aurretik? Esango al dizuet inoiz? Baina, nagoen lekuan aurki nazazuen, esango dizuet zein zeinuz ezagut nazakezuen. Gizon zaretan horiek, entzun, Egia naizen honek, hitz egiten du». (*Lacan*).

2. ——→ «Ni han hemenka nabil zuentzat esentziaz hain egiazkoa ez den horretan: ametsean, erronkan, gongoriarrena den zolitasun zentzuan eta hitz jokorik barregarrienaren ez-zentzuan, azarean, ez bere legean baizik eta bere kontingentzian (eta ez diot munduaren bisaia aldatzeari ekiten hainbeste ziurtasunez, Kleopatraren sudurraren profila ematen diodanean baino. Galduta daude jada, gezurtatzen dut, desafio egiten diet, desteilatzen naiz, defendatzen naizela zioen» (*Lacan*).

sendatzen duen eta dakien nitasun osasuntsua. Freudek egia eztabaidatzen du, egia ez baita gurea. Eta berrezagutza, hori egitate subertsiboa da, jakintza filosofiko, psikiatriko psikologiko, politikoaren aldean. Horregatik, egokitu zen bergizarteratze iharduera bihurtzearen. Gaisoa osasuntsu bihurtu... Terapeutaren osasunera egokitu. Terapeutaren nitasun indartsua paziente/nozitzaile/ezjakinaren nitasun ahularen aldean.

——→ Ukatu, gorde, ebaki: egiak hitz egiten duela, erresistentziaren ondorio da. Ez pazientearen erresistentzia, terapeutarena baizik. Hitz egin, ulertu, iritzia ez emateko erresistentzia, desioaren agerpen, eraketa eta itxurapenekiko erresistentzia. Erresistentzia hauek **Ugazabaren Berbaldiarei** eragin moztaille dira. Ugazaba da gauzak ondo egotea nahi duena, gauzak aurrean duen banakoaren mailan egotea, harmoniaren bila dabilen berbaldia da, sakonena diren desio eta gozamena otzantzen saiatuz, munduaren ordenan egokiro ezarriko diren subjektuak lortzearen, subjektuak, une bakoitzean dagokien Ugazabarekin ondo konpon daitezen¹.

——→ Freud eta Jung USAn. Laister otzanduko den izurria. Moldaeraren ekintza: banako eria analista osasuntsuaren egiari egokituko zaio. Arazoa zera da, Freudek egia ezta- baidatzen duela. Lacanek, ordea, egia, gizonentzat, agertu ahala

1.——→ «... Psikoanalisiak gozamena lurraren gainean uzten du. Ugazabek etzirako prometitzen dute, zigorrari eta zartari lotzen diete, bat berrerosten bada, bere erruak ordaintzen baditu, onartzen dutelarik. Psikoanalisiak honekin zerikusirik ez duenez gero, agian horregatik dago psikoanalisiaz ezer jakin nahi ez duen hainbeste *jende*.(Massotta, O.)

desagertzen den enigma dela esaten du. Gizonek egia hori daramatela pentsatzen dutenean, beren antziak besterik ez daramatzate. Egiaz, «hitz egiten» baita¹.

Zein egiari buruz hitz egiten da? Halere, zera zehaztu behar dugu, «egiari buruz» mintzatzeak ez du oraindik esan nahi egia dela «mintzatzen dena». Terapian, «nitasunaren atal osasuntsua» eta terapeutaren nitasunaren arteko batasuna lor daiteke, ondorioz, erresistentziak gaindituz, terapeutak mantentzen duen osasunaren egia eskura daitekeelarik.

Halere, ez dago desioa moldeatzerik, hezitzerik, erreformatzerik. Erresistentziak desioaren adierazpenak dira. Eta desioa konplexua agertzen da, edozein errealitate, teoriarekiko arrotz, gizarte lekuekiko menperaezina. Desioa ez da pedagogia ez eta sexologiaren ikuspuntutik aztertzeko gaia. Etikaren menpe egon daiteke eta horixe da sintoma, desioaren arabera uztea.

——→ Baina, zein egiari buruz ari gara? Egia orotasuntzat hartzea gauza bat da, eta bestea, egia gabeziaren ondoan jartzea, gainditzen duen desioaren ondoan, gainera, enunziatzen duen subjektua normalean gainezkatzen duen egia dena, analista subjektua adina harritzen duen egia, alegia. Gure artean, egia ez dago inoiz lehenago, geroago baino, geroz, alegia. Egia lan eremura datorkigu, geroz gauzatuz beti. Badago datorren zentzua, baina, halere, subjektuaren ekoizpenean ez dago egiazko asmozkotasunik.

1. «Gizon zareten horiek, entzun, Egia naizen honek, hitz egiten du».

——→ ekoizpen horretan zentzu ekoizpena dagoela esan daiteke, baina subjektuaren *asmozko* interbentziorik ez¹. Horregatik, lengoaiaren teoria instrumentalak ez du balio subjektibotasunaren gaia ulertzeko. Inkontzientearen aurkikuntza freudiarraren garrantzi kopernikarra **subjektu-egile** nahiz **subjektu-sintesiaren** posizioaren eztabaidan datza, filosofia klasikoaren puntu nagusiak direnak, alegia. Lapsusa, txistea, sintoma, ezinezkoak dira, lengoaia subjektuak bere asmoak adierazten ditueneko tresnatzat hartzen duen ereduti

——→ nitasun-sintesi hori da (lehenengo elaborazioko nitasuna hartuz, lapsus, txiste, amets, sintometan: kondentsazio, desplazamendu, irudikotasunarekiko adeia, begiramena etab.) bigarren elaborazioa burutzen duena: lehenengoa inkontzientetik abiatzen den bezala, bigarrena Nitasunetik dator². Koherentzia, arrazoizkotasuna ematen dituen elaborazioa, hutsuneak betetzen

1.——→«Analisiarekin aurrera jarraitzen badut, harrituta uzten nauten pentsamenduetara iristen naiz, nire barruan hauteman gabeko pentsamenduetara, nireak sentitzen ez ditudanak eta gogaikarriak gertatzen zaizkidanak; horregatik, gogo beroz aurka egin nahi nieke, analisisan zehar doan pentsamendu katea urrikigabe inposatzen zaidan bitartean» (*Freud*).

2. ——→«Ez dago inoiz Nitasunik gabeko subjekturik, osorik gauzatutako subjekturik, baina hau da, analisisan subjektutik lortu behar dena. Analisisak zera lortu behar du, subjektua beste subjektu batekin elkar dezan egiazko hitza, lengoaiaren hormaren beste aldera. Subjektuak egiazko Bestearekin duen azken erlazioa da, espero ez den erantzuna ematen duen Bestearekin, analisisaren gailurra definitzen duena» (*Lacan*).

dituena: Nitasunaren iharduera sintetizatzaile horretan bigarren elaborazio gisa diharduten erresistentziak. Horren arabera, ***Nitasuna sintoma da.***

——→egia, esatean dago, bere pusketetan, ametsean, porrot, lapsus, txiste edo sintoman. Horiek agertzen diren lekuan bertan dago inkontzienteal.

——→zein subjektuaz ari gara? Zergatik «**subjektu isila**»? Lacan eta bost historial klasikoak; Lacan eta egia; azken finean, Lacan eta lengoaia. Akats, desio, sintoma, lapsusaren klinika². **Gauza ez da subjektu-egile edo lengoaiatzat komunikabide gisa mintzatzea, ez bait da ulermena edo hizkera egokia aztertzen, adierazlea baino.**

1. «Beraz, zuentzat, agertu ahala ihes egiten duen haren enigma naiz, zuek, zuen nahieren urreantzen pean trebeziak gordetzen nauzuten gizon horiek. Halere, zuen larria benetakoa dela onartzen dut, nire mezulari bihurtzen zaretenean ere, nire koloreak eramateko besterik ez baituzue balio, zuek bezalako diren zuen soinekoenak bezalakoak direnak, mamuak besterik ez baitira. Zuen artean egon ondoren, nora noa? Non nengoen urrats hori eman aurretik? Esango al dizuet inoiz? Baina, nagoen lekuan aurki nazazuen, esango dizuet zein zeinuz ezagut nazakezuen. Gizon zareten horiek, entzun; Egia naizen honek, hitz egiten du». (*Lacan*)

2. 1953 «*Hitzaren eremu eta funtzioa*» (= «*Erromako Hitzaldia*») eta 1960 «*Hizkiaren instantzia inkontzientean*».

Gauza ez da nitasuna indartzea, sintomaren artikulazio adierazlea baino.

————→ Lacanen klinikak bi mutur ditu, zehapen eta histeriako paranoia eta lau oinarritzko kontzeptul. Bestalde, esan badaiteke ere bere klinika ezinezkoa dela ez bada **transferentziatzko** kontzeptuan oinarritzen, halaber estrukturalista dela esan daiteke. Jakobson eta Lévi-Straussen lanetan ikasitako estrukturalismoa. Baina bere egitura atipikoa da, ez da orotasun ideala, osotasuna, betetasuna, batasuna. Bere baitan, gabezia, kastrazioaren aztarna dago. Subjektua ez da berezko osotasuna, subjekturik gabeko egitura ezinezkoa ez bada ere, kastraziotik at ezinezkoa da subjekturik izatea. Beraz, akatsa, hutsunea, gabezia duen egitura da. Faloaren klinika beharrezkoa izango da, edipoa egituratzailea den neurrian. Baina hauek dira funtsezko elementuak.

————→ ²Berezko irakaskuntzari Pariseko Sozietate Psikoanalitikoarekin hautsi eta, Laplanche, Lagache, Dolto eta beste batzuekin batera Frantziako Psikoanalisisiko Sozietatea fundatu ondoren ekin zion. Urte hartan hiru erregistro nagusien arteko

1. transferentzia, irrika, inkontzientea eta errepikapena.

2. (166 pag.) 1936 «Marienbad-eko Nazioarteko Psikoanalisi Kongresua», «Ispiluaren maila» ponentzia. Eremu honekiko sarrera ponentzia. 1953.

bereizketa ospetsua idatzi zuen, bai eta Erromako hitzaldia ere, bertan zera zioelarik: **«inkontzientea lengoiaren moduan egituratuta dago»¹.**

————→ Psikoanalisi, etologia, fisiologia eta garapenaren psikologiari dagozkien ispiluaren mailako alderdi ezagunak alde batera utzita, garrantzitsuena hemen Lacanek formula arraro xamar baten bidez adierazten duena da²: **nitasuna eta subjektibotasunaren arteko distantzia tartejartzen duen eraketa ezartzen du.**

————→ Bere goiztartasun organikoan, senezko desbabes, ondoeza, erauzpenean, ispiluzko irudiaren esperientzi gozatsu eta artikulatzailea gertatzen da. Gestaltaren aurrerakin gozatsua, lorpen sentso-motriz eraginkorren aurretik, propiozezpizioa aurretik, bere zatiketa eta ez-osotasunaren iragarki edo adierazle diren gorputzbarneko estimuluetatik datozen datuen aurretik. Funtzio eratzaile honi **«identifikazioa»** deritzogu.

1. Tradiziozko formulazioa bezalako ez diren erregistroak:

- errealaren erregistroa (=naturalaren unibertsa?)
- irudimenezkoaren erregistroa (= inkontziente, lehen mailako prozesuen unibertsa?)
- sinbolikoaren erregistroa (=bigarren mailako prozesuen unibertsa?)

2. «ispiluaren maila Nitasunaren (je) funtzioaren eratzaile gira, psikoanalisi esperientzian agertzen zaigun moduan».

————→ **«Imago» (irudi** hitza baino indartsuagoa da) baten bidez sortutako identifikazioa, benetako balio egituratzailea izango duena; nahiz eta, halaber, ispilu honek hemen zeregin artifiziuala izan, azken finean, eragin hauen ekoizpenean bestea, berdintsua ordezkatzeko baitu.

————→ Forma osoa, kanpokotasuna, irudia, ematen dion heinean, irudikatzen du eta bera da; baina, Lacanek dioenez, haurrak, bera ez den beste batekin lortuko du heldutasun organikora iristea, irudimenezko irudikeri baten bidez. Nitasunaren iraupena, baina alienazioa, kanpotasun horretan alienatuta baitago. Hau da identifikazio horren eragina.

————→ Freudek² egintza psikiko berria beharrezkoa zela esan zuen, jarrera auto-erotikotik jarrera nartzisistara igarotzeko. Egintza hori da Nitasunaren eraketa. Jarrera auto-erotikoan, oraindik, zatiketa libidinala dagoela esan beharra dago; eta nitasunaren eraketak prozesu hori nolabait batuko du, nitasuna libidoaren objektu bihurtzen den neurrian. Beraz, 14ean, Freudek, objektuaren libidoa eta libido nartzisista edo

1. —→ **bere gorputzari itxura osoa ematen dion imagoa**

——→ **gorputzaren irudia gestalt, osotasuna, batasuna bezala sentitzen duen diskordantzia barneorganikoa arren,**
(hau funtsezkoa da bere ulermen linguistikoa kokatzeko edo, hobe esanda, subjektuaren **Adierazlea** kokatzeko).

2. (168 pag.) «Nartzisismorako Sarrera» obran.

Nitasunaren libidoaren arteko bereizketa egin zuen. **Nitasunak, nartzisismoari dagokionez, irudi osatzailearen modura funtzionatzen du, libidoa menperatuz.**

——→ Nitasunaren funtzioaren itxuratzaille gisa, ispiluaren maila^{1,2}. Eta hau literalki hartu behar da: analisiaren ikuspuntutik, bestearen irudiarekiko identifikazioa, gizakiaren Nitasunaren benetako osagarri izango da: hau da gizakiaren esentzia.

——→ gizakia, identifikazio jario gisa osatuko da. Gizakia, irudimenezko emasabelean osatzen da, baina, aldi berean, ezagutzagabetasuneko emasabelean sartzen da. Moldaeraren psikologietan, nitasuna instantzia sendoa da, errealitatearekiko erlazioan nortasunaren kontrol eremuko egile. Hemen, bestelako zerbait dago. Ispilua, amaren begirada... amarekiko desioa, azken finean, beti ere, osatutzat ikusten duen bestearen begiradaren arabera, bere irudiarekin «identifikatuko» delarik.

——→ bere alienazioa oinarritzen deneko nitasunaren eraketaren irudimenezko erlazio hori, ez da 6 hilabetetik 18ra bitarteko denboraldira mugatzen, irudimenezko esperientzia osoan zehar edatzen baizik. **Itxuratu, itxura izan...** ez dute esangurarik, hemen, ***identifikazioaren eragin egituratzaileetaz*** ari baitgara.


1. «**je est un autre**», «Ni bestea da»

2. Rimbaud, eta Lacanek dioen bezala «zer esaten duten ez dakitenak, baina jakina denez, gauzak besteek baino lehenago esaten dituzten» poetak ere aipatzen ditu.

Nitasuna, Nitasun gisa, bestearekiko identifikazio prozesuan osatzen da.

—→ ez da bestearen itxura izatea; bai, ordea, **besteaz liluratuta egotea**. Identifikazioa ez da alienagarria kanpotasuna dakarrelako bakarrik, baizik **Nitasuna atxekituta geratzen deneko irudimenezko konstelazioekiko zortasuna** dakarrelako ere. Nitasunezko ziurtasunetik harantzagoa da, erlazio nartzisistikoa den neurrian. Eta honek bestearen desioz Nitasunaren harrapaldia adierazten du. Ispiluak benetako balioa galtzen du, azken finean baliagarria dena bestearen begirada, bere desioa, bere konplitudea eskuratzea, delako.

→ ehenengo fasean irudimenezko erregistroa ez dabil bakarrik, sinboliko bezala artikulatu behar da. Psikoanalisiatik, subjektuarterekotasunaz hitz egitea Nitasunetik Nitasunarekiko elkar-erlazioko espazioaz hitz egitea da. Orduan bakarrik hitz egin dezakegu berezko erlazio sinbolikoaz (ikus lambda grafikoa)



(a) (a) bezalakoa da eta horregatik elkarren arteko lerroa jarraikorra da; baina erlazio hau mantenezina da, aldi berean S-A erlazio sinbolikoa ematen ez bada, nahiz eta tartean lerro inkontzientea

den irudimenezkoa izan. «Ni bestea da», tradizio freudiarreko alienazio eraikitzailea, Nitasun moldagarriko psikologia guztiaren aurkakoa (Hartman, Kris, Lowenstein).

——→ Lacanek nitasunaren psikologia bazterterakoan eta Freudengana itzultzerakoan berreskuratu nahi duena praktikako alderdirik subertsiboena da. Nitasunaren eremuan, subjektibotasuna gauzarik ezezagunena bezala. «Ni bestea da» Kopernikok burututako deszentramendu berdintsua da: subjektibotasuna, banako eta banako horren itxura den nitasunaren arabera, deszentratuta dago.

——→ 53. urtera arte, Lacanek, irudimenezkoa, esperientzia analitikoa garatzen den dimentsiorik nagusia bihurtzen du. 53. urtetik aurrera, irudimena eta sinbolikoaren arteko erlazioa arakatuko du. (a) eta (a')ren arteko erlazioa edo Nitasuna eta bestearen arteko erlazioa. Nor da bestea? Nire lekuan dagoena, irudimenezko emasabel horren arabera ni bateratuz osatzen nauen hura al da? Nire berezko zatiketaren lekuko dena al da bestea?

——→ Freudek, «Masen psikologia....» obran, amodio, maitemintzearen auzia planteatu zuen, amodioa betetasun bezala. Kasu honetan, «Ni bestea da» esaldiak Nitasuna eta bestearen arteko (a-a') erlazioa planteatzen du irudimenezko erlazio gisa, bakarrik eusten ez den erlazioa, hutsune sinbolikoan funtzionatzen ez duena, S-A(0) oposizio honen arabera baizik.

——→ Lacanentzat hiru inskribapen erregistroak izango dira subjektuaren esperientziaren arabera determinatzaile:

——→errealak

——→irudimenezkoa

——→sinbolikoa

ikuspuntu honetatik, Lacan, Marienbad-en, Nitasuna nortasunaren instantziarik nagusia bihurtzen zuen «egopsychology»aren psikoanalisiaren aurka kokatu zen. Horregatik, egindako guztia nitasun hura indartzeko zen. Halere, identifikazioaren bidez subjektu gisa planteatu zena Nitasunaren eremuko elementurik ezezagunena da hain zuzen ere.

——→ nitasuna ereduazko nozio higigaitza izan da. Alabaina, Foucault irakurtzen badugu, nitasuna nahiz subjektua oso kontzeptu berriak direla ikusten dugu, nahiz eta goiz zahartu. XVI. eta XVII. menderaino atzera gaitezke. Garai bateko pentsalarietzat erdigunean zerbait zegoen; Freudekin haustura kopernikar berrira irits gaitezke, deszentramendua gertatzen delako. «Ni bestea da» esaldiak subjektua banakoaren arabera eta banakoaren itxura den Nitasunaren arabera deszentratuta dagoelaren ideia eramanen gaitu.

——→ amodioan, maitatutako objektuak nitasunarentzat bikaintasun guztien lekua hartuko du: objektuaren idealizazioa. Nitasuna, objektuaren ohorez, hutsik egongo balitz bezala da: adibidez, «bera gabe ez naiz inor». Beraz, objektuak nitasunaren lekua hartzen du, ideal gisa, eta maitasunezko erlazioa erlazio nartzisista izango da.

——→ desioa bestearen eremuan kokatzen da beti: gauza bat interesgarria da besteak ken diezaguen neurrian; horrenbestez, beti, bestearekin lehia eremua dago edo horregatik, desioak histeriaren eremuan jokatzeko du, beti, desioa bestearen desioaren arabera artikulatzen delako, desioa jokatzeko deneko subjektuarterko dimentsio horren arabera. Baina, orduan, subjektuarterko dimentsio hori adierazteko, dimentsio sinbolikoa ezarri beharko dugu derrigorrez.

——→ dimentsio sinboliko hori irudimenezko dimentsiotik dator, subjektuaren irudimenezko esperientzia zirikatzen duelarik. Bestearekin harremanetan hasten den unean bertan, dimentsio mingarria sortzen da; Nitasuna eta bestearen arteko erlazioa, bestearen suntsidurarako lehian hasi (etsaigoa) edo, bestela, alienazioaren menpe jartzen gaituen *identifikazioa* hasten delako. *Ezeztatpena edo identifikazioa*¹.

LENGOAIA

——→ Irudimenezko dimentsioa duen Nitasuna dago eta antolamendu sinbolikoa duen Subjektua. Sinbolikoa, Bestearen arabera definitzen da, **alteritate erradikala, beste eszena, ez pertsonala, inpertsonala baizik, inork gauzatu ez dezakeen neurrian. Beste lengoaia da, lengoaia bertan**

1. ——→ «Erlazio nartzisistaren erbestea, subjektu gisa ibilbideari ekiteko aukera baldintza dirudien erbestea. Gogora Edipo, hain zuzen ere, bere jakinmina medio, azkenean tronotik baztertzen dutena eta ikusmena galtzen duena; baina erbeste hau (tronoaren erbeste intzestuosoa hau) aldi berean subjektu gisa bere gizon izaeraren mailan egongo litzatekeen ibilbideari ekiteko aukera baldintza izango da».

dagoen egitura delako, lengoaiaren jaiotzaren aurretik. Hitzaren bestea. Berbaldiaren norabidea zuzendutako halako batetik harantzago doa, subjektuaren arabera, kanpotasuneko dimentsioa da, berbaldi unibertsalaren, esandako guztiaren, esan daitekeen guztiaren, liburutegi unibertsalaren Bestea.

KULTURA

——→ Lévi-Strauss eta ahaidetasun sistema, arau sistema, kulturaren ordena. Animalia uztartzetik eskonteraztunera, naturatasunetik kulturatasunerako pasarte. Legea, baimendu eta debekatutako erlazioen presentzia. Subjektua bertan pentsatu behar da, osa daitekeen lekutik bertatik. Baina, gainera, batez ere, lengoaiaren ordenak, lengoaiaren ordena sinkronikoak, subjektibotasuna ezartzen duen arkitektura inkontzientearen baldintza lengoia dela dakar. Eziznezkoa da subjektuaz mintzatzea lengoiaz mintzatu gabe eta bi teoriak elkar baldintzatzen dute.

HIZKUNTZ ORDENA

——→ Saussurek linguistikaren erreferentziazko ordena hausten du: linguistika errealistaren funtsezko funtzioa galtzen da. Lévi-Straussen natura galtzen da; Saussurekin erreferentzia galtzen da. Lengoiaren zeregina ez da objektua izendatzea, lengoiak ez du nomenklatura izan nahi, adierazle eta adieraziaren arteko erlazio gisa zeinua ezartzea du xede. Halaber, beste tradizio bat hausten du, lengoia pentsamenduaren zerbitzari edo tresna delaren ideia. Saussurentzat,

ezizezkoa da pentsamendua lengoaiaren aurretik izatea, hizkerarik gabe formagabeko masa izango baitlitzateke, ezinezkoa izango litzatekeelarik bi ideia desberdintzea.

OSOTASUNA

——→ beraz, hizkuntza, iharduera psikikoa eta hotsaren bitarteko gisa agertuko da, eta hizkuntza zeinua, zeinu sistematzat hartutako artikulazio horren ondorio. Banakoaren aurretiko ekoizpen soziala izanik, hizkuntza banakoari dagokion hitzarekin nahasten ez den konbentzio sistema da.

——→ Zeinuan, elipseak itxia esan nahi du, adierazle eta adieraziaren arteko batasun hautsiezina, terminoen elkarrekikotasunak eta lerro horizontalak erlazioa ezartzen dute. Unitate denez gero, ez dago isolatuta, sistemaren beste zeinuekin artikulatzen delarik; entitate guzti hauek guztiz erlatiboak dira eta sistemako gainerako terminoekiko aurkakotasun eta desberdintasuneko arrazoiengatik nabarmentzen dira. Beraz, desberdintasunak nahiz erlazioak daude.

——→ Erlazio hauek bi ordenetan zabaltzen dira: bata, *ardatz sintagmatikoa*, zeinuen konbinaketa ahalbidetzen duen ordena, hedaduran ematen dena, hizkuntzaren izaera linea-lean, alegia: sintagma batean, terminoak balioa hartzen du ondorengoaren edo aurrekoaren aurka jarrita dagoelako. Bestalde, hitzak, oroimenean elkartzen dira talde desberdinak osatuz. Saussurek honi «*hizkuntzaren barne-altxorra*» deritzo, asoziazio erlazioak dira eta ausentzian terminoak elkartzen dituzte.

ESANAHIA KONBENTZIO HUTSA DA

——→ Adierazlea adieraziari atxekituz, esanahia sortzen da. Lacanek egoera hau birplanteatzen du zentzuaren banaketari ekinez: *adierazleak ez dio esistentzia adieraziari zor*. Adierazlea adieraziaren erlaziotik at eta harantzago dago.

——→ Hau zen Freudek ezarritako ordena: ez zen aurreko adierazitik abiatzen, baizik eta hitzak adierazle bezala aztertzerakoan, *zentzugabekeria* horretatik zentzua sortzen zela ikusi zuen. Adierazleen zeregin hau beste eszena batean gertatzen da, nitasunetik at, inkontzientea adierazle kate eraginkorreko fabrika balitz bezala. Analisisian gertatzen dena zera da, inkontzientearen lanaren zabalpena, adierazleak beren artean artikulatzea ahalbidetuz.

ADIERAZLEAREN DESERAIKUNTZA

——→ Freudek zeinu saussuriarra deseraiki zuen. Adierazle eta adireziaren arteko erlazioa burutzen duen elipsea desagertzen da, beren batasuna bermatu eta Saussurek *esanahi* zeritzon erlazio positiboa azpimarratzen zuena; elkarrekikotasun geziak desagertzen dira eta terminoak alderantzen, adierazleari lehentasuna ematen zaiolarik. Banatzen dituen marra azpimarratuko da, Lacanek dioenez, *marra hau esanahia jasan baitezakeelako*. Adierazia marraren azpitik irristatzen dal. Errepresioaren marra.

1. Lacanek dio: «zentzuak adierazle katean dihardu, baina katean ez dago esanahiari dagokion elementurik».

DESUBJEKTIBIZAZIO TEORIKOA

——→ Hizkuntzaren arauarekin, kodearen egonkortasunarekin, esanahia emanda dago eta subjektua bertatik at geratzen da. Perspektiba honetan linguistika desubjektibatuta geratzen da. Komunikazio mutur batekeko nitasunak kontrolatzen du subjektua: *subjektuak, kodea bere esku izan eta hizkuntzaren zeinuak tresna gisa erabiliko balitu bezala da*. Estrukturalismoan, subjektuak bere lekua aurkitzen du, baina, zein da leku hori? Egitura klasikoa al da?

——→ Lacanen egitura ez da orotasun, batasun, erabatekotasun koherentea, *deskonpletatua* baizik; gainera, Lacanen subjektua ez dago jatorrian, jatorrian, *Bestearen egitura dago, subjektuaren aurretik dagoen lengoaiaren egitura; bisitari berezi hori, mintzatzen den bizidun hori harrapatzen duen egitura*.

EZAGUTZAGABETASUN ERRADIKALA

——→Freudi jarraituz, Lacanek subjektu eratuaren auziari ekiten dio, aparatu psikikoa egituratzen duen mekanismoan oinarrituriko subjektua: lehen errepresioan, hain zuzen. Lehen errepresioa deusezta/ezaba ezin daitekeen neurrian, subjektuak ezagutzen ez duen eta sekula ezagutuko ez duen jakitea duela uste du Lacanek. Ez dago auto-kontzientzia garbirik, ez dago zeharo bere burua dakien jakintzarik: *subjektuak ez du batasuna lortzerik*.

——→ «Beste» hori, egitura hori, osotzat hartzen badugu,

ahalgarria izango litzateke subjektuaren osotasuna suposatzea. «Beste» osoa edo egitura osoa agertzen da gabeziaren tokia ezezaguna den neurrian. Eta hau da Nitasunak hartzen duen lekua, gabezia ezagutzen ez baitu. Beraz, Saussuren dimentsio linguistikoa hausterakoan, adierazia, beste dimentsio bat hartzen duen adierazle da.

EZ-ERREALITATEA:«ERREALITATE» ADIERAZLEA

——→ MINTZATZEN DEN ERREALITATEA. Guretzat adierazle batek bere kabuz ez du inolako esanahirik. Munduko liburutegi osoa bere adierazi guztirekin ere, bertatik subjektua aldendu deeko egitura abstraktu eta ezinezkoa besterik ez litzateke izango. *Izateko ezereza*. Guretzat, adierazlea, zentzugabekeria edo enigma izan daiteke. Baina, aldi berean, ez dago adierazle aurretiko aurre-berbaldi errealitaterik. Ez dago adierazlerik gabeko errealitate organiko, biologiko ez eta sozialik ere. Honek zera esan nahi du, guztia, azken finean, hizkuntzaren eremuan jokatzeko dela, lengoaiaren eremuan.

——→ ERREALITATEAREN INDARGABETASUN SIN-
BOLIKO-IRUDIMENEZKOA. beraz, Nitasunari bere nagusitasuna kentzea, bere irudimenezko lekua ematea, aldi berean inkontziente/subjektu berregituratua eratzeko asmoa da. Gertatzen dena da, ordea, subjektu hau ez dela agertzen egitura hau eragiten duen sarrera datu gisa, eragile gisa, filosofia klasikoak uste zuen bezala. Subjektua adierazle konbinatoria honen ondorio gisa agertzen da. Eta honek genesia dakar, Egia ren auzia berriz ere

planteatzen duelarik¹: erreala, hain zuzen ere, izendatzen dugunean, beti, pittin bat ihes egiten duena da, adierazle izan ez daitekeen zer edo zer badago, horrelakorik ez balego, liburua jada idatzia egongo litzatekeelako. Baina, halaber, *esateari ihes egiten dion kondar bizia badago: halere, esatearen hutsuneetan esaten da*. Halaz ere, arazoa sortzen da, ez Egiaren presentzia, noski, baizik eta Subjektuaren presentzia antzematen laguntzen diguten berbaldi motak eztabaidatzerakoan. Egia edo erreala ez den Subjektua izanik, ezin du bitarteko nitasun ez eta nitasun egokitzaile ere izan².

——→ Orduan, zein kokapen zehatz erabil daiteke ustez zuetariko gutxik amaieraino irakurri duzuen proposamen hotz honetan?

BILAKETARAKO BESTE BALIABIDE BATZUK

.TERAPIA: IRUDIMENEZKO ESPAZIOA. Konsistentzia euskor eta arautuen espazio errealari kontrajarria, irudimenezko

1. *Ni, egia naizen hau, mintzatzen naiz, baina ez dut egia osoa esaten; hori egitea materialki ezizenzkoa da, hitzak falta dira, horregatik, egiak, erreala irrikatzen du» (Lacan).*

2.——→ (Pleynet) «Bestalde, bere burua marxistatzat hartzen duten banako edo subjektuekin topo egiten dugu, baina zergatik diren marxista sekula aztertzen ez dutelarik. Galdera honi erantzuterakoan beti orokortasunak aipatuko dituzte; ez dute sekula esango: Marxista naiz arrazoi honen eta horregatik aldaketa sozial honetan eta bestean horrenbeste energia ematea erabaki dudalako; agertaraziko dutena aldaketa sozialen orokortasuna izango da, ez dute sekula, ordea, aldaketa sozial horietan *subjektuaren* lekua adieraziko».

espazioak ez du «ardatz» dialektiko gisa beste aukerarik, *frustrazioa* baino (Egiaren opakotasun erradikalaren aurrean, ekintzaren transformazioa ahalbidetu behar duten «sinesmenak» alde batera utziz). Berbaldiaren frustrazioa, «senen» tresnatzat hartua. Hau da, ez subjektuaren desioaren frustrazioa (subjektuari berari «nabarmen» agertzean oinarritua) baizik eta sasiobjektuaren frustrazioa, bertan desioa alienatuta eta ezgaituta dagoelarik. Identifikazio ziurtatzaile, nahiz kastratzailearen, frustrazio mingarria: ispiluzko identifikazioa, gozamenaren aukera bera Bestearen desioan uzten duena, azken hau dialektikoki «ukatzea» beharrezko delarik. EGIAREN HANDIKERIAREN FRUSTRAZIOA. EGIAREN DOGMATIKARENA.

.FRUSTRAZIOA ETA ERASOKORTASUNA. Frustrazioak erasokortasuna dakar: ez frustratutako desioagatik, berrezagututako objektuagatik baizik. *Gain hartu nahi ez den dolua, desiatzeko berezko erantzukizuna dakarrelako, eta ondorioz, gozatzeko beharra (jada kontzientea den gozamen galera beraren aukerarekin). Bizitza bera eman den lanaren frustrazioa eta, azken babesleku gisa, (beti ukatututako) heriotz baiespen bihurtu dena. Beraz, irudimenezko asmoak betetzeko (=erresistentzien argitze lana) (inkontzienteki) eratutako sasiobjektuaren irudimenezko asmoak desbideratzeko*

1. Bakartiak gara. Gure esistentzia ahalik eta eremu zabalenean onartu behar dugu. Guztiak, ezadituak ere, bertan izateko aukera izan behar du. Guztirako prest dagoena, ezer baztertzen ez duena, ez eta enigmatikoena ere, hark bakarrik sentituko ditu biziki beste izatearekiko harremanak. Agian, gure bizitzako dragoi guztiak eder eta ausartiak bihur gaitezen espero duten printzesak dira (*Rilke 1*).

*interbentzio ororen aurka behar-beharrez zuzenduriko erasokortasuna*¹.

.IRAGANA/ORAINALDIA. Baina guzti hau analisi kausalaren ezaugarriekiko aldentze aurrerakorra da. Izan ere, gauza ez da subjektua Egiaren «formula» alienatzailearen bitartez aldatzea. Ez dago, beraz, inoren iraganaren azalpen «jakintsua», iragana bere orainaldian baizik ez baita, bere sufrimendua salatzen duen eidos/ethosetik at ezinezkoa baita iragana².

.BI BIOGRAFIAK. Drama, analisiaren orainaldi eta bertakotasunean datza: irudimenezko asmoak ezin du bera adierazten duen erlazio ia sinbolikoa alde batera utzi. («Ia» diot; elkarriketako erlazioa ez baita Egiazko erlazioa ezta pertsonarteko erlazioa ere, subjektuarterko erlazioa baizik, bertan testua esanbidezko formulazio inoiz ez delarik; leizearen ertzeko paseoarean arrisku konpartitua delako beti. Subjektuaren nortasunaz, zer, nola, irakur? Nork irakur dezake? Galde egindako

1. Jainkoak hain gaizki sortutako izpirituaren ezgaitasunean bertan agintzen du Ego-ak, berez, zentzudun sentitzen dena, zentzuz diharduena; aitzitik, guztien artean txotxoloena da, zentzuaren korridore kiratsu horretan galtzeagatik, gauzek sekula izan ez baitute zentzurik (*Artaud, A. «Rodezeko Gutunak» 2*)

2. Anitz gorpu eihar,
Nire ahotsak ernai,
Hilobitik nituen atera;
eta hildako horiek gaur
ez dute itzuli nahi gau ilunera
(*Heine, H. «Kantuen Liburua»*).

subjektuaren biografia erreal eta irudimenezkoa nahasten dira (lehenik, subjektuak berak galde egiten du); baina analistak ezin du irudimenezko puzzle edo puzzle sinbolikoaren zatiak taju ditzan irakurketarik egin. Beraren subjektibotasunak gai izan behar baitu bertan subjektuaren «nitasunari» buruz irakur daitekeena bere gain hartzeko. «Je» lehen pertsonak nozitutako distantzia: «Ez da hau beharko lukeena izan» eta distantzia honela bete: «Hura izan zen izan zitekeena»¹.

.ALIENAZIO ERREALA. Arestian, hizlaria iltzatuta bezala dago: keinuaren intimitatea subjektuaren berbaldi mutuaren zati bat besterik ez da: «reifikazio» arriskua saihestu behar du, hau da, subjektuaren alienazioa. Hizlariak, subjektuak bezala, berezko ziurtasunak bertan behera utzi behar ditu. Azken irudikeriak ahi daitezen ahalbidetzea. Bere nortasunari uko egiten dio, ondorioz segurtasunezko dramatikan sartzen delarik.

.EGIAN, GEZURRA ADIERAZTEN DA. Begira: hitzak komunikazioa irudikatzen du. Isiltasuna, ihes egiten duena, metakomunikazioa da. Hitza, egia da eta «**agerkundearen**» osagarri isila. Hitzak lekukotasunaren fedearen gainean eragiten du: baina edonork daki gezurraren zirkuituak direla, bertan lehenengo iruzurra berbaldiaren ekoizle

1. Gure izpiritutik, *jatorrizko testuaren* ideia baztertzen badugu, horren itzulpen edo bertsio zifratua gure hizkuntza izango litzatekeelarik, adierazpen *osoaren* ideia zentzugabekeria dela ikusiko dugu, hizkuntz oro *zeharkakoa edo alusiboa* dela, hots, *isiltasuna* (Merleau-Ponty, M. «*Filosofiaren Gorespena*»).

delarik. Arazo guztia, beraz, berbaldiaren agerkundea zer den jakitean datza. Hitzak egia ahalbidetzen du eta neurri berean, gezurra: gezurra, azken finean, ez da egia bezain malmutza.

.ERREGRESIOA, NORTASUNA ETA IRUDIMENEZKOA. Subjektuaren berbaldiak puntuazio egokiaren bidez burututako maniobraz hartzen du zentzua. Berbaldia osatzen duten uneen jarioa ziurtatuz puntuatzen da. Erregresioa, ametskeriazko irudikapenak eguneratzeko aukera da. Ildo horretan, erregresioa ez da «erreal» (= **ez da objektuarekiko erlazio «errealaren» egunerapena, baizik eta irudimenezkoa sortzen deneko erlazioa, analistaren beraren nortasun «errealaren» galera transitorioak ahalbidetua**). Puntuatzea ez da, beraz, subjektuaren ulermenaren esku utzitako mistika hipnotikoa, subjektuaren berbaldiak markatutako proiektzioan ihardutea baizik^{1,2}

.PERTSONAIA ETA «EZEZAGUNAREN FUNTZIOA». Hau da, subjektuaren «errealitatearekiko» ukipeneko mito intuitibista ukatzen da, teoriko nahiz praktikoki. Bestalde, **errealarekiko ukipena saihestearren, subjektuak eragiten duen**

1. Poetaren ahotsa berea da eta ez da. Nola izena du, nor da nire berbaldia eten eta nik esateko asmo ez nuen gauzak esanarazten nauen hori? (*Paz, O. «El arco y la lira»*).

2. Hitzak, orrialdetik ihesean oldartzen dira. Eraso indar itzulezinari ekiten dion poetaren bihotzetik aldentzen dira. Poetak ezin ditu bere sonetuan eutsi asonantziaren poderioz ez bada; kanpoan hots egiten dute harropa beraz, baina etsaigoan oinarriturik (*Artaud, A. «Testuak»*).

erlazioaren balio obsesiboa frogatzen da. Analistak, «errealarekiko» ukipena saihesten duten kontrol horiek agerian uztea ahalbidetzen du. Honela, *pertsonaia*, *subjektuaren berbaldia errefraktatzen duen iragazkia da (ezarritako irudimenezko espazioan zehar, «subjektua inskribatzen duen berbaldiaren partitura bera» irakur daitekeeneko kodea aurkezten du eta») (Mannoni)¹. Ondorioz: lotespen objektua adierazitako hitzatik harantzago agertzen du, bere arkitektura sakona medio; subjektua bere eraginkortasun sortzailean ezartzen du, irudikatutako pertsonaiei dagokienez. Objektua eta subjektua, nitasuna den heinean, irudimenezko erlazioz daude lotuta eta hau da objektuaren funtsa. Esanbidezko erlazioak proposatzen duen objektutik harantzago joatea ahalbide dezan egoeran kokatu beharra - dago. **«Jakina denez» entzun behar denaren esku jarri beharra dago. Orduan, analistaren «arreta difusoa», subjektuan, «hitz hutsaren» dinamikari dagokio, subjektua bere desioaren bereganatzea sekula bizi izan ez duenaren izenean mintzatzen baita**^{2,3}*

1. Lengoaiaren baitan, adieraziek elkarrekin borrokan dihardute, neutralizatu eta suntsitzen dira. *Guztiak du esnahia, guztia lengoaia delako* proposizioa, alderantz daiteke: *ezerk ez du esanahirik, guztia lengoaia delako* (Paz, O. «*Corriente alterna*»).
2. Hidalgo Cervantesen ametsa izan zen
Eta Don Kixote hidalgoaren amets.
Amets bikoitzak nahasten ditu eta
askoz lehenago gertatu zena gertatzen ari da.
(Borges, J.L. «*Sueña Alonso Quijano*»).
3. Hitzak, lekualdatutako hitz ebakiak, besteen hitzak izan ziren orduak eta mendeak utzitako limosna txiroa (Borges, J.L. «*El inmortal*»)

.UKAPENAREN PLANOAN BARNERATZEA. Orainaldia eta bertakotasunaren analisisa. «**Orainaldi-bertakotasunaren**» egi kontraesankorra. Zailtasuna zera da, subjektuarterkotasun obsesiboa sortzen dela, erlazioa irekitzen duen subjektuarterkotasun histerikoa sortu beharrean. Erresistentzien analisisa, bertan interpretazio sinbolikoak «**hitz betearen**» barrutian ezartzea dakarrelarik. Baina, bestalde, «kontzientzia hartze» soilaren bestaldea den interpretazioa, sarritan pentsarazi denaren aurkakoa, alegia. Hau da, erregresioak, desioak burutu izan ez zituen tentsioen biziberrikuntza ahalbidetu behar du. **Subjektuak erreprimitutako edo besteek debekatutako desioaren erlazio-ihardueren jatorrizko eszenak, ez gertakari traumatiko batenak¹.**

.BAIESPENAREN LEGENDA. Halere, gutxien ulertutako alderdia da: berbaldiaren arkitektura gordearen adierazpenak subjektua aldaketara agertaraztea dakar (printzipioz, aldaketa hau, ezin da irudimenezko erlazioan baino burutu). Subjektu honek «**beste errealitatearekin**» zerikusia dauka. Pazienteak, Homeroren heroiak bezala, bere jatorrien kontaketa epikoa kantatzen du, bere biografia menperatu/erreprimituak bizi

1. Maiakovski futurista baten aipamen bera *bihurritu* beharko litzateke eta zera baietsi «arte (eta bizitza) ez dira errealitatearen kopia, naturaren bihurria baizik, banakoaren kontzientziak islatzen (ez) duen moduaren arabera». «Objektuen eta beren elkarbarneraketaren lokadura dinamikoa». Halere, honek, erresistentzia gogorak planteatuko ditu era guztietako teorizazio arrazional-teologiko eta arrazional-teknologikoen aldetik. Fixismo fenomenikoa da, Adieraziaren aldetik Adierazlearen aldetik baino.

izandako historia. Esaera metaforikoz betetako lengoaia, arkaikoa, eszenategian gertatzen dena, horretarako dramaren korifeoak eta bere patuaren ikusle izukaitzak ezartzen direlarik. Iraganaren ametsezko irudikapena (eta hau da harritzen duena: historia subjektiboa kronikaren esparruari baino esparru poetikoari baitagokio). Subjektuak berak delegatzen duen epaile Batzordearen aurrean eta klanaren historia nagusiaren arabera, bere desio eta izuen legenda garatzen du. Honela da, beraz, subjektua (oraindik) ez denean osatu duen mitoa. **Denbora, denaren baina gertatu ez den biografiaren bere gisako epealdi gisa agertzen da¹.**

.SUBJEKTUA ETA BERE BIKOITZA. Konbergentzia gunerik izan ez duten Subjektua eta bere bikoitza (baina, nor da nor?): tragedia esangaitza, ez-topaketak, agian izan behar ez zukeena zehatzen duelako². Nor da bat? Ukatu zena? Subjektuak, bere sufrimenduan, «badaki» bera den ukapena

1. «Ni han hemenka nabil zuentzat esentziaz hain egiazkoa ez den horretan: ametsean, erronkan, gongoriarrena den zolitasun zentzuan eta hitz joko barregarrienaren ez-zentzuan, azarean, ez bere legean baizik eta bere kontingentzian (eta ez diot munduaren bisaia aldatzeari ekiten hainbeste ziurtasunez, Kleopatraren sudurraren profila ematen diodanean baino. Galduta daude jada, gezurtatzen dut, desafio egiten diet, desteilatzen naiz, defendatzen naizela zioen» (Lacan)

2. «Analisiarekin aurrera jarraitzen badut, harrituta uzten nauten pentsamenduetara iristen naiz, nire barruan hauteman gabeko pentsamenduetara, nireak sentitzen ez ditudanak eta gogaikarriak gertatzen zaizkidanak, horregatik, gogo beroz aurka egin nahi nieke, analisisan zehar doan pentsamendu katea urrikigabe inposatzen zaidan bitartean» (Freud).

dela bera izateko gai izan ez zenaren ondorio, izan «behar» zukeenaren ondorio.

Iraganean beste inflexio bat eta oraingoan ez dena izango da. Baina, orduan, non, «egiaren» zein arlotan, iraganeko zein Agerkunde historikotan, nahiz erreal nahiz irudimenezkoan, dago, konpartitu ez arren? Beraz, izatea, non «dago»?¹

.HISTORIA ETA MITOA/EGIA ETA AGERKUNDEA. Historiak nahiz mitoak subjektua osatzen dute: faktore hauek, hitzaren «Agerkunderan» hitzaren Egian baino gehiago agertzen dira modu desberdinetan. Beraz, ez egiazkoa ez eta faltsua ere ez denaren «errealitatea». Hitzak agerkunde horren errealitatea aditzera ematen du une honetan. Baina hitz horren funtsa errealitate hori da hain zuzen. Hau da, errealitate horretan, hitzak, iraganean konpondu gabeko indarren berri ematen du, beharrezko bezala finkatuta geratu zenaren berri².

1. «Beraz, zuentzat, agertu ahala ihes egiten duen. haren enigma naiz, zuek, zuen nahieren urreantzen pean trebezia gordetzen nauzuten gizon horiek. Halere, zuen larria benetakoa dela onartzen dut, nire mezulari bihurtzen zaretenean. ere, nire koloreak eramateko besterik ez baituzue balio, zuek bezalako diren zuen soinekoenak bezalakoak direnak, mamuak besterik ez baitira. Zuen artean egon ondoren, nora noa? Non nengoen urrats hori eman aurretik? Esango al dizuet inoiz? Baina, nagoen lekuan aurki nazazuen, esango dizuet zein zeinuz ezagut nazakezuen. Gizon zaretan horiek, entzun, Egia naizen honek, hitz egiten du». (*Lacan*)

2. Gure sinesmen, sorketa eta eldarnioak gara, gure mitoak, bizitzeko go-goak eta heriotzaren beldurra garen bezala. Eldarnioak heriotzaren beldurra desitxuratzen du eta alde zurreko amaiera proposatzen. Sinesmenak babesten du, batzutan norabidea ematen du, urtzen du, baina bestetan ere trenkatzen. Sormena mitoetan elikatzen da, desartikulatuz, suntsituz eta birrantolaketarantz, oraindik ezaguna ez den horretarantz doa (*Grimson 2*).

.«SENDATU»= NORBERE BURUA ZAINDU= IRAGANEKO ADIERAZLEA BIRRANTOLATU. Heiddegerrek sendaketari buruz hitz egiten du: zaintzaren jainkosa. Ondorioz, «sendatzea» «zaintza izatea» da¹. Eredurik tradizionalan, sendaketa subjektuaren anamnesi gaitasunaren arabera neurtzen da: historia egitean (=gogoratzean) datza. Lacanentzat, aldiz, ez da errealitatea, egia baino: **hitz betearen eragina iraganeko kontingentziak birrantolatzea da, etorri beharreko desioen zentzua moldeatzearren** (subjektuari geratzen zaion askatasun eremu minimo horretan)².

.SUBJEKTU ZENTZU-ERAGILEA. OTSOEN Gizakia. Freudek, «Otsoen gizakia» deritzon obran, prozedura harrigarria aurkezten du: alde batetik, gertakari traumatikoaren data finkatzea ahalbidetzen dioten froga guztiak behar ditu. Bestetik, dio, bizitako/irudimenezkoaren ordena dela elementu erabakiorra³. Gertakari traumatikoa erdigune estatiko gisa ez baitagokio subjektuaren esperientzia puntualaren bildumari: **gertakari berri bakoitzarekin, «gertakizuna» berregituratzen da, birsubjektibizatzen da, bilduma bakar baten sailetan gauzatzen den neurrian**. Artean beste horrenbeste gertatzen da. Baina, orduan, zer zentzu du «finkapenez» hitz egiteak?

1. Eta honela esaten da bada, gaztelera zaharrean:»no me cuido de que a vos os preocupe que...»

2. Singularra da bertan zehar denborak, historiak, humanitateak igaro behar duten kategoria (*Kierkegaard, S. «Seduzitzaile baten Egunkaria»*).

3. Zernolako gozamena, ordea, desziframendu astun horien ondoren esentzialtzat hartutako ametsa egoera garbian berriro ere aurkitzea! (*Richard J.P. Richard, «L'Univers Imaginaire de Mallarmé»*)

Galdera honi erantzuteko beharrezkoa da: funtsezko elementu batetik abiatzea: **jatorrizko gertakariaren norabidea erabakitzeak, subjektuaren interbentzioak ez du aitzikirik.**

.ULERTZEKO GARAIA; ALDATZEKO GARAIA. Lacanek auzi hau ebatzi nahi du: bi denboraldi desberdintzen ditu: **ulertzekoa eta aldatzekoa. Eta Mannoniren ustez, Freudek «psikoanalisi» zeritzona, subjektuaren historiaren beraren gain hartzea da.** Honela izango da historia hori besteari zuzendutako hitzak eratua bait da. Hitza erabiltzeko aukera izateak dakarren errealtate beragatik. Beraz, Lacanen arabera, historia zera da, egiaren agerpena errealean¹. Zer esan nahi du honek? Ene! Zera esan nahi du, Egitik harantz nahiz honantz, hitza dagoela! Hori da soilik esan nahi duena.

.BESTETIK EDO BESTEARI HITZ EGITEA. Subjektuartekotasuna (nire nitasun murrizgaitza) ezartzen da Bestearen aurrean eta bestearekin hitz egitea posible den unetik aurrera. Hau da, bestearentzat «elkarritz egitea», «hitz egitea», funtsezko osagarria da. Ondorioz, **historia subjektuartekotasun gisa osatzen da (=bestearen erantzuna barne hartzen du) transferentzia/kontratransferentzia.** Solasaldi horretan bertan

1. Gizona eta gizartea aztertzen duten disziplinek ahalegin handiak egiten dituzte zientzia bihurtzearen. Hartutako ideiak eta ezarritako aurrekontzeptuak aztertuz, gizona arduratzen dute, hasiera batean bere izatea enigma gisa proposatzen dutelarik eta bere izaeraz eta objektuen bereizgarritasunaz larrituz. Gaur egun ez da bere epistemologia berezia landu gabe aurrera doan zientziarik. (*Fougeyrollas, P. «A filosofia em Questao»*).

hausten da subjektuaren «alienazioa». **Honen eraginez formula hau sortzen da: Inkontzientea, banakoazgaineko gisa, bere berbaldi kontzientearen jarraikortasuna berrezartzeko «subjektuaren disposizioak hutsean duen» berbaldi konkretuaren atala da¹.**

.ELKARRIZKETA, TRANSFERENTZIA, EGIA. Baina zer esan nahi du Inkontzienteak ideien eta are gehiago, pentsamenduaren funtzioetan parte hartzea? Zer dinamika ezartzen da, informazioa (komunikazioaren ikuspuntutik) transferentziaren dialektikara makurtzearen? **Zer da subjektuari hitzaren betetasuna itzultzen dion transferentzia erlazio hori? Hau da, berbaldiaren zentzua itzuliz, egintza historiko, hots, egiaaren «aurkikuntza» bihurtzen duen hori? Baina, egia izan al daiteke? eta Zein egiz ari gara?².**

.EGIA ETA INKONTZIENTEA. Freudengan, bere ideologia fisikalistatik harantzago formulazioak bilatzen baditugu,

1. «Ez dago inoiz Nitasunik gabeko subjekturik, osorik gauzatutako subjekturik, baina hau da, analisisan subjektutik lortu behar dena. Analisisak zera lortu behar du, subjektua beste subjektu batekin elkar dezan egiazko hitza, lengoaiaren hormaren beste aldera. Subjektuak egiazko Bestearekin duen azken erlazioa da, espero ez den erantzuna ematen duen Bestearekin, analisiaren gailurra definitzen duena» (*Lacan, J.*).

2. Ezaguera faltsu bilakatzen da zehaztu eta isolatzen den unetik aurrera eta egiazko da, bakarrik, oraindik ihes egiten zaizkion xedapenatarantz tentsio etengabea mantentzen badu... Baina bere loturak banakoak bermatzen ditu praxiarekin eta praxiatik (*Marx, K.*)

Galileorengan duen bezainbesteko alderdi garrantzitsua aurkitzen dugu: ez da egitatearen esperientzia, «gogamenaren» esperientzia baizik. **Irudimen sortzailea.** Ildo honetan, dimentsio jakin batetik, **Inkontzientea historiaren atal zentsuratua dela diote.** Baina, orduan, egia izan daiteke, Inkontzientean bertan baitago idatzita, eraikuntzazko aukera orotik at. Baina, **zein epifani motan?**¹ Gogora, nola, Freudek inkontzientea ondoko hauetan zegoela zioela:

- . monumentuetan (nire gorputzean, Historiaren erdigune historiko gisa);
- . artxibu zaharren dokumentuetan (haurtzaroko oroitzapen barrenduezinak);
- . norberaren garapen semiotikoan (estiloa)
- . tradizio, legendetan, nire historiak heroien modura kontatzen dituen guzti horretan;
- . nire kontaketa bihurritzen duten eite guzti horietan..

. / ...

.BI PERIODIZAZIOAK. Guzti hau honela bada ere, **zer egin daiteke Historia hori zeharo organikoa den koadro batean**

1. «Erlazio nartzisistaren erbestea, subjektu gisa ibilbideari ekiteko aukera baldintza dirudien erbestea. Gogora Edipo, hain zuzen ere, bere jakinmina medio, azkenean tronotik baztertzeko dutena eta ikusmena galtzen duena; baina erbeste hau (tronoaren erbeste intzestuosoa hau) aldi berean subjektu gisa bere gizon izaeraren mailan egongo litzatekeen ibilbideari ekiteko aukera baldintza izango da». (*Lacan, J.*)

«sistematizatu» eta «arautzen» duen Fenichelen ortodoxiarekin? Nola bereiz daitezke banakoaren garapen organikoaren mailak eta subjektuaren historia osatzen duten gertakariak? **Gertakari nagusia planteatzen da: Historia, versus bilakaera.** Historiako lehen eta bigarren mailako periodizazioen auzia. Subjektuak zein motatako asaldura nozitzen du? Zer balio eman behar zaie subjektua konprometitzen den egoera berri bakoitzean historia bihurtzen diren gertakari horiei? Nola berregituratzen dira, subjektuaren antolamendu berarenak izan daitezen?

.HISTORIKOTASUN DIALEKTIKOA. Historia deszifratu beharrean gaude. Ez senen edo irriken teoriaren aurrean, osagarri subjektibo gisa aurreitxuratzen duen Inkontzientearen teoriarekin baizik. Halere, honek, beste arazo bat gehitzen digu: subjektuak bere historia bezala berrezagutu behar duena bere inkontzientea (edo borren atal bat) besterik ez da. Eta, halere, **ez al da Inkontzientea kontziente «bihur» ez daitekeena?** Bestalde, **egitaterik nagusiena da «egitateen» (=subjektuaren jokabideena) egiazko historizazioa, gertatutako «egitateen» historikotasunak finkatzen duela, ordena jakina duten «egitateak», esanahi jakin bat eta erradikalki, zentzu jakin bat dutenak. Zentsuratu, erreprimitu eta menperatu zituzten Ordena (eta iherarkizazioa), Esanahia (eta «zentzua»).**

.«ORIENTABIDE» DETERMINATZAILEAK. «Zer egituratzen da esperientzia bakoitzean, jokabide bakoitzean, subjektuaren erlazio bakoitzean? **Lacanek ez du «finkapenez» hitzegiten, norabide jakin baterantz bultzatzen duten arren, ahazten**

diren «espazio historikoez» baizik. Baina Lacanek ez du «espazio» gisa burutzen diren prozesuen dimentsio historikoa berreskuratzen. Gertakari baten balio historikoa ez baita termino kronologikoetan ezartzen, balio osagarrietan baino: Eta bertan dago gakoa¹

.DENBORALDIEN ERAIKUNTZA BIZIA/IRUDIME-NEZKOA. Honen arabera, banakoaren historizazioan, mailak, prozesu osagarrien sistemaren metafora kaxkarra besterik izan al daitezke? Gainera, transferentziazko erlazioa, ez al da desioaren agerpenaren «modu» intentzionaleko askapena baino? Eta hau, ez al da «erlazioan» izatearen adierazpena baino? Mailetat mintzatu behar badugu, horien paramen organikoa halabeharrez galtzen da, **«estadioak biziak diren heinean baitira, subjektibotasunean antolatzen direnean bakarrik».** Bertan, bi elementurekin topo egiten dugu: **analisiaren «birreraketa» prozesuan, Historiaren «lehen mailako» periodizazioa dago, azken finean, subjektuarentzat arras itxia geratuko dena; bestalde,**

1. ...Badago Angelus Novus deritzon Kleeren koadro bat. Bertan, harrituta duen zerbaitengandik ihes egiteko zorian dagoen aingeru bat agertzen da. Begiak, neurrigabeki irekiak ditu, aho eta hego zabalik. Historiako aingeruak honelako itxura izan beharko du. Aurpegia iraganera so. Guk datu katea nabaritzen dugun tokian, hark aurriak bata bestearen gainean nekerik gabe pilatu eta bere oinetara jaurtikitzen dituen hondamendi bakarra ikusten du. Gustatuko zitzaiokeen bai gelditzea, hildakoak esnatu eta hautsitakoa konpontzea. Baina paradisuatik puzka datorren haizerauntsia hegoetan sastrakatzen zaio eta hain indartsua izanik hegoak itxi ezinean dago. Haizerauntsi honek, halabeharrez, bizkarra eman dion etorkizunerantz bultzatzen du; aurri pilak, ordea, bere aurrean jasotzen dira zeruraino. Haizerauntsi hau da *aurrerakuntza* deritzoguna. (*Benjamin, W. 9. Tesia*)

badago «bigarren mailako» periodizazioa, subjektuak bizi behar duena (ustez/afektuz).

. Beraz ,1. Periodizazioa, *gertatu gabeko egitate inkontzienteak*;

. 2. Periodizazioa, gertatutako egintzak, kontzien-
teak nahiz inkontzienteak, gogoratuak nahiz gogoratu gabeak.

.BESTEARENGATIK IZATEA. Badago itzulerarekiko murrizgaitza den «puntu» historikoa, eta «puntu» hau (= prozesu sistemak), subjektibotasunaren interbentzioaldia da, bitartekoa, osagarria eta ezartzailea. **Ezinezko sarbidea duen «lekua», Beste Subjektibotasunaren denbora delako. Zentzu-emate denbora, horrenbestez, Bestearen desioaren burutzapen «objektiborako» denbora dena: izendatzen nautelako «naiz», desiatzen nautelako «naiz». Nire materialtasun propioa da, izenaren eta desioaren objektu-termino gisa,osatzen nauena. Eta prozesu honetan nire amodioaren subjektua, ekintzaren egile ordezkatu gisa ezartzen da, historikotasunaren munduan sartzen naizelarik. Ni, Bestearen desioaren objektu naizenez gero, gizatasunaren bidean jartzen naiz. Garai horretan hasten da nitasuna subjektu gisa eratzen deneko dramatika. «Eskaintza», prozesuaren lehenengo egintza delako, Bestearen desioaren Subjektu, hau da, nire identifikazioaren subjektu, bilakatu ala ez.**

.ANTOLAMENDUA. Zerk osatzen nau? Noski, erlazioaren antolemenduak: «**zentzu emate**» egintzak zeharo berezitako hiru plano ditu, beren artean ongi artikulatutako planoak izan arren:

1. gizarte jatorria
2. lotura
3. ekintzaren ordezipena
4. (desio objektu gisa)

.HIRU NORTASUN PROZESUAK. Banakoa objektibazio anitzaren menpe dago: **gizarte nortasun termino gisa, desio objektu gisa, ekintzaren beharra duen eragin gisa. Eta historikotasuna izendapen, lotespen, elkarlaneko egintza honen izaera eraiki eta osatzailean agertzen da. Ez dago inprimazio zehatzik hartzen duen «esentziarik»: trukean, burutu beharreko eite sistema bereganatzen duen izateduna dago. Beste izatedun batetik burutu beharrekoak, alegia. Zentzu honetan, gizakuntza da «haurraren garapenaren motore».**

.BESTEAREN ORDENA. Bertatik, eta, Lacanen proposamenaren arabera, subjektuarterko erlazioaren garrantziaren baiespenarekin, **Natura eta Graziaren arteko oposizioa planteatzera hel gaitezke. Subjektua, banakoak «subjektiboki» esperimentatzen duenetik harantzago doa= Subjektuaren Inkontzientea Bestearen berbaldia da¹.**

1. Subjektuak bere sorrera Bestearen Ordenari zor dio: arrotasunak betetzen du, radikalki osatu arte.

.../...

ARTEAZ HITZ EGIN DEZAGUN

Estilo batek edo «mugimendu» batek (futurismoak, kubismoak) ez du artista definitzen ez eta erabiltzen duen teknikak (Warhol, Vasarely, Nauman, eta abar), ez eta enkargu jakin batekiko erlazioak, *ekoizpen sistemarekiko* erlazioak eta bera barnehartzen duen *poetikak* baizik.

——→ poetika espresionistak edo ekoizleak izateaz gain, arteak bere testuinguruaren barne eta bere bereizgarritasun ekoizlearen beraren barne duen leku aldakorren berri ematen duen egitura ere bada. Honetaz hitz egiten dugu «**kritikatu, beharrezko eta natural bezala aurkezten denaren izaera kontingentea azalduz**» baieztapenaz. Puntu zehatz honetan, **zertaz hitz egin dezakegu, lengoaiari eta lengoaia artistikoei buruz hitz egiten dugunean eta halaber «autorearen heriotza»z hitz egiteak suposatzen duen ukapen subjektiboaren aukera edo aukera ezaz hitz eginez?** Arteaz, edozein artetaz, arte **lekutuaz** hitzegiteak, **formaz eta bere arazo objektiboez, eraikitzaileez eta abarrez hitz egitea suposatzen al du?** Izan ere, «**abangoardia**»k (kontzeptu susmagarria, baten bat badago) edo «**eskola**»k edo «**mugimendua**»k, edo abarrek, argitu beharreko zenbait erresistentzia batera eramaten dituztela dirudi; hala ere hau

ez da argitzeko ez une, ez leku egokia.

——→ **FORMALIZAZIO ALDIA.** Rubert de Ventós-ek dioenez, formalizazio hau litzateke gakoa edo gakoetako bat¹. Baina hau Artearen Historia ez-formalista edo ez-historizista baten ikuspegitik egia da eta ez da, kontraesankorra (Popper goratuak irakatsi nahi duenaren aurrean). Honela, arte obraren enkarguak maiz ezarri du honen «**formalitatea**» (hau da, paradoxikoki bere «**edukina**»). Nork eskatzen du «**arte**»? elizak erregua, barrukotasuna eskatzen du; burgesiak oparotasuna, errespetagarritasuna, nabarmenkeria eta merkataritzaren sustapena; arte merkataria artistak bere buruari imita diezaion, formak errepika ditzan, hauen merkatua eta zirkuito-erakunde paraleloak aurkitu eta **zehaztu** baitira.

——→ **Zer ekarriko liguke «autorearen heriotza» gaiaz ari garenean, zeri buruz hitz egiten den jakitea ahalbidetuko**

1. «Formalizazio artistikoak ez du errealitatearen edo lengoaiaren egitura formal sakona deskribatzeko xedea, aitzitik, errealitatearen balizko «**edukien**» agerpen «**formala**» aurkitu eta azaleratzeko xedea du. Sakontasun, mezu edo asmo guztiak azaleraraztean, kanpoko egitean, gure zentzuek atzi ditzaketen eremuan uztean datza. Artistak «**formalizatu**» egiten du, ahalik eta funtzio gehien forma bilakatuz, ahalik eta exigentzia gehien itxurazko dohaintasun, ahalik eta behar gehien jolas, bai eta ahalik eta ideal gehien irudi ere. Hitz batean esanda, ahalik eta Esentzia gehien itxura» (*Rubert de Ventós*)...*katalanerako testu baten aipu bat dela aipatu behar dugu eta orduz geroztik gogotik bota du euria.*

lukeen egungo arazoen ikuspuntutik lehenaren berreraikuntza kritiko gisako sustapen historiko batek, guztiz historiko batek? Agian, pentsamendu plastikoak, musikalak, poetikoak, azken finean bere formulazio teoriko-kontzeptualen edo teoriko-filosofikoen aurreko bideak proposa baititzake. Zentzu honetan, errenazimendu garaiko pinturak gauzatzen duen espazioaren homogeneizazioaren arruntespena res extensa kartesiarraren aurrekoa dela esaten da. Edota barrokoaren espazio subjektiboaren osaketa, espazioaren formulazio kantiarraren aurrekoa dela, giza sentiberatasunaren forma aprioriko, eta abar bezala¹.

—————→ OPERADORE SEMANTIKO BAT. Hala ere, arazoak gehitzen direla dirudi. «*Historia/historiak*» **bezalako artikuladore kontzeptual batek esku hartzen duen** neurri berean. Une jakin batean, artea edo **poietikos-a** (bere adierazpideen aniztasunean)² sozialki, kulturalki bai eta ekonomikoki ere **ordenatu edo testuinguruan jarri** bazitekeen ere, bapateko agerpen subjektiboak esparru egonkor hori asaldatu egingo du. **Nola** galderaren ondorioz -agian galdera planteatu eta planteagarri bakarra- balizko **gai, konposaketa bai eta funtzio kontenidismoak** ere gainezka egingo du, formazio eta figurazio berriak definitzen dituzten hausturak sortuz. Beraz, galdera honen ondoren esparru aldakorrago bat izango da. **Esparru hau epifani formala, bere buruaren eta bere figurazioarako aukeren eta legalitateen antolatzailearen,**

1. Gai guzti hauei buruzko erudikzio zerrenda aspergarria litzateke.

2.- Zegoeneko helendar zibilizazioko historialariek, Zielinski kasu, aztertzen zuten **korea** bateratzaile harez geroztik.

esparru bat ezezik; subjektiboa eta beraz, formalitate horren ondorioz eta dirudienez legitimoki hortik, nola galdera zer, non eta agian zergatik galderak gainditzen duten espazioa ere izango da.

————→ **FORMA ETA IZAKIA.** beraz analisiak (batzuetan ezinezkoa) etengabe kontenidismol hauskorak transzenditzen duen horretara eramaten gaitu, hemendik objektu artistikoa eraikitzen den neurrian subjektu artistikoa ere eraikitzen da. Historikoki, nabaritasun osoz. Bere barnetasuna aztertzen digun obraren formal-konstruktibismoa; antolaketa sozialean zein zeregina duen esango digun funtzional-estrukturala; sistemiko-kodifikala, bere poetikak, erretorikak eta testuinguruak aztertzea ahalbidetzen baitu². Hau da, legezko proposamen baten normatibitateak (=zer da eta zer egin behar da izakiarengana

1. «Kontenidismo» hau ez da *gai bihurtze* ikuspuntu hutsetik ulertu beharrik.

2. → Nola
 → Zer
 → Noiz

puntu honetan, periodizazio ideia arauzkotasun baten historia izango da, edota estilo edo modu baten barneko aldaketarena (=nola) edota estilo batetik besterako aldaketarena edota artea aukeratutako tarteetarako izatearena edota, azken finean, tratamendu artistikorako gai izan daitekeen materia, esfera edo gauza izatearena. Dena hartutako aldiaren menpe egongo da. Hau, neurri batean, Rubert de Ventós-en tesi bat zen. Baina faktore subjektiboa sartzek aurreko abiapuntuen irakurketa mekanikoak indusitu ditzakeenak baino inflexio nagusiagoak sortzen dituela iruditzen zait (ikus Delacroix-en espazio piktoriko eta eskulturalari buruzko gogoetak, bai eta denbora musikal eta literarioari buruzkoak ere; edota errusiar sinbolisten eta formalisten sorkuntza eta egintza artistikoari buruzko gaiak, bereziki Potebnia edo lehen garaiko Jakobson...).

heltzeko: xede metafisikoa duen proposamena beraz) autonomia eskakizun batera heltzen da. Hau, agian, arteak **espresionismo existentziarioaren (oraindik ez existentziala) eta irrika bitalaren adierazpen hutsa** izan behar duelako proposamenen hasiko da¹.

ARTEA AUTONOMO BIHURTZEA. Tentsio aldaketa honakoa izan zen: —————> kezka sortarazten zuena ez zen artea nola ekoiztu, teoria baizik eta, agian lehenik, *eremu artistikoaren beraren onespena*. Eta agian barne mugak. Artistaren *ikuspegi* soziokulturalaren proposamenari eta alde aurreko gertakari bezala, bere autonomiaren baieztapen *ideologikoari*, arteen eta generoen sailkapenerako proposamen batek emango dio jarraipena. Egun artearen «*autonomia semiotikoa*»² hartzen dugunaren gertakaria erreflexiboa da, kontzeptualki oso ondorengoa, bere puntako formula orain autorearen heriotzaren inguruan biltzen gaituena izan daitekeelarik. Autore/idazketa autonomiak, idazketa beraren absolutitateak honako galdera behartzen du: —————> noiz da *zerbait* artea, noiz teoria?...

1.- Erromantizismo osoa, baina ez da bera soilik izango, espresionismoaren hastapenetatik hasita abstrakzio proposamena bitartean ikusi ahal izango den bezala. Ikus Kandinski, Mondrian, Malevich, eta abar. «Existentziarioa» eta ez «existentziala», erromantizismoan pentsamendu eredu-filosofikoan benetako krisialdia dagoela pentsatzen baitut, dena den bere baieztapen ontologikoaren kontzeptua ondoren mugimendu existentzialistak eusten zuenari ezin zaiolarik lotu.

————→ egoera honetan, zer egin dezake, egin zezakeen arteak?
Proposamena banaketa onartzea izango zela zirudien eta honek sintesi humanistaren eta bazterren erradikaltzearen haustura onestea ekarriko luke. Ez dago arrazoia eta irudimena, apolineoa eta dionisiakoa elkartzeko aukerarik. Haustura hauek joan den mendearen azken mende laurdenean hasi ziren eta mende guztian zehar nabari badaitezke ere, bigarren erdian nabarmentzen dira, mende erdi honetan subjektuaren deseraikitzearen eta deszentratzearen ziurtasuna agerian geratzen baita.

————→ EGIAREN BOZERAMAILEAK. EGIA ETA ABANGOARDIAK. **Zer da artea? zer da sorkuntza? nor da autorea?** galderei dagokienean, dirudienez XX. mendean bere buruaz jabetu egin den iharduera honek bere identitate bereizgarria baieztu nahi du, bere kodea asmatu, inongo instantzia adierazkorren, funtzionalen edo apaingarrien menpe ez egon, eta abar. Tradizio humanistarekin haustea ekarriko badu ere, bere historia desnaturaldu, balizko «**barneliluraketa**»¹, «errealitatea» ez imitatzea, bera (=artea) «**errealitate**» «izan» baizik. **Errealitatezkoa izan. Edo Artearen Egia...Egia izan** esan zitekeen ere, ez dakit xede guztiz ez jakinaz edo proposamen eldarniagarri baten ondorioz.

————→ Baina, zerbaiti arte dei geniezaiokenean eta autorearen kanporaketa positibista bete egiten denean, deszentrazio beharra

1.- Kontu handiz izan arren, Rubert de Ventós-en proposamen zaharraren gogoeta ildoei jarraiki. Hala ere «barneliluraketa» kategoria bera garai hartan eztabaidagarria bazen, egun askoz ere gehiago da.

ekartzen duen autonomizazio honek, berehala, ezagun zahar batean amaituko dela pentsarazten digu, hau da **izpiritu hegeliarrean**, egun Terminator postmoderno bilakatua. Ekuazio ezkutua eta maltzurra betetzen zen, ia Laplace jaunarena bezain misteriotsua eta honela Errealitatearen, Egiaren ildotik izpirituaren agerkunde bat ez bada er, bai Estatuaren Departamentu burokratikoetako bat.

——→ ERREBOLTA. hasiera ez zen txarra izan: **arteak pertzepzio formula berri bezala; aurreko lengoai mailakatzailen objektuak askatu: pertzepzioa apriorismo eta automatismoetatik pertzepzioa askatu; ezagutzen diren medio berrietarako aukera berriak martxan jarri. Beste ikuspegi bat eduki, beste ikuspegi hori adierazteko gai izan eta gainera hunkitu, irauli, honela hartzailearengan ere eragin espresiboa sortuz.** Singulartasunak bizi eta egoera «**ikusgarriak**» sorteko gaitasuna eduki... Hau da, arteak gure pertzepziora, objektuen bat ekarri eta beste edozein edota ezein mailakatzeari urrun mantentzea lortu. Agian honek sahistuko du genero, medio, prozedura, estilo

1.- «Objektua ikusmen gisako sentipena sortarazteko eta ez berrezagutza gisakoa». Hau baliagarri gerta daiteke Inpresionismoaz nahiz futurismo edo surrealismoaz aritzeko. Izan ere, teoria semiotikoak proposamen epistemologikoa estaltzen du, matematikaren eremuan, proiektzio geometrikoan, fisikan, informazio teorian eta beste zenbait eremutan bakarrik eutsi ahal izan delarik: Adierazletik eta ez adierazitiki artikulatzen den objektibotasun teoria. Artean, teoria *ez-»errealista*» hau mantendu ahal izan zuten auzi semantikoa ordena linguistikoa honetan arazo tangentiala bakarrik zela uste izan zen unetik aurrera. Gaiak, halere, izugarritzko garrantzia dauka.

eta abarren haustura. **Hondamendia, materia, antolaketa, osaketak, figurazioak, teknikak...** Baina honek ere iharduera artistikoa bere ekologia soziokultural zehatzetik (eta ekonomikotik, politikotik, sozial jakin batetik...) testuinguruaz kanpo utzi dezake¹. **Mugen eta eremuen nahasketa, luzapen eta mugitze jokuak, izkutatze eta itzultze efektuen jokuak, zalantzarritasun eta irakurketa mailen jokuak.**

—→ Dena den, hasieratik, pertsonaia/artistaren eta bere eszenatokiaren inflazio bat dago, bere eskatologi mitologikoa sortzen duen banpirizazio bat eta mixtifikazio etengabeak eragingo dituen. Berritze edo aldaketa formal ororen ezaugarri den beharrezko esperimentalismoa, ikusi dugun bezala, **harrapaladan abangoardia proposamen bihurtuko da**. Estetizismo edo ebangelismo, grina eta eskuzabaltasuna, drama edo komedia, bere garaiko bandera eta manifestuen atzetik, abangoardia artistikoak askotan Historian bere **beste lekua** nahi du. Baina, abangoardia bezala definitzearen beraren proposamen kontraesankor hori eman arte zein iraultza ematen da? Delacroix-engandik eta erromantizismo-expresionistatik dagoeneko, naturalismo berri baten bilaketa. Delacroix-engan interesgarriena, garrantzitsuena sortutako eragina bada, espazio piktorikoan bertan aldaketa nabarmenak sartuz, arkitektura eta eskultura utzi egiten baitira (estiloaren menpekotasun klasizista); inpresionismotik faubirismora edo expresionismorako ondorengo mugimenduetan arkitektura

1.- testuinguruaz kanpo uzte horren kontzientzia faltsua behintzat.

paisaia, argi, pinturarako gai bilakatzen da. **Objektibotasuna, erreferente batera jotzen duen erlazio semiotikoa denez, estatu berri batez hornitzen da¹.**

——→ OBJEKTUZKO KONTRA-ERREALISMO BAT. Monet, Sisley, Pissarro eta Van Gogh-ek espazioaren eta erreferentearen kontzepzio berri oso bat naturalismo argitsu batean gauzatzen dute, honek objektuaren estatutu berri bat ekarriko duelarik. Argi, kolore, giro efektuak nagusitzen dira eta errealitatea gero eta autonomoagoak diren balore artistikoak nabarmentzeko aitzaki bat bilakatzen ari da. Erreferentzialen modernizatzea hiru mailatan gauzatzen da: **1.) aurkezpen modu desberdinek espazio euklideoa aldatzea; 2.) kolorea pinturan duen lotura naturalistetatik askatzea; 3.) forma/hondo bereizketa ezabatzearen ondorioz, adierazpen ikonikoaren konbentzioak ezabatzea.**

——→ ADIERAZIAREN PORROTA. gauzen esentzialitatea eta hauen iraupena aldarrikatzen duen sistema baten aurrean, aldagarritasun «**objektiboa**» nabarmentzen hasten da, agerpenaren

1.- Honen hamaika adibide jar daitezke, agian nahikoa litzateke XIX. mende bukaeran baliagarritzat hartzen ziren erreperitorio ikonografiko guztiak zertan geratu ziren aipatzea. Erregistro semantikoan ematen den bilakaera -nik bapatean adieraziaren mailatik adierazlearen mailarako urrats gisa adieraziko nukeena-, ahalmen linguistikoaren ordenean ordenadore mintzodun batetik hitzun baten enuntziaziozko hitzera igaroko bagina bezala izango litzateke.

adierazlea. Subjektua ikusle hutsa bihurtzen zuen mundu klasikoaren esentzialismo kognitiboaren aurrean, subjektuak ikuspegia aldatzeko duen gaitasuna bai eta objektibatzeko dituen baliapideak ere gauzatzen dira. Izan beharrean, gertatu. «**Gauza**» bere gertakari adierazpenen aniztasunean gauzatzen da. Dagoeneko ez dio axolarik bere balio **sinboliko-erreferentzialak** (=bere adierazia), ikonizitate adierazi hori porrot egiten hasten da eta beharrezkotzat adierazten dena, «**benetazko**» eredu bat baino, artistikoki parte hartzeko eta egintza plastikoa, piktorikoa bera sortzeko programa bat da. Baina, erne!, subjektua ere ez da abstrakzio bat, iharduera horren ondorioz sortzen den funtzio bat baita. Eta agian honi eman zaio garrantzi gutxien.

————→ **BESTE OBJEKTIBITATEA.** Cézanne, Pissarro, Van Gogh, Malevich, Kandinski-k¹ honi ekin zioten, honela artistari munduan, bai eta bere objektuen artean ere, zer interesatzen zaion azpimarratuz: kopiatzeko eta imitatzekeo ereduak baino, artistarena egiteko aukerak eta arrazoiak; **horrexegatik, bere baitan isila den subjektu batek dituen burutzapen aukera desberdinak adierazten dituz ten formazioak interesatzen zaizkio**¹

1.- beti obra eta iruzkina bereizi behar ditugu: gutunak, testigantzak, liburuak, manifestuak, justifikazioak... Ikus, dena den, Matisse-ren bidaia agendak, «gailentzen den» emaitza edo planteamendua erabaki aurreko zirriborro, proposamen eta garapenak tailerretan miatu. Eredua ez dago errealitatean, beste leku batean, «*neure buruan*» baizik, haurrek esaten duten bezala.

Gainera, artista hauen lanetan ezagutzeko moduko objektu-adierazien aurrean gaudenean, hauei interesatzen zaiena bizi izandakora itzultzea da, bai eta pertzepzio baldintzen eta argi aldaketen analisisa ere, hauen gainean elkartruke sozialaren legezkotasuna ezartzen duten ezagutza sinboliko/objektiboaren faktoreek esku hartu aurretik. Proposamen artistiko honetan objektibazioa dago; nahiz eta **beste objektibitatea** izan, noski.

—————→ Honela, Impresionismoak objektuetan ezaguna dena sakrifikatzen du, tonu lokalak, irudia hondoan urtzen du, itxuraren modalitateetara jotzen du, argiaren koloreetara. Irudiak eta hondoak bat egiteak, hots koloreak linealtasuna nagusitzeak edo kolorea agertze honek aldaketa objektibo bat sustatuko du. Argi baldintzak aldaketa txikiak eragiten dituzten baldintzak baino, forman, linean edo tonu lokalean eragin handia duten baldintzak direla argi uzten du. Lehen guztiak **errealitatearen berri adierazgarria** ematen zuen adierazi bat lortzen laguntzen bazuen, ***orain dena adierazle figuratiboa sotzeko zereginaren menpe***

1.- (Malevich: «**De Cézanne al suprematismo**», 1920).

Benetan zailena ez da haurrekin bat etortzea (goian esan bezala): subjektua esaldi sailak, formazio plastikoak, autobide, urbide edo untzi zoragarrien injineru proiektuak burutu ditzakeen «norbait» ez dela ulertzea da zailena, testuan adierazten saiatzen garen bezala. Nor beraganatzeko zailena subjektua *inor ez den norbait dela* da, nahiz bere figurazio guztien euskarria den eta bere funtsa bere operatibitatean datzan.

dago. Hots, balore estrukturalak dira¹.

——→ EGIARI EZ ZAIO EGI ADIERAZLEA ESATEN. EGIA ADIERAZLE AGERTZEN DA. Lekualdatze bat gertatzen dela adierazten du, zorionez **adierazian oinarritutako orden semantiko baten nagusitasunetik, adierazlearen ordenean egonkorra izatera igarotzen delarik: zentzu efektua ez dago adieraren menpe.** Koloreak figurazioari aldaketak sortaraziko dizkio: **adierazitakoak behintzat bere egoera aldakorra adierazi beharko du, bere aldaketa, fluentzia, berezkoa duen egitura-ordenean oinarritutako figurazio aukeren aniztasuna.** Jarraitzen diren mugimendutan honakoa ikusiko dugu: kolore, argi eta formaren gaineko ikerketak. Balore adierazkorak, eraikitzaileak...

——→ KONSTRUKTIBISMOA. Antzeko zerbait gertatu zen Cézanne eta kubismoarekin. Eta Delauney, Gris, Picasso, Braque, eta abarrek antzeko planteamendu formulak gauzatu zituzten, **barne egitura bilatu, perspektiba edo azalpen**

1.- Forma heraklitiarra da, ez behin-betikoa, aldibaterakoa eta dinamikoa. Monet-en Londreseko Parlamentuaren seriean (1.900-1.905 bitartean) efektua areagotzen da, bederen, erreferentzialen benetako desagerpen unetara iritsi arte. Itxurak, kolore ñabardura desberdinak Cézanne, kubismoa, Delauney, futurismoan bezalakoak izango dira, aldiberean ikuspegi espazial desberdinak barnebiltzen direnean. (Marchan, S).

ororen berri ematea ahalbidetzen zuen legea aurkitu. Kolorearen funtzio aldaketak azalpena aldatzen bazuen eta honen ondorioz proposamen objektiboa bera, **hauek espazioaren antolaketa koadroaren espazio eta tektonikaren legeekin bilduz, errenazimenduko espazioa gaizkitzen zuten.** Cézanne-k unibertsoaren egitura ezkutuaz galdetu zion bere buruari; bere deseraikuntzatik jo zuen, objektuek irauteko zuten baldintzak aztertu zituen, unitate bakunak lortu zituen, bere forma geometriko oinarritzkoetan sistematizazioa definitu zuen, kolorearen deskonposaketa etena burutu zuen¹.

——→ **EZ-EGIANTZEKOAZ. Geometriko garbien zerrendak, sortzen den desintegrakuntza geometrikoak, kolorearen laburtzeak... egiantzeko balorera jotzen dute.** Ez dago Egiari zerbitzatzerik, egiantzekoan laburbiltzeko borondaterik ez bada. Praktikan burutzen bada ere, ez da bereganatzen. Eskerrak medioaren autonomia zorroztasun maiestatiko eta krudel baten benetazko sentimendu jasanezinaz gauzatzen den. Agian noizbait, surrealisten edo Dadá-k edo Picabia-k, azken finean, Egiaren gartzelari/preso izateak beti arrisku handia dakarrela susmatu zuten. Beraz, azken finean, **ber-naturaltasun** baten gaia berplan-

1.- Honetan biltzen da Cézanne-ren obsesio guztia: Inpresionismoaren aurrean deszentralizazioa eta gero eta abstraktuagoa den eraikuntza batera jotzen duen iraupena. Bernard-i aitortzen dion programa horren pean biltzen den guztiaren geometrizazioaz: **«izadia zilindroaren, esferaren, konoaren bidez...landu».**

teatu zen, honek objetibitate aukera berri bat eskaini zuelarik¹.

——→ ERANZKETAK. Zein esparrutan garatuko zen artea XX. mendean zehar? Zein espazio berri irekiko ziren subjektu/autorearen abenturaren aurrean? Arretaz behatzen badugu, mendearen hasiera horretan garrantzitsua dirudien zerbait ikus daiteke: norabide anitzetan ideal burgesarekin hausten da eta joera horien artean bi nabarmentzen dira: **arrazionalismoa eta irudimenezko joerak**². Arteak proiektu eta helburu autonomistaren gailurra irudikatzen zuen proposamena egina zuen, aldi berean, gailur humanistikoaren manifestua zelarik: **disziplina formala, hizkuntz autonomia, hautagarrikeriaren arbuioa, esentzialaren bilaketa**. Era berean bi mutur hurrunen artean kulunkan dabiltzan bilaketak: **Kafka edo Joyce alde batetik; Malevich edo Rodchenko bestetik. Erabateko birtopaketa subjektiboa lortzeko asmoz murgiltzen dira idazketan edo isiltasunaren osotasuna nahi dute**. Atoniazko musika, funtzionalismo arkitektonikoa, pintura abstraktua, Zuria zuriaren gainean, Beltza beltzaren gainean, erradikalagoa oraindik.

1. Zehatzagoa izango litzateke «*objektibazio bernia*» esatea, abentura irudimenezko/sonboliko guzti honetatik askatu behar den kontzeptua beti, ***objektibotasun*** kontzeptua delako, ***materia jakin baten gaineko iharduera antolatzaile gisa*** eta objektibotasun kontzeptu hau ez dela ematen dagokion subjektibotasun ezean.

2. Ezaguera faltsu bilakatzen da zehaztu eta isolatzen den unetik aurrera eta egiazko da, bakarrik, oraindik ihes egiten zaizkion xedapenetarantz tentsio etengabea mantentzen badu... Baina bere loturak banakoak bermatzen ditu praxiatik» (*Marx*).

Tarabukinek iraganeko arte guztia eztabaidatzen du eta horrekin batera artea bera. Absurdoaren teatroa sortzen da, Actor's Studioko zenbait prozeduretan ere. Brecht edo Piscator, muntaiaren «beste» *testuetatik* aldentzen dira edo *testuekiko* bilaketari ekiten diote, espazio eszenikoa antolatuz, ametsezko enkoadrea sortarazten laguntzeko jatorrizko antzerki proposamena aldatzen delarik. **Ez figuraziorik, ez egiantzik ez eta tonukerarik ere. Ez dago ere kutsadura sentimentalik. Batzutan, isiltasuna. Beste une batean kultura/ natura, arrazoia/irudimena sintesia zen hura... hausturagune izaten hasten da. Izenaren beraren galera. Esan nahi al zuen objektibotasun mota berriarekiko topaketak subjektibotasuna bera baztertzen zuela?**

——→ Garrantzitsua da beste alderdi bat nabarmentzea: XX. mendean sistema teoriko, zientifiko nahiz etiko edo moral nagusien jauzteak gertatzen da. Ezaguera eta jakintzek desagituraketa eta partzializazio berdintsua nozituko dute, ondorioz, egitura gutxiagoko gizarte eta kultura esparrua sortuko delarik. Alderdi soziokulturalen erregionalizazio eta partzializazioak, hala kultur ekoizpenean nola kultur iharduera beraren kontsumoaren zabalera osoan, eragin sakona izango dute.

——→ GALAXIA EZEZAGUNETAKO SEMEAK. Mende honetan zehar, zabalpeneko proposamen teorikoak mugatu xamarak dira eta sarritan, balio **extentsiboa** dute (= **ezarpenezkoa erregio eta partzela guztietan**), **intentsiboa** (= **sistemizatizazio, integrazio edo egiturazkoa**) izan beharrean.

Esate baterako, Kopernikoren kosmologia jada eszenategi zeharo gizatiarra da, integratzailea, sistematizatzailea, gizarteratutako irudimen matematiko batetik burutua, Galileok egin zuen irudimenarekiko deian ikusten den bezala. Honek zenbait autorek **«antzinako unibertsua»**¹ zeritzatenaren amaiera zekarren eta **«mundu modernoaren»** etorrera; Newtonek, Einsteinek ez gaituzte mundu desberdin batean kokatzen, erreferentziazko parametro berriak ezarri zituzten arren. Halere, sistemak, bokazio unibertsuzalea dauka. Hausturak aurrerakin gnoseologikoak ditu, haatik Kanten obrak integraziozko jakintzaren aukera kritikoki salatuko du. Geroago, azelerazioa, agian, Riemannen geometria esferikoarekin hasten da, ondorioz, Heisenbergen zalantza printzipioa sortaraziz, probabilitate estatistikoa, sistema irekien teoria, geroago, anabasaren ekoizkortasunaren ulermena, Prigogin etabarren egitura iraungikorrek, irudikapenezko eredu zientifiko klasikoen jauzia dakartelarik. Freud edo Piageten lanetan ere sistema partzializatuak aurki ditzakegu, baina ez dira salbuespenak. Halere, honek ez ditu operadore metodologiaren asmoak (positibistak, experimentalistak, fisikalistak) eragiten, aitzitik, nonahiko baliozkotasun borondatez dihardute. Intuiziozko munduak mundu arrazionalaren aurrean. Zein arrazoizkotasunez ari gara? Zein intuitibismoez?

Tentsio aldaketa honela gertatu zen: —————> kezkatzen duena ez da artea, teoria nola ekoiztu, baizik eta agian, eta lehenengoz, **eremu artistikoaren ezagutza**. Eta behar bada, barne-mugak. Eta behar bada, aurreko eranzketan nabarmenki agertzen hasia zen

1. adibidez, Ptolomeoren «fisikak» ekar zezakeen imageria eta menpekotasun metafisiko eta erlijiosoarekin...

aszetismoa **desokupazioarekin** amaituko litzateke.

——→ ZIURTASUNEN GALERA. Honela, balio, jakite, sinesmen, arau etiko eta moralek beren egituraketa galtzen dute. Ez da «papurren jakintza» edo ezagupen edo sinesmenen ehuna desagiten duen dispersioa soilik. Integratzaileen galerak operatibitate situazionalaren beraren galera dakar. ——→ Zehaztu beharrekoa zera da, zeintzuk diren **kontzeptualizazio** mailarik boteretsuena duten jakiteak, honek **beste** objektibotasuna dakarrelarik, **objektibotasun** maila altuagoa izan gabe.——→ sistema, esperientziaren (= ereduak, **paradigmak edo egiturak**) ulermen eta azalpeneko eskema adierazleen esparrua da. Sistema batek aldaketaren beharra agertzen du esperientzia hori eta bere testuinguruak adierazteko gai ez denean. Halere, lehenengo arreta-deia, **antolamendu ideologikoen estrukturaltasun erreaktiboaren** aurrean, sistema zientifikoa XX. mendean zehar ahultzen hasi zenean gertatu zen. Freud edo Piageten lanetan ere sistema partzializatuak aurki ditzakegu, baina ez dira salbuespenak. Halere, ekologia kulturala mortu bilakatzen den heinean, honek ez ditu operadore metodologikoen asmoak (positibistak, experimentalistak,

1. Baina aipatu ideologiaren ezaugarri dispersiboak kontuan hartuz, elkarrekintza afektibo, komunitario eta sozialeko erregulatzaile etiko, moral eta juridiko gisa, banako eta taldeen jokaeraren «pattern»ean esku hartzen dutelarik. Jakina denez, kultur antropologia eta gizarte psikologiaren ikuspuntutik, etikoa, *lehen mailako edo erlazorik arkaikoen doinu afektiboari dagokio*; morala, *mos morisetik dator, komunitate bateko truk usantzak eta, juridikoa, maila positibo eta gizarte zirkulazio altuagoko arauak dira.*

fisikalistak) eragiten, aitzitik, baliozkotasun unibertsalaren borondatez dihardutelarik.

——→ TOKI «LURKOIA». Nahikoa erraza izan zen **edukiaren haustura** burutzea. Esanahi adieraziaren loturak erantzi ondoren, gaiaren auzia mugarik gabeko eremu zabalean zehar heda zitekeen, azkenean espero zen berritasuna erredundantzia gertatzen zelarik. **Abentura lurkoia**ren ondoren, abangoardiako artistek **esperimentatzaile** bezala duten zeregina zalantzan jartzen dute: **agian, subertsioak oroitzen gaizto gehiegi dakartzalako, gizarte interbentzioko dimentsio jakin batzuk berreskuratzen saiatuko dira**. Duchampen ingeniarietza paradoxikoa izan daiteke, zenbait surrealismoen nolabaiteko eraketa automatikoa edo action paintingeko proposamen zehatzak izan daitezke. Edo, agian, happeningak edo bestelako situazionismoak dira¹. Aldi desberdinetan zera ikusiko da, irudimen ludiko, sortzaile, festariak kaleratu ahala, hirian sartu, etxetako diseinu teknoa, jarrera eta egoerak suntsitu, harremanak gaineztatu eta egunerokotasuna betetzen duen gogaitasuna ezabatuko duela.

——→ ARTE-MOLOCHA. Zutabe, sexualitate, musika herrikoi, graffitiek, une zehatz batean, zera adierazten dute, ziuraski, arteak gaur egun duen fisonomia hartzera bultzatu duen prozesuak, dimentsio *baztertzailerik eta ezabatzaile* ere baduela.

1. eta ez ditut buruan, hain zuzen, maiatz frantziarraren aurreko eta geroko situazionista maoista aspergarriak.

Arteak, batzuetan, hiria hustutzen du, bestetan, ordea, hiria euskarri edo esparru gisa erabiltzen du. Hiri osoa hustutzen da Arte obra eskergari harrera ematearren. Arte-Molocha da... Egia da artea diseinuan, industrian, modan dagoela eta bertan arrazoi analitikoaren indarrak nahasten direla, irudimen fauvistaren indarrarekin, irudimen hau osotasun artistikoaren ikuspuntutik «profesionalizatuta» ez izan arren. Egia da ere, *aurreko erregionaltasun* zorrotz hura gainezkatzen duten hedapenak burutzen direla arian.

————→ **artea = industria, moda, diseinua, multimedia, ingurugiroa. Ahalgarrira jotzea errealerara baino, irudimenezkora perzeptibora baino. Artearen heriotza ala artearen transformazioa al da? Arteak, ezertarako balio badu, zertarako balio? Gainez egiten eta ustez guztia estaltzen duen testuinguruko arrazoizkotasuna badago. Eta halere, egia da irudimena kalean geroz eta iheskorragoa dela. Erakunde Panteoi edo Panoptiko tentazioek beren zerbitzariak kooptatzen dituzte eta otzandu gabeko sormenaren fauvismoa arian-arian desagertzen da. Agertzen denaren aukerak ikaratzen du: arrazoi zintzoaren gaizbidea. Edo hobe, arrazoi zintzo eta osasuntsuaren aurkako gaizbidea. Arrazoiaren ikuspuntutik, gauza bakoitzak «bere» tokia du. Beraz, ziklo honetan ere ohartaraziko dugu eta, batez ere bere erakusketa galerazi duen amorratutako kontzientzia txarrean. Harekin dator: «BATZUK, GUZTIAK, INOR EZ»¹.**

1. Hau bai gai bikaina biltegi honetako Langabetuarekin gertatutakoa! Baina, zein metafora nagusituko da egoera honetan...

————→ artearen funtzioan aldaketarik al dago? edo Artea, tradizio/erakundezko funtzioetatik aldentzen al da? Ezinezkoa da artearen teoria ulertzea iharduera adierazle/sinboliko bakoitza gertatzen deneko gizarte antolamenduaren eta segmantazioaren teoria ulertzen ez bada. Baldintzak garai batetik bestera eramatea edo desbiderapen historikoa zuzentzen ez duten parametroen arabera artea interpretatzea aberrazioa izan daiteke. Arazoa testuinguru, politika, eta mugaketan datza. Malraux-ren Irudimenezko Museo/Unibertsua baliogarritzat hartzen badugu (eta neurri bateraino arte oro senidetasun bikoiztiarretik dator legitimoki) ondorioa, metroak eta hormetako graffitiak ezabatzen dituen estetizismo instituzionala, soziologikoa, mitologikoa al da? Hiritarrak pasibotasunik funts gabekoenean uzten dituen hiri espazioak simulakruez betetzen dituen estetizismo hori al da ondorioa?

————→ BERE BAITAN BILATZEA. artea pertzepziozko forma berri gisa. Objektuetatik, aurreko lengoaia kategorizatzaileak ezabatzea: pertzepziotik apriorismo eta automatismoak ezabatzea¹.
Beste era batera ikustea, beste ikuspen hori adierazteko

1. «objektua ikusmen gisako sentipena sortarazteko eta ez berrezagutza gisakoa». Hau baliogarri gerta daiteke Inpresionismoaz nahiz futurismo edo surrealismoaz aritzeko. Izan ere, teoria semiotikoak proposamen epistemologikoa estaltzen du, matematikaren eremuan, proiektzio geometrikoan, fisikan, informazio teorian eta beste zenbait eremutan bakarrik eutsi ahal izan delarik: Adierazletik eta ez adierazitik artikulatzen den objektibotasun teoria. Artean, teoria *ez-»errealista»* hau mantendu ahal izan zuten auzi semantikoa ordena linguistiko honetan arazo tangentiala bakarrik zela uste izan zen unetik aurrera. Gaiak, halere, izugarritzko garrantzia dauka.

gai izatea eta gainera, asaldatzea, hartzailearengan eragin adierazlea ere izan dezan. Singulartasuneko esperientziak izatea. Hau da, arteak gure pertzepziara objektua ekar dezan lortzea eta beste edozein kategoriatik at mantentzea. Behar bada, honen bidez, genero, baliabide, prozedura, estilo etabarren segmentazioa saihestuko da. Baina, halaber, iharduera artistikoa bere ekologia soziokultural zehatzaren testuingurutik atera dezake. **Muga eta jabari nahasketa, luzadura eta desplazamendu jokoak, zuriketa eta itzulera eragineko jokoak, anbiguotasun eta irakurketa mailen jokoak.** Baina, halaber, partaidetza jokoa, ekintza, desio, atsegin jokoa.

——→ **HALERE, IRUDIMENEZKO ERREPRESIO HANDIA-GOA.** Badago besterik: Ekosisteman gizarte banaketa indibidualizatzaileko dimentsioak hartuko dituen transformazioa gertatuko da. **Baliteke orain arte hiri bizitzako arlo guztietan, estatu hedapen hain sakonik, instituzionalizazioarekiko joera hain handirik eta talde nahiz banakako irudimen/sinbolo egituraren zirrara hain sakonik aurkitu ez izatea.** Ezer burutu ez dezakeenez gero, ezin da harritu eta horren truk harantzago joateko prest egon, guztiaren hartzaile bezala. Badago **integrazio/errepresio igotaldia, banakoen eskuhartze irudimenezko/sinbolikoa mozten eta norabidetzen duena.** Hiria ez da barnerazlea, familia, komunitatea eta taldea hala ez direlako, errepresio hutsa baizik. Deleuzeren ustez, diren gauza bakarrak desioa eta errepresioa dira. Ez. Badago behar gehiagorik, bete nahiz betetzear geratzen bada ere. Eta desioaren gainean ez dabil errepresioa bakarrik, baizik beharraren lehentasuna ere.

Komunitatearen, auzoen landa nahiz hiri kulturak hausten dira, metropoliko kulturara iritsiz, lujauziaren kulturara: erakunde tertziarioak, informaziokoak, bertan hiritarrak gainkarga informatiko, ia telematiko eta melodramatikoak² jasan behar dituztelarik. Ezer burutu ez dezakeenez gero, ezin da harritu eta horren truk harantzago joateko prest egon, guztiaren hartzaile bezala.

————→ EGUNGO KRITIKA FUNTZIONARI BIHURTU DA. 70eko hamarkadaren ondoren badakigu eremu honetan zer egin. Gaur egun aurkeztutako proposamena topikoegia iritz badezakegu ere, arian-arian positibizatzen zen ibilbidea ikus daiteke (ziuraski **ministraritza, museo eta erakustokien eite totaltzaileen katalogo eta instituzionalizazio logikak inposatutako «burdinezko legeaz»** osorik ohartu gabe... gaur egunerarte, burdinezko sare horri komunikabideen funts gabeko perbertsioa

1. (*Weber eta Simmelek ikusia zuten*) Nekez zenbatu daiteke hiri transformazio azkarrean gertatutako aldaketa ez bada denbora/historia terminoen arabera. Komunitatearen suntsidura, krisi, industri birmoldaketa, inmigrazio eta emigrazio, espekulazio, hiriko tertziarizazio hazkorra, hazkunde informatikoa etabarrei lotutako faktorea da.

2. Irudi aldagarri, etenak, ustekabeko sentipenak, informazio zeharkatuak, sinkopatuak... Lurraldea bere mugetan ezabatuta geratzen da eta unibertsaltasuneko ideia faltsuak banakoa gainezkatzen du, funtsezko erreferentziak galtzen dituelarik. Erritmoa azkarregia da zer prozesatzen den jakiteko. Pentsatzen dut, nonbaiten, neurologoak, beren Kortex hautatzailearen etorkizunak harrituta geratuko direla, gainbeheratzen zaion etorkizunak aho zabalik... Eta ez dakit zergatik baina gogora datorkit madrildarrek lehengo urtean agertutako histeria kolektiboa, amaierarik gabeko lerroan zirikatutak, Velázquezen obraren ñirñira ikustear...

gehitu beharko genioke)¹. Gutxi gorabehera, kezkarik gabe **bilatu** beharrekoa hautematen genuen, *zientiflkozat* hartutako eta horrela mantendutako iharduera artistikoaren analisiaren arabera: errebolta jakin batzuk gertatu zirela pentsatzen genuen:

- formaren balio sintaktikoak
- formaren egiturazko balioak
- formaren erreferentziazko balioak

eta halabeharrez, ondorio gisa, garai hartako soziologiazko quantuma erabiltzen genuen eta bidezko baliz (batzutan bidezko ez bazen ere) hura ikonologia bikaineko ereduz apaintzen.

————→ Baina, zer gertatzen da 60ko hamarkadatik aurrera?² Hasiera batean, Semiotikaren laguntzari esker, batez ere Barthesen irekidurazko bulkada hasi berria eskolastika formalista bilakatzen dena agertzen da, Yuri Lotman bezalako funtzionari zibernetistari ere balio diona. Baina sekula gertatu ez zena zera izan zen; generatibotasuna edo egitura propioen eskurapenaren eta bere garapenen gaia, operatibotasun plastikoko subjektibotasunak operatibotasun berbalarekiko lehentasunaren zergatia

1. E. Goffmanek aipatutako «erakunde osoen» esanahia gogora eta bera egin dezagun.

2. «Ezaguera faltsu bilakatzen da zehaztu eta isolatzen den unetik aurrera eta egiazko da, bakarrik, oraindik ihes egiten zaizkion xedapenetarantz tentsio etengabea mantentzen badu... Baina berarekiko loturak banakoak bermatzen ditu praxiatik» (*Marx*).

eztabaidatzerakoan sekulako garrantzia izan zukeena, **kodigoen egituraren gaia** eta ez errepertorioena. «**Sormen**» famatua «**kalitatezko**» zirkulu integristako ikastaro psikologiko edo psikosozialetako lupeme bilakatzen da.

————→ **MORALTASUN IN-DEZENTEA BERRESKURATZEA.** Zein da etorkizun honen irakurketa, zein orainaldi honena? Badirudi eremu honetan ondokoa ordezkatzeko ahalbidetzen diguten topikoekin aski ez dela: —————→ **sintesiaren ilusioaren gainditzea (ikuskizun «oso» gaur?); zeinuen desinhibizioa, kodeen tematika eta beti lekuko den kodeek poetikekin dituzten erlazioen tematikaren desplazamendu berriari al dagokio? Ez da jada generoez hitz egitea ezinezkoa denik, baina, inguruneak ezarritako ebakin edo mugaketei buruz hitz egiteak zentzurik al du? Eta azkenik, lengoaia desberdinekiko interesik eza.**

Honela, ziklo honetan ere ohartaraziko dugu, batez ere, honekin batera datorren «**erakusketa**» (?): «**BATZUK, GUZTIAK, INOR EZ**»:

————→ gertakari berriak (ikonografia komertziala, publizitarioa, teknologia berriak, etab.) interpretazioko eredu zaharrak birplanteatzera bultzatzen dute. Baina **interpretazioak berreskurapena eta irakurketari** lekua utziko die: ez da teoria zaharretatik abiatuz interpretatzea, —————→ iraganeko gertakarien irakurketa eredu berrietatik egitea da, eta guzti hori, berezko ereduaren auresankortasunaren eremutik sarritan ihes egiten duten

gertakariak daudela kontuan hartuz. Iharduketa ekoizle, irudimenezko nahiz sinboliko berrien banalizazio, kutsadura eta disoluzio prozesuen hasiera. Honek zera ulertaraziko du, ez dagoela beti galdera «**ziurrik**», arazo edo gertakarien sorketa arloa antolatzeke gai den galderarik ez dagoela.

——→ Gizakia, bere ingurunea, bere Ekosistema, osatzen duten objektuez geroz eta inguratutagoa dago, baina ulertezinak zaizkio eta ezin ditu bere kontrolpean ezarri. Objektu alienazioa edo alienazio objektuala: zer diren ez dakien robot unibertsuaren pean dago. Badago ulertzen ez duen teknika kristalizatua: konputagailuak, klimak, inguruneak, etab. Bizitza guztiz sinplea bilakatzen da, baina balio eta erantzukizun inbertsonaleko zerbitzuak dira eta ihes egiten diote². Kultura instituzionalizatua eta teknologia ekoizpeneko kultura, ondorioz, sailkatutako isla, ohitura, topiko kateak arian burutzen direlarik. Histeria laxatu eta obsesioa areagotzen da. Manifestu nartzisista laxatzen da eta stress nahiz depresioak areagotzen dira. Erromantizismoan, asperraldiak ere bizitza jarrera baten ukipena irudika zezakeen: gaur egun gaztediaren izurritea da, gauzarik hutsen eta indibidualena, hain zuzen.

1. Simmelek esaten du hiri modernoko eskizofreniako beste faktore bat inguruko kultura objektiboaren gehikuntza ikaragarria dela.

2. Banako eta taldeko kulturaren atrofia, hiriak sortzen duen kultura objektiboaren ondorioz (*Simmel*).

...Baina, agian, makina desiratzalea orain arte aurkeztu-tako plano ezagunekiko intersektzioa ez den punturen batean geratu da: behin izan ote zenik ez dakigun subjektuaren deseraiketa, edo izan bazen noraino ez dagikun subjektuaren deseraiketa. Nola, zertarako, zergatik autonomo bihurtu eta espazioan gogor jazartzen gaituen Ama nagusia bezala. Larrimindurik, izuaren isiletik, bapatean, eromena ez gurea berea baino ez dela konturatzen gara. Baina gure sinesmenak beregan jarri genituen. De nobis ipsis silemus. Eromenarekin, galdera, espazioa, isiltasuna, itzulera berreskuratu ahal izango ditugu?

FITXA TEKNIKO / FICHA TECNICA

cualquiera todos ninguno

Argitaratzailea / Edita

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

Diputatu Nagusia / Diputado General

ELI GALDOS ZUBIA

Kultura eta Turismo Departamentuko Diputatua

Diputada del Departamento de Cultura y Turismo

MARIA JESUS ARANBURU ORBEGOZO

Kultura eta Turismo Departamentuko Zuzendaria

Directora del Departamento de Cultura y Turismo

GARBIÑE EGIBAR ARTOLA

Artelekuko Zuzendaria / Director de Arteleku

SANTIAGO ERASO BELOKI

Koordinatzailea / Coordinador

JUAN LUIS MORAZA

Textuak / Textos

JUAN LUIS MORAZA, CARLOS BOUSOÑO,

ANA MARTINEZ COLLADO, JOSE LUIS DE LA MATA,

ANGEL GONZALEZ

Fotokonposaketa eta Inprimaketa / Fotocomposición e Impresión

IMPRESION GRAFICA VARELA

I.S.B.N.

84-7907-097-8

L.G. / D.L.

S511001-92

ARTELEKU

FORUM DE LAS ARTES

Barrio de Loyola / Loiola Auzoa

Kristobaldegi, 14

San Sebastián 20014 Donostia

Gipuzkoa

TF 943 45 36 62 / 47 00 21

FAX 943 46 22 56

años

millones de personas

3

100

1.600

6.000

-600.000

-500000. hada

-200000. fuego

ánimo del ser (humano)

ánimo del enser

HOMO

NUMEN

ENSER NATURAL (ANIMAL)

-6000. calendario solar

-4000. rueda, caballería

-2000. arado, zoo

ENSER HUMANO (ESCLAVO)

reno
caballo
perro

DOMESTICACION

(MITOLOGIA) POLITEISMOS

-2.000

ENSER ARTIFICIAL (MAQUINA)

Descartes

Leonardo

Animismo
behaviorismo

Swift

DIVERSIFICACION

MECANIZACION

AUTOMACION

BIONICA

(METAFISICA)

MONOTEISMOS

(ESTADOS MULTINACIONALES)

HUMANISMO

NIHILISMO ATEISMO

CIBERNETICA

NEOS

Marx

Nietzsche

Freud

Darwin

+1.900

+2.000